

SENEKA

Bizitzaren

laburtasunaz

Bizitza zoriontsuaz

Astiaz

HITZAURREA

1. Senekaren bizitzak eta obrak elkarren aurkako itxura bitxi, kezkatu, are eta eskandaluzkoa ere eskaintzen digute. Filosofo estoikoaren irudia dugu batetik, jakintsu apatiko, orekatu eta zoriontsuaren ideal etikoaren gidapean, eta bestetik, Erroman gorteko giro nahasian haren jokabidea, gero enperadore izango zen Neron printzearen maisu eta kontseilari. Gortegizon trebea izan zen, zalantzarik gabe, Agripinak babestua eta Neronek errespetatua. (Gobernari bikaina berau ere lehen urteetan, Seneka eta Burroren aholkuean, grina krudelei eta kapritxozko erokeriei amore eman aurretik). Onura inperialaz baliatuz, Seneka egundoko fortunaren jabe egin zen (hirurehun bat milioi sestertzio, zenbait latifundio eta etxe galantak Erroman eta Baiasen). Familia inperialaren zenbait krimenen testigu mutu izateaz gain, haiek justifikatzen ere saiatu zen (hala nola, Klaudio eta Britaniko pozontzea, edota Agripina erailtzea, semeak aginduta), bere gogoz erretiratu, eta ereduizko suizidioa eragin aurretik.

Antzinatek egotzi zaio aurpegira bizitzarekiko inkoherentzia nabarmen hau, ideala eta bizitza errealearen artean; bizitza aszetiko erretiratuaren teoria etikoa --bere filosofiaren arabera--, eta Julio-Klaudiotarren Erroma ustelduan boterearen gerizpean bizitze praktikoaren inkoherentzia. "Bere printzipio filosofikoen erabat aurka bizi zela aurpegiratu zitzaion" diosku Dion Kasiok (LXI, 10,2). San Agustinek ere hau egozten dio: *"Iste, quem philosophia quasi liberum fecerat, tamen quia illustris populi Romani senator erat, colebat quod reprehendebat, agebat quod arguebat, quod culpabat adorabat."* (De Civ. Dei, VI, 10). Eta zentsura hauek behin eta berriro aurkitzen ditugu beste hainbatetan. Filosofoa multimilioidun bilakatzea aulki inperialera hurbilduz eta lukurreria praktikatu, eta aldi berean bizitza erretiratu eta pobrea goraipatzea, --ondasun materialei baliorik eman barik, bere poz jakintsua izpirituaren lorpenetan eta arima narean oinarritzen duenaren bizitza-- hipokrita eta paradoxikoa dirudi. (Ez du agian hain eskandaluzko itxurarik, politiko eta aldi berean multimilioidun bat filosofiaz idazten eta bizitza lasai erretiratura deitzen jarduteak. Ikuspuntuan dago, nonbait, gakoa.) F. Nietzschek, Senekaren jatorri espainiarraz ari zelarik, "bertutearen toreadore" deitu zion, eta esan zuen, lehenik idazteaz pentsatzen zuela eta ondoren filosofatzeaz, esaera famatuarekin hitz-jokoa eginez (*"Primum scribere, deinde philosophare"*), Seneka izan balitz bezala, ororen gainetik, tendidoari begira diharduen hitzen eta keinuen maisua, erretorika moralaren trebetasunez jositako gizona. Ildo beretik, honela deskribatzen du L. Markok: "teorian harkaitz, kolaboratzaile praktikan", haren bikoizkeriaren eta hipokresiarako talentuaren salaketa azpimarratuz¹.

Hala eta guztiz, existentzia neketsua giro latzean bizi izan zuen pertsonaia hau ulertzeko (ez predikari, ez filosofia irakasle izan zena, gizartearekin eta bere garaiarekin konprometituriko pentsalaria baizik), auzia aurreiritzirik gabe eta patxadaz aztertuz gero, ez zaizu zailegi gertatzen salaketa horiek guztiak errefusatzea, edota gutxienik, aise onartzen dituzu Senekak berak bere garaian kargu berorietaz akusatu ziotenei, P. Suilio kasu, aurkeztutako adierazpenak. Eskola maisuek eta intelektualek gogor epaitzen dituzte boterearen itzalean, Seneka bezala, aberastu direnak, baina errealtate historikoa horien epaiak baino askoz konplexuagoa izan ohi da. Diderotek Seneka errebindikatu nahi izan zuen hau idatzi zuenean: "Jakintsua baliagarri izaten saiatuko da gobernari eskasaren pean ere".

Eta argi dago, filosofoaren eragina Neronen kontseilari gisan onuratsua izan zela haren lehen urteetan, gobernuak gero okerrera egin bazuen ere, Seneka baztertua izan zenean (K.o. 62. urte inguruan). Bestalde, nekez uka dakioke Senekari politikan, berarentzat etikan funtsezkoa zen hura: guztien ongiaren zerbitzuan "borondate ona"².

2. Gogora ditzagun biografiaren daturik azpimarragarrienak. Luzio Anneo Seneka, Betikako Korduba hirian (gaur Kordoba) jaio zen K.a. 4. urte inguruan³. Hangoa zen Luzio Anneo Seneka aitaren familia; honi Seneka Zaharra edo Errektorea deitzen zaio, semeagandik bereizteko, bion izen propioak bat baitatoz. Hiriko gizarte maila aberatsekoa zen eta erromatar zaldizkoen ordenako partaide. Inperioko administrazioan ongi kokatutako *probintzial* horietakoa, I. Mendeko Erroman gorantz egiten ari zirenetarikoa. Semea, *homo novus* bat, senatore eta Enperadorearen maisu eta aholkulari izango zen. Eta lehensemea, erromatar noble batek semetzat hartua, Kontsul izango zen 54. urtean, eta Akaia probintziako Prokontsul⁴. L. A. Seneka Zaharra Erretorika irakasle ospetsua izan zen; testu bitxi batzuk idatzi zituen, *Suasoriae* eta *Controversiae*, garai hartako eskola ariketak nolakoak ziren adierazten diguten fikziozko gertakizun eta adibideak.

Hiru semeetarik Luzio Anneo zen bigarrena. Zaharrena, Novato, karrera administratiboan, goi lanpostutan jardun zen. Mela, hirugarrenak ez zuen legeetarako joerarik, ez eta diskurtso politikoetara; negozio pribatuak landu zituen. Lukano poetaren aita izan zen.

Familia Hispaniatik Erromara itzuli zenean oso gaztea zen Luzio Anneo. Hiru anaiek hartu zuten han heziketa berezia Erretorikan eta Filosofian. Hiru estoiko izan zituen Seneka gazteak Filosofia irakasle: Sozion, Atalo eta P. Fabiano. Lehenak estoizismoa neopitagorismo aszetikoarekin elkartu bide zuen; Fabiano moralista estua eta idazle oparoa izan zen. Luziok berezkoa zuen, antza, letretarako joera eta, erromatar gisan, oso ondo elkartzen zituen elokuentzia eta dotrina filosofikoa.

Berehala nabarmendu zen, bai foroan, bai literaturan. Halako moldez, non Kaligula enperadoreak heriotzara kondena zezan zorian egon baitzen. Berez ere osasun ahulekoa zela eta laster hilko bide zela enperadore kapritxosoari iradoki ziotelako, salbatu zen Seneka. Handik urte gutxitara, Mesalinaren aholkuz, Klaudiok desterrura bidali zuen, Julia Livilla, Kaligularen eta Agripina Gazteenaren ahizparekiko adulterio salaketapean. Korsika uharteko desterruan Senekak zortzi urte egin zituen, --49tik 54ra-- berriro Erromara itzultzeko, Agripina enperatriza berriaren eskariz, zeinak izendatu baitzituen Neron printze gaztearen maisutzat guardia inperialeko prefektua zen Afranio Burro eta Seneka.

A. Burro eta L. A. Seneka izan ziren, beraz, Neron gaztearen maisu eta haren agintaldiko lehen urteetan aholkulari. Senekak idatzi zuen Klaudioren heriotzan Neronek egindako panegiriko ofiziala. (Sinatu barik, Seneka bera izan zen halaber, *Apocolocyntosis* edo *Kalabazakuntza* izenburupean beranduago plazaratu zen panfletoaren egile, Klaudioren apoteosiaz sarkastikoki trufa eginez idatzitako satira zitala). Berak idatzia da, halaber, Neronek agindutako Agripinaren heriotza osteko hitzaldia, zeinetan enperadoreak Senatuari gertakizun tamalgarriaren berri ematen zion. Eta, ezbairik gabe, tronurako lehen oinordeko zen Britaniko gaztearen pozoitzea Senekak isilpean gorde behar izan zuen.

Burroren heriotza ondoren (62. urtean), artean Tigelino zen prefektu, Senekak guztiz murriztua zekusan Neron krudel, txepel, gero eta gaiztoarekiko bere eragina, eta bizitza publikotik erretiratzea eskatu zuen, bere ondasun joriak Enperadoreari trukean eskaini zizkiolarik. Gertakizun honen berri zehatza ematen digun Tazitok azpimarratzen du,

nolatan Neronek maltzurki eta abilezia makurrez eskaria errefusatu zuen. Baina harrez gero Seneka baztertuta geratu zen eta susmagarritzat zeukaten.

Handik hiru urtera, Pisonen matxinada deskubritu zenean, Senekaren izena haren ustezko kideen artean aurkitzen zen. Bere burua hil zezala, agindu zion Neronek. Eta Senekak berehala obeditu, kexurik gabe eta arima naroaren eredu emanaz. Zainak ebaki zituen eta, odolaren isuria errazteko, bainu epelean sartu zen adiskideak eta emaztea agurtu ondoren, honek ere alboan bere buruaz beste egin zuelarik. Estoiko bati zegokion molde sokratikoko heriotza. Behin eta berriro Tazitok goraipatutako heriotza. (An. XV, 64)

"*Un bel morir tutta una vita onora*" dio italiar esaerak. Ez zuen beharrezko Senekaren bizitzak amaiera hau baina, zalantzarik gabe, azken uneko jokabide narea eta antzerki-agur hori bat zetozen bere obretako pasarteekin, zeinetan suizidioa goraipatzen zen askapenaren azken irtenbide gisan. Hirurogeita hamarren bat urte edukiko zituen Senekak --Sokratesek zikuta irentsi zueneko adin bertsua-- bizitzari agur esan zionean. Senekarentzat ere filosofia hein handi batean "heriotzaren hausnarketa" zen. Eta kutunei esan zien, "bere bizitzaren eredu" uzten ziela oroigarri onena.

Naretasun ereduaz gain, obra luze-zabala utzi zuen, zati baten galdu zaiguna⁵, bere garaian bezala, hil ondoren ere ospe handia lortu zuen arren. Eskuratu ditugunak hauek dira: *Apocolocyntosis* (arestian aipatutako satira), *De clementia* izenburupean zenbait lan (hauetarik I. liburua eta Neron enperadore berriari dedikatutako II.aren hasiera geratzen zaigu) eta *De beneficiis* (zazpi liburu); *Dialogi* izenekoek (ez dira berez elkarriketak, zenbait laguni zuzendutako saiakera moralak baizik⁶) kontsolaziozko hiru idazki biltzen dituzte: *Consolatio ad Marciam*, *ad Polybium*, eta *ad Helviam Matrem*, eta ondoko testu hauek, *De brevitae vitae*, *De ira*, *De Providentia*, *De tranquillitate animi*, *De vita beata*, *De Constantia sapientis*, eta *De otio*. Bere azken urteetako obra nagusiak hauek dira, *Questiones naturales* (zazpi liburu) eta *Epistulae ad Lucilium* (124 gutunen bilduma, 62. urtetik 65.era bitartean idatziak; gai filosofiko ezberdinei buruzko saiakera labur hauek eskaintzen digute bere pentsaera etikoaren islarik osoena)⁷.

Prosaz idatzitako obra hauei (osorik eskuratu ez ditugunak batzuk, galduak beste zenbait) gai grekoez idatzitako bederatzi tragedia erantsi behar dizkiegu (*Hercules Furens*, *Hercules Oetaeus*, *Troades*, *Phoinissae*, *Medea*, *Phaedra*, *Oedipus*, *Agamemnon* eta *Thyestes*); noizkoak diren ez dakigu, eta teatroan antzezteko barik, irakurtzeko idatziak direla dirudi⁸.

3. Euskarara itzuli ditugun hiru testuok nahiko zehatz koka ditzakegu denboran: *De brevitae vitae*, Paulinori, herri intendentzia edo *annona*-ko prefektua eta Senekaren bigarren emazte Pompeia Paulinaren aita zenari eskainia, 49. urtean kokatu ohi dute; *De vita beata* 58.ean idatzi bide zuen; *De otio*, Senekak politikatik eta gortetik erretiratzea erabaki zuenean idatzia, 62. urte inguruan. Data hauek egilearen ibilbide biografikoan kokatzen dizkigute idatziak. "Bizitzaren laburtasunaz" desterrutik itzuleran, Agripinaren zerbitzura Neronen maisu gisan hasi aurretik idatzi zuen, hots, printzearen hezkuntza lanari ekin aurretik. Zinezkoak dira Paulinori bizitza erretiratuaren alde egindako aholkuak, liburu on batzuen laguntzan, askatasun osoz bizi izandako astialdiaren barne-bakean eta negozio edo obligaziotan betarik alferrik galdu gabe.

Bere buruari egin ziezazkiokeen Senekak aholku horiek. Eta egin ere, hala egiten du *De otio* idazkian; entsegu honek azpтитulu egoki bat dakar berekin, *De secessu sapientis*, hau da, "Jakintsuaren erretiroaz". Hamabi urteko aldea dago bi testu horien artean. Urte horietan Senekak politikan jardun du; Neronen hezkuntzan saiatu da, haren ekintzak errukirantz bideratzen, eta azken finean bere ilusioak zapuztuta ikusi ditu. Iritzi zaio berari ere erretiratzeko sasoia. *Bizitzaren laburtasunaz* idatzi zuenean berrogeita hamarren bat urte zituen. (Bertan, hain zuzen, azaltzen du bizitzaren bosgarren

hamarkada dela aurretik geratzen zaiona ordenatzeko unerik egokiena). *De otio* idatzi zuenean, Senekak hirurogeitik gora urte zituen, posturik gorenetan ibilia zen eta iragan bizitzaren ikuspegi zabala zeukan.

Bi entsegu hauen artean, denboraren igarotzeaz bata, existentziaren erabilerarik azkarrenaz bestea, *De vita beata* deritzanak ukitzen du etika filosofikoaren gai nagusia: Nola eskuratu zoriona? Bizitza zoriontsu horrek, *eudaimonia* delakoak, gure eginahalen helmuga, filosofia delarik bertarako bide ziur bakarra, jakintsuaren ekintza zuzentzen eta moldatzen du. Filosofia helenistikoa, hala epikurotarrentzat, nola estoiko zein zinikoentzat, zorionaren aurkikuntza pertsonal horretan ahalegintzea da filosofatzea, eta salbazio bide horretan jakintsuak, *sophós* (*savant* baino areago *sage* denak) menperatzen du zorionaren arte fina⁹.

Bizitzen jakitea, guztiz gain, hau da: denboraren erabilera menperatuz, egiazko askapena, gogoaren naretasuna, kanpoko ondasun guztiek baino gehiago balio duen barne poza lortzea. Eginkizun zaila da esperientziarik ez duenarentzat bizitzen jakitea; samurra, aldiz, unea hedatzeko eta bizi izandakoa sakontzeko teknikaren printzipioez jabetu denarentzat. "Bizitza laburra da, artea luze", dio entseguaren hasieran aipatzen den esaera hipokratikoak. Baina bizitzearen artea egokitzen dakienaren bizitza luzea da. Denboraren gaiak garrantzi handia du estoikoen pentsamoldean, V. Goldschmidtek ikertu duenez¹⁰. Orainaldia puntu iheskor bat besterik ez da, joana den iragana eta existitzen ez den geroaren artean. Tentelak oraina galtzen du etorkizunaren beldur edo gogoetan. Inozoek iragana alferrik galdu dute, egintza hutsaletan hondatuta. Orainaz gozatzen dakienak eta iragan zoriontsuaren oroitzapen pozgarri eta argia gorde duenak soilik aprobetxatzen du denbora. Epikurok azpimarratu zuen, orobat, iragan une zoriontsuen oroitzapenak zoriona luzatzeko indarra duela, bai eta unean uneko oinaze edota atsekabeei aurre egiteko ere¹¹.

Lanpeturik, arduraturik, eguneko zereginetan murgildurik dabiltzanei orainak ihes egiten die eskuetatik, haizea edo isurkin gordeezina bailitzan. Gaztetzat dauzkate euren buruak, bat-batean zaharkiturik aurkitzen diren arte. Bizitza laburra da beraientzat, eta horren kexu dira. Urte ugariak ez dira bizi izanaren froga. Existentzia luzeak ez dakar berekin bizitze sakona. Denbora alferrik galtzea, horra arrisku larria. Bizitzari onurarik ez ateratzea, horra gehiengoaren baldarkeria. Lanpeturik, besterenganaturik, gizaseme askok lardaskatzen du bizi sasoia.

Aztertu beharra daukagu, geu egiten gaituen substantzia preziatu honen erabilera. Ikasi beharra daukagu, nola maneiatu etengabe isurian arrastaka garamatzan denbora. Bi gizon mota bereizten ditu Senekak: *occupati* deritzenak *otiosi*-ei kontrajartzen zaizkie. Azken hauek dira astiaz (*otium*) baliatzen dakitenak, besteak, aldiz, ametsetan bezala dabilta euren zeregin astunetan katramilatuta, euren lanetan, negozioetan, orainaz gozatu gabe, iragan gogoangarririk gabe. Negoziara soilik emana dabilena (etimologikoki *neg-otium* astialdiaren kontrakoa baita) ohiturazko bere bizitza betetzen duten gauzen artean nola zahartzen ari den ez da jabetzen. Bat-batean zahar aurkitzen du bere burua eta orduan hasten da denboraren eskasiaz kexatzen.

Badira, halere, beste *occupati* batzuk, alienatuak hauek ere, baina ez etengabeko lanera makurtuak, alderantziz baizik, euren ohargabezia txepelean kulunkan bizi direnak, oparotasun nabarmen, nagi, apetatsu edo nartzisistan. Luxuan bizi dira, euren irudiaren ardurati, bizitza "orrazia eta ispiluaren artean" banatzen dute. Hauek ere astiari etekinik ateratzen ez dakite, molde txepel eta hutsalez hondatzen dute euren oporraldia. Hauek ere zahartzaroak edota heriotzak harriturik eta arranguraz aurkituko ditu.

Gizon zuhurrak, berriz, badaki nola bere denbora hedatu, nola orainaldi mugatutik askatu, eta irakurketa eta hausnarketa bidez beste garai bateko jakintsuekin nola elkarriketatu, haien gogoeta sakonez nola aprobetxatu. "Sokratesekin eztabaida

dezakegu, Karneadesekin zalantzatu, Epikurorekin bakeaz gozatu, estoikoekin giza natura garaitu eta zinikoekin hura gainditu. Gauzen izaeraz, mendeetan dirauen gizartera, gure iraupen labur eta galkorraren haraindira hurbil bagaitezke, zergatik ez gara gogo betez murgiltzen gizakirik bikainenekin partekatzen ditugun betiereko pentsamendu infinituetan?" (XVI,2).

Senekaren ustetan, izpiritu jakintsu handiekin elkarrizketa hori --eskola batera edo sekta partikularren batetara mugatu gabe-- gure bizitza eta sentipena askatasunez betikotasunerantz luzatzeko modua da. Luzeago eta sakonago bizitzea, horra gizonaren eginbeharra. Eta ideien bidez, hausnarketen bidez, idazle ospetsuekiko elkarrizketen bidez lortzen dugu existentzia gardenagoa, eta existentziaren sentipen biziagoa. Kamusturik eta logaleak hartuta dabilen hainbaten aurrez aurre, bizitzen dakienak jakintsuen laguntza nahi du. "Egunero Zenonekin, Pitagorasekin, Demokritorekin eta moralaren apaiz nagusi diren Platon eta Aristotelesekin adiskidetasunez jardutea" (XIV, 5) askoz ere atseginago da eta probetxugarriago, bezero gisan patroï lanpetuari bisita egitea baino, edota bezeroak lanegun neketsu batez onartzea baino.

"Izpiritu handiek zinezko familiak osatzen dituzte; non onartua izan nahi duzun aukeratu; onarpen horrek izena ez ezik, haien ondasunak ere eskainiko dizkizu... Gizon prestu horiek betikotasunera eramango zaituzte, inork egotziko ez zaituen lekuan heziko zaituzte. Zure egoera hilkorra aldatzeko modu bakarra da, are eta hilezkortasunera eramateko ere." (XV, 3-4). Irakurketaz eta ideia batzuei atxikipenez gizasemeak ihes egin diezaioke izate iragankor eta mugatuaren baldintza murriztari. Horrela bakarrik bihur daiteke nolabait hilezko.

Senekaren ikuspegi honek badu alderdi existentzialistarik. *Edukitzea* arbuia dezagula proposatzen digu, gehiago *izatearen* mesedetan, izpirituaren aldeko arretari esker, pentsalari handiekiko harremanari esker eta geure barneranzko erretiroari esker. Ondoko hauek bilduko dituen bizieraren bila aritu behar gara: "moral-altxatzea, bertuteen zaletasuna eta praktika, grinen ahaztea, bizitzearen artea eta heriotzaren artea, naretasun sakona." (XIX, 2).

Inori edota ezeri lotutako biziera abandonatu behar da (gaur "alienatua" deituko genion existentzia) norbere baitara itzultzeko, norberarekin bizi ahal izateko, jakituriaren maisu handien ahots eta fantasmen laguntzaz. Horra, urtetan aurreratua dabilen bere adiskide Paulino goi magistratuarentzat zorionbide gisan diseinatzen duen programa.

Otium hitz latinoak gure "astialdiak" baino esanahi positiboagoa dauka. Lana esentzial eta nolabait ezinbesteko bihurtu zaigun gizarte honetan, gure pentsaera eta bizimoldearen adierazgarri gertatzen da, astialdia saihegunen izatea eta atsedenaldi edo tarte atsegin gisan estimatua kontsideratzea. Lana baita guretzat funtsezkoa eta ezinbestekoa.

Paradoxa honetaz hausnartzeari bidezko deritzogu. Grekoek *scholé* zeritzoten *otium* delakoari eta zibilizazioaren eta bizitze duinaren oinarritzko osagarritzat zeukaten. Horrela ohartarazten digu Aristotelesekin, astialdi hori, *scholé* zeritzanak (hortik dator latinezko *schola* eta gaztelaniazko "escuela") ematen dio gizonari hausnartzeko, sortzeko, garatzeko beta. Ildo horretatik, Aristoteles zenbait gizonen esklabutza ere justifikatzera iristen da, haien morroi-lana ezinbestekoa baitzen, gizon libreak bizitza duin eta zibilizaturako behar zuten *scholé* guneaz goza zitezen.

Senekak, aldiz, astialdia nola erabili azpimarratzen du. Estoiko zintzoa bera, jakituria eta zinezko zoriona bilatzen ez duen eta sekulan eskuratuko ez duen gehiengoaren pentsaera eta biziera mesprezatzen ditu. Gehiegizko lanak eragindako zakarkeriak ez die astialdi duinaz baliatzen uzten; baina tentelkeriak, txapelkeriak, koketeriak eta nagikeriak ere euren bizitzak hondatzera daramatza aberatsenak, ohartu gabe dirua baino askoz preziatua den denbora doakiela euren ardura eta eginkizun txoroetan.

Hauek ere ez dakite izpirituak gizakiari damaion askatasuna maneiatzen. Artez bizitzen dakienaren bizitza soilik dela luzea, ez dakite. Orainaldiari intentsitatea eta bizitzeari trinkotasuna ematen dion "bizitzearen arte" hori da Montaigne, Senekaren irakurle zintzoak, goraipatzen duena (*Entseguak*, III, 13) maisu zaharren esanak gogoratu.

4. *De vita beata*, Senekaren bizitzako une larrian idatzita dago. Neron enperadorearen aholkularitzako sasoirik ahaltsuena da, hari eskainia idatzi berri du "*De clementia*". (Baina dagoeneko Senekak bere kezkak bide ditu enperadore gazteari buruz; honek jadanik erail baitzuen Britaniko eta laster, errukirik gabe, Agripina bere ama heriotzara eramango zuen.) Bestalde, arerioek kritika latza egiten zioten Senekari, urte gutxitan pilatutako aberastasun eskandalagarriengatik. Publio Suinio izeneko batek, salatari ustel gisa auzitegira deitutako Mesalina desagertuaren esbirroa bera, azaldu zituen jende aurrean zurrumurru horiek: milioika sestertzio eta latifundio handiak pilatua aurpegiratu zion Senekari, familiarik gabeko agureen herentzien atzetik ibiltzea eta Italia eta beste zenbait probintzia lukurreriazko jokabidez zapaltzea.

58. urtea zen. Hirurogeitik gora urte zituen Senekak. Fortuna politikoaren gailurretik dotrina estoikoaren argitan bizimolderik zintzoenaz hausnartzeko gai zen, eta bidenabar, egoki bazeritzon, bere burua zurrutze abagune aproposa eskaintzen zitzaion. Halaxe egin zuen; *De vita beata*, gure pentsalariaren ohizko askatasun eta zalutasunez idatzitako entseguan elkarri nahasiak aurkitzen ditugu biak. Zoriona eskuratzeko jokabide egokiaz kontsiderazioa dator lehenik, berau baita, Estoaren arabera, ezein filosofia autentikoren helburu. Idatziak tonu pertsonalagoak erabiltzen ditu jarraian eta idazlea beraren apologia bilakatzen da. *Pro vita sua* idazten du Senekak, biziki mindua, ez duela zalantzarik bere zentsoreei eraso egiterakoan. Aberats izan eta aldi berean austeritatea predikatzearen defentsa egiten du eta arima nare, lurreko ondasunei atxiki gabe zaintzen duenaren bizitzaren lehentasuna aldarrikatzen du. Izpirituaren askatasunak du garrantzia eta jakintsuaren burujabetzak, baina horrek ez ditu gainontzeko balio txikiagoak ukatzen, hala nola, ondasunak eta boterea, zeinak euren kontrakoak baino onargarriagoak diren azken finean.

Seneka ez da estoikoen arauak eta dotrina itu-itsuan jarraitzen dituen filosofo sistematikoa. Eskolako Logika eta eskolastikoki landutako Fisika arbuiatzen ditu. Ikasle ortodoxo zintzoaren zantzurik ez dute bere arrazamenduek. Baina teoria moralean Protikoren oinarritzko dogmetara egokitzen da. Etika estoikoan hau da funtsezko agindua: "naturarekin ados bizi" (*homologouménos tēi physei zēn*, grekerazko hitzetan). Eztabaidagarri da, ea "natura" arauemailea Natura Unibertsala den ala gizakiaren jatorritzko natura; dena den, bereizketak ez du garrantzirik, bata zein bestea, estoikoentzat biak arrazoiak, *Logos*-ean, oinarritzen direlako. "Naturarekin ados bizi" horra bizitze zoriontsuaren goiburua. Bidea, ordea, ez da lirudikeen bezain xamurra.

Zehaztea komeni zaigu, beraz, zer den guretzat bizitza zoriontsu eta naturala. Ezer baino lehen, jendeak uste eta nahi duenaren guztiz ezberdina. "Kontrako bide ezberdinetara garamatzen jendearen marruei eta zaratei kasu eginez, harat-hunat norabiderik gabe gabiltzan denbora horretan guztian, gau etaegun ongia lantzen jardun arren, gure errakuntzek labur egiten duten bizitza xahutzen dugu." Gizaki gehienak, jendea, *hoi polloí*, lanpeturik, ilusio hutsalen atzetik presaka bizi dira. Platonikoeekin bat egiten dute estoikoek jendetza lelo horrekiko eta euren balio-neurriarekiko destainan. Gehiengo horren desbideratzearen aurrez aurre, jakintsuak bere norabidea tinko markatzen du eta jakituriaz soilik iritsiko da ontzia portu segurura.

Gogora ekartzen dizkigu Senekak estoiko ospetsuek emandako ongi gorenaren zenbait definizio (IV): "Ongi gorena, fortunaren gertakizunak gutxiesten dituen arima da, bertutean poza aurkitzen duena." Edo beste hau: "Ongi gorena, munduaren esperientzia duen arima garaiezina da, ekintzan narea, inguruarekiko onginahiez eta eskerroneko."

Eta aldakin pertsonal hau eransten dio: "Gizon zoriontsuarentzat ez dago onik, ez txarrik, arima zintzo ala gaiztoaz aparte; gizon horrek zintzotasuna praktikatzen du, bertuteaz poztzen da; fortunaren gora beherek ezin dute gizon hori, ez goratu, ez gainbeheratu; berak bere buruari eman diezaiokeena baino ongi handiagorik ez du ezagutzen; zinezko plazer bakartzat dauka plazeraren mesprezua."

Funtsezko ongi bat besterik ez dago: "arima librea, erabidezkoa, beldurrik gabea, iraunkorra, ikaraz eta desiraz haraindi kokatua", bertutea praktikatzen duena eta honen ildo xumetik desbideratzen ez dena. Ongiaren beste ezein definizio da arbuigarri. Plazerean edota plazer guztien multzoaren gain ongia eraiki nahia da lehenik alboratu beharrekoa. Hori dela eta, Senekak hurrengo kritikatzten duena epikureismoaren dotrina da, plazera (*hedoné*) eta zoriona (*eudaimonía*) lotzen dituen dotrina, alegia.

Irakurriak zituen Senekak Epikuroren testu nagusi zenbait; haren esaerak ez ezik, Jardinaren fundatzailearen portaera miresten zuen, arerioen kalumnietatik defendatzen du eta sarritan egiten du haren aipamena (*Epistulae ad Lucilium* obran bereziki). Hala eta guztiz, haren etikaren printzipioa errefusatzen du. Ezin du inondik ere onartu, plazera izan dadin jokaera moralaren irizpide. Ez eta Epikuroren bereizketak onartu ondoren ere, plazer natural eta innaturalen artean, halabeharrezko eta premiagabekoen artean. Bertutea ezin da plazerean errotu, eta plazera ezin da gizakiarentzat duina litzatekeen etikaren oinarri izan¹².

Ez du, halaber, onartzen Antioko Askalonek proposatzen duen formulazio eklektikoa; ongi gorena bertutea eta plazeraren bilduma gisa ikusten zuen honek, bere ustez, edozein zorion honda dezakeen Fortunaren erasoaldiei zirrikitu bat uzten baitie konbinaketa honek. Bertutea da zorionaren oinarri tinko, sendo, argi bakarra; jakintsua definitzen duen arimaren naretasunerako, zorion betiereko eta orekatuaren eredu. "Bertutea zerbait garatua, bikaina, erreala, garaiezina, agortezina da; plazera berriz, gauza makurra, apala, ahula, hauskorra, taberna eta putetxetako gaupasetan ernaldia", idazten du bere pasarterik erretorikoenetariko batetan (VII).

Bertutea praktikatzen duena eta arima jagotean jainkoenaren pareko den bakea lortzen duen jakintsua, eta ez beste inor, dela bizitza zoriontsuaren eredu, argi utzi ondoren, Seneka bere buruaz mintzatzen hasten da. Ezer baino lehen esango du, ez dela bera jakintsu, ez bertutearen eredu. Estoiko latzaren perfekzioa edota pobrezian bere buruaz aski duen zinikoarena ez doazkio, Seneka bezala botere inperialetik hurbil bizi den milioianiztun politikoaren bizitzari. Hala eta guztiz, bere ustez, bide zuzenean aurrera egiten du bertutea landuz, fortunak eskuratu dizkion zenbait onurari uko egin gabe.

Beste filosofo ospetsu batzuei ere leporatu zaie ez zirela, behar bezala, pobrezia aszetikoan bizi, erosotasunean baizik. Sokrates berari, Platoni eta Aristotelesi egotzi zaie akusazio bera. Zeken gertatzen da zentsura hau, zentsuratuak nola duin eta zintzo bizitzen saiatu ziren erreparatu gabe egin denean. Zeren eta Senekak --estoizismoaren mailarik gogorrean ez zen bera lerratzen, Estoaren joerarik munduzaleenean baizik-- adierazten duenez, jakintsuak ez dauka zertan arbuia kanpoko ondasunak. Aski du, haietara ez makurtzea, Fortunaren gorabeherekin gehiegi ez kezkatzea. Aberastasuna, osasuna eta boterea bezala, Estoak zinezko ongitzat hartzen ez dituen (ez eta gaizkitzat) gauzen kategoriakoak dira; ongi gorena den bertuteari ez zaio horien axola. Berdin izanda ere, orde, hobetsi daitezke kontrakoen aurrez aurre. Eta zuzen ala oker erabil ditzakegu; erabilerak soilik kalifikatzen ditu moralki.

Zintzoki irabaziaz eta esku zabalez eta denon onerako erabiliak izatea aski da, objektu horiek --aberastasuna, boterea, osasuna, ospea-- ongarri gerta daitezten. Jakintsuak ez ditu aberastasunak mesprezatuko, ez ondasunak alferrik galduko, bere zorionerako erabiliko baizik. Aberastasunak jakintsuaren zerbitzura daude, tentelaren nagusi dira.

Eta garaia hel dadinean, jakingo du haiei nola uko egin, haietatik nola askatu gogo alaitsuz, zoriona haien menpe ez dagoela jakinez.

Ikuspegi garai honetatik Senekak ez du xehetasun gehiagorik ematen. Gehiegizko aberastasunak eskuratzearen salaketari ez dio zuzenean erantzuten. Ez duela okerrik egin eta bere jokabidea beti ohoragarri izan dela aldarrikatzen du. Baina, dio berak, gaizkiesaleek eta bekaiztiek eraso dituzte kalumniaz bera baino lehen ere beste hainbat filosofo, bertutearen alorrean erreala baino idealago den maila gogorra exigituz.

Zorionari buruzko aldarrikapen honetan bi zioen konbinaketak, gai orokorra batetik eta apologia pertsonala bestetik, osotzen du testu labur hau (osorik eskuratu ez duguna; askoz luzeago ez dirudien arren, etena azken partean gertatzen baita). Bere anaia Novatori eskainia dago (orain Galion deritzo, Junio Galion erretoreak semetzat hartua baitzuen); lehendik ere anaia beroni eskaini zion *De ira*. Ohar pertsonal hauek xarma berezia ematen diete bere hitzei eta hasierako agindu abstraktu, beroekin kontrastatzen dute.

Seneka ez da pentsalari eklektikoa, Estoa Berriaren estoikoa baizik, etikari adi, ez era abstraktuan, bai bere *praxis* mundukoian¹³. Ez da aszeta, ez eta filosofia irakasle; politikan konprometitutako gizona da, boterearekin kolaboratzeak, botere hori Neron denean, dakartzan arriskuak bereganatuz. Kontzientzia onez, antza. Heroi-jarrerarik gabe, eta pentsa daitekeenez, zentsurarik azaldu gabe, gaitzespenak bere burua herio arriskura eramán zezakeenean. Estoiko erromatarra, --bere kasa, eta ez era hain erretorikoan, Marko Aurelio enperadorea izango den bezala-- *virtus* eta antzeko itzal handiko hitzak esanahiez beterik erabiliko dituen. Jakintsuaren eginkizun dela besteen mesedetan jardutea, onartuz, onartzeak asmoen gardentasuna lausotuko badu ere, baina bihozberatasunean eta gizatasunean lehiatuz. *Humanitas*, latinezko hitzak, Zizeronek "kultura" adierazteko erabilia, Senekarengan "filantropia" esan nahi du. Gizon guztiak naturaz berdintzat zituen Senekak eta esklaboak gizalegez tratatzen zituen; haiek edukitzeari uko egin gabe, jakina, ez eta bere ondasunei, berarentzat haiek munta handiko baitziren zorionaren bilaketan.

5. Pasarte batzuk laburbiltzen digute *Aisialdiaz edo jakintsuaren erretiroaz* entseguak. Guztiz da argia Senekaren jarrera. *De vita beata*-n bezala bateratzen ditu obra honetan ere Estoaren teoria eta aipatu ditugun egokiera zehatzetan berak hartutako erabaki pertsonalak.

Estoikoen arabera, jakintsua lagun hurkoen mesedetan saiatu behar da, ahal duen neurrian. Epikureoak, aldiz, ekintza politikoaren aurka agertzen ziren, artegatasun ugariren iturri zelako, eta bizitza erretiratuaren gozamina eta abantailak goraipatzen zituzten. Bizitza publikotik erretiratzean, Senekak argi utzi nahi du, ez dituela horregatik arbuiatu Zenon eta Krisipo. Jakintsuak mesedegarri izan behar duela komunitatearentzat eta lagunartearentzat, uste du berak ere, zilegi izan dakion bitartean. Nolanahi den ere, bere buruari zor dio mesede, eta erretiroan ez du honetarako trabarik izanen.

Gertakizunek jakintsua ekintza publikoari uko egitera bultzatzen dutenean, ekaitzek ontzia portuan ainguratuta egotera behartzen duten bezala (ohiko irudia erabiliz), gustura amore emango du. Bizitza, ekintzak eta kontenplazioak osotzen dutelako --bere erara kontenplazioa ere ekintza delarik, pentsalariaren eta inguruko mesederako-- eta kanpoko ekintzari uko egin diezaiokegu, horrela askatasun gehiagoz eta astialdi luzeagoz gozatzeko, *otium* gehiago izateko ikerkuntzarako eta hausnarketarako; norberaz eta mundu osoaz, gizarteaz eta naturaz hausnartzeko. Eta ezbairik gabe, plazer iturri da hausnarketa hau. Bai Estoak, bai Epikurok nolabait erretiro molde bera gomendatzen digute, jakintsuak bere baitako atsedenez eta kosmosaren behaketaz ezaupideak aberastuz gozatzen duen *otium* probetxugarri eta atsegin hori. (Gorteko

jarduerari utzi ondorengo urteetan idazten ditu Senekak *Questiones naturales* eta *Epistulae ad Lucilium*, astialdi emankorraren fruitu umoak).

Aristotelesek gizona *zôon politikón*, hots, *abere hiritarra* (edota *politikoa*, *polis*-eri lotuta dagoenetik) definitu zuen; estoikoek egokiagotzat zuten beste definizio hau, *zôon koinonikos*, hau da, *abere soziala* edo *komunitarioa*. Euren ustetan, gizona ez dago bere hiriri soilik lotuta, giza elkarte osoaren zerbitzuan baizik, gizon guztiak anaiak direlako eta arrazoidun izateagatik, jainko beraren seme eta unibertso beraren partaide. Kosmopolitismora joera berehala errotu zen Estoaren teorian, ez kutsu ezkorrez (zinismoan bezala), anaitasun unibertsalaren zentzu positiboan baizik. *Humanitas* honek bultzatzen gaitu guztion onerako ekintza elkartuan.

Bizitza kontenplatibora gomendio helenistikoaren alboan, (Aristotelesek goraiapatutako *bíos theoretikós*) Senekarengan eragin handia izan zuen nork bere burua ekintzan lantzeko lehia erromatarrek, eta etengabe izan zuen bizitzan batera ala besterako aukeren arteko gatazka. Baldintzapenek, ordea, erretirora derrigor zaitzakete. Korsikan zortzi urtez erbesteratua egon zenean bezala, orain Neronengandik aldentu behar zuen. Ontzia babesean ainguratu, ur handi nahasietan arriskatu gabe. Dimisioa Senekarentzat liberazioa izan zen. Ikerkuntzari darizkion plazerak zeinen biziki deskribatzen dituen irakurtzea aski da aurrekoa baieztatzeko.

Bizitzearen denbora mugatua da baina geure esku dago bizitza betea eta osotua izan dadin, ala zalapartan eta iskanbilan alferrik galdua. Ez zaio inondik ere jendetzari kasu egin behar; salbamena erretiroan dago, munduko gauza miresgarrien behaketan, jakintsuen ahotsa eta geure kontzientziarena entzutean. "Ai zeinen bizitza narea, munduko burundari ihes dagionarena!" Horazioren aholkuari jarraiki, epikurotarra izan arren ere, zuhurra baita. Eta une historiko horretan aukera egokiagorik aurkitzea ezinezkoa den segurtasunean jokatu. Zenonek eta Krisipok bezalatsu, politikaz teorizatu bai, baina horretan sekulan aritu gabe.

De brevitae vitae, *De vita beata* eta *De otio* obren gogoetan nabarmena da hari tematikoaren jarraia. Denboraz aprobetxatu, portaera naturari egokitu, hautatzen jakin eta barne askatasunez norbera izatera iritsi, horra zorionera daroan bidea. Ahal denean ekin, astialdiaz gozatu eta edonon jakintza bilatu. Fortunaren gorabeheretatik askapena da filosofia. Ondasunak galduagatik, jakintsuak ez dio horratik zoriontsu izateari uko egingo. Botereak gibela ematen badio, ez du horren arrangurarik. Patuaren esanetara dago, marmarrean aritu gabe. "*Fata volentem ducunt, nolentem trahunt*" dio, Senekak behin eta berriro atseginez errepikatu ohi zuen esaera estoikoak. ("Amore ematen duena berekin daroa patuak, kontra jartzen zaiona arrastaka eramaten du").

Desterruan eta erretiroan ere taldearen onerako egin daiteke. Ez, agian, hurbileko gizatalde politikoaren mesedetan, bai ordea unibertsoa besarkatzen duen elkarte zabalagoarenean. Argi bereizi behar dira gure nazioa osotzen duen *Respublica*, eta gizadi osoa biltzen duen *Respublica* unibertsala. Honi zerbitzatu behar diogu lehen-lehenik; biei, ahal izan ezker. Esan dugunez, gorespen alaitsu, zintzo batez amaitzen da *De otio*.

Aise ikus daiteke, Senekak hiru liburuxka hauetan jorratzen dituenak ez direla soilik sasoi hartako arazoak. Ez ditu formula eruditoz, ez eskolako araez ebazten. Guri ere denborak ihes egiten digu, biziera hautatu beharrean gaude, askatasunean nola jokatu, nola bizi erabaki behar dugu. Oraindik ere premiazkoa da zorionaren bilaketa. Eta haien antzeko amarruen aurrez aurre gaude. Jendearen marmarra, handinahia eta dirugosea, grinak eta konpromiso faltsuak eragozpen dira orain ere bizitza aske eta pertsonalera bidean. Seneka arrazoi praktikozko pentsalaria da, zinezko moralista. Ez du baina moral zurrun, transzendentean oinarrituta predikatzen; arazo bizi hauek gure gogoetara ekarri nahi dizkigu. Garrantzi eskasagoa dauka agian irtenbideak hausnarketak baino, gure aldi

honetako arriskurik latzenetakoa baita hausnartu gabe bizitzea, bizitza iheskor hau ezer hautetsi gabe, norberarengana bildu gabe igarotzea. Horregatik gaur ere Senekaren orrialde hauen irakurketa berez da adimen ariketa osasungarria.

6. Hitzaurrea amaitu aurretik azpimarratu nahi dut gure idazlearen aparteko meritua hau: estiloa. Zizeronen esaldi luze eta ongi orekatuzko estiloaren aurkakoa, bai eta estilo klasikoago eta errefinatuagoarena, Horazio poetarena kasu, Senekaren idazkerak irakurleak hunkitu egiten du bere esaldi zorrotzekin, hitz-jokoekin, antitesi eta efektismoekin. Horixe zen, hain zuzen, Kintiliano erretorikoak, prosa klasizistaren aldekoak, aurpegiratzen ziona. Horrexek berak erakarri du hainbat irakurle eta idazle.

A. Trainak azaltzen digu: "Senekaren prosak, Zizeronenak ez bezala, esaldi nabarmenduan hartzen du oinarri, *sententia*, ariman zirrara eragin dezakeen trazu epigramatikoa (*inhaereat istud animo*, Ep.108,26). Senekaren prosa defini daiteke *sententiae*-z osotutako arrosario gisa. Ondoriotzat atera beharko ote dugu, beraz, E. Howalden hitzetan "*Weltanschauung*-aren garaipena estiloaren gain" ospatzen dela Senekaren prosan? Zinez, Senekaren hainbat eta hainbat tentazio artean erretorika ez zen xumeena izan. Baina prosa kolokari, kolpatzaile hau ez du berak egiaren konkista teoretikoan arrazonamendu otzan, hura erabiltzeko eta finkatzeko bide baizik (Ep.40,4). Teles eta Bionen diatriba zinikoen adar zenbaitetan zehar San Pauloren gutunetara arte doan predikuaeren estiloa da."14

Eta jadanik antzinateko moralisten ikerlarietako batek, A. Marthak, aspalditik ohartarazi zigunez15: "Baina Senekarengan azpimarratu ditugunean haren izpirituaren eta aldiaren akatsak, harrokeria estoikoa, aitagandik omen datorkion deklamaziorako zaletasuna, ideiak bezala hizkuntza ere bortxatzen duen haren irudimen ausartegia, pentsamendu mardul bezain labur horiek mirestea besterik ez zaigu geratzen, izpirituari itsasten zaizkion eta moralaren zirikatzaile diren pentsamenduak. Idazleak menperatzen ez bazaituzte frogaz zehatz batez, haren dialektika haurrarena bada batzuetan, izpirituaren adorea gai duen egiaz haraindiko mundura eramaten badu, irakurleak aurkituko ditu nonahi filosofoa goستن duten irtenbide ausartak, kontzientziaren oihuak diren hitz azkar eta sakonak eta moralaren zoko guztiak une batez argitzen dituzten oinaztargiak. Izpirituari hain astindu latzak emango dizkion filosoforik ez dago. Antzinateko moralista guztien artean bera da giza kontzientzia ondoen ezagutu eta aztertu duena, gobernatzen gaituzten arrazoi ezkutatu sotalak ondoen ulertu dituen, eta grinak nahasian, elkar hondatu gabe borrokatzen diren joko hori sakonen arakatu duena."

Errenazimentutik hona miresle ugari eta ospetsuak izan ditu Senekak pentsaeragatik eta estiloagatik. Haren tragediek eragin erabakigarria izan zuten europar teatro tragikoaren sorkuntzan. Senekaren prosak mesede galanta egin zion entsegu eta hausnarketa etikoaren lantzeari, eskolen arteko liskaraldi guztien gainetik. Miresleen artean aipatzekoak dira, besteak beste, Erasmo, Kalbin, Montaigne, Descartes, Rousseau, Schopenhauer, Kierkegaard eta --kritika zorrotz eta guzti-- Nietzsche bera. Espainian ere sakona izan da Senekak utzitako lorratza, Blüher-en liburuak agertzen digunez, XIII. mendetik XVII.era16. Senekaren aztarrenak luzaro eta biziki iraun duela pentsalari espainiarrengan, esan genezake, hasi Quevedogandik eta Unamunoganaino.

Carlos GARCÍA GUAL

Oharrak

1 Ludwig Marcuse, *Philosophie des Glücks*, Munich, 1962, 67-83 orr.

2 Bere oreka zentzu eta azterketa sakonagatik bikaina deritzot W. Sørensenen liburuari, *Seneca. The Humanist at the Court of Nero*, ing. itzulp., Edinburgh 1984.

3 L. A. Senekaren obraren ezaugarri hispanikoez ez naiz arituko. Nahiko idatzi da gai honetaz, cf. *Actas del congreso internacional de filosofía en conmemoración de Séneca en el XIX centenario de su muerte*, Madrid, 1966, 3 tomo.

4 Akaian prokontsul zelarik, 52. urtean, gure filosofoaren anaiak epaitu behar izan zuen Korintoko juduek San Paulo, Erromako hiritarraren aurka egindako salaketa. Arazoa saihestea nahiago izan zuen. Handik bi mendetara, San Paulo eta L. A. Senekaren artean ustezko harreman idatzia azaldu zen, Erdi Aroan oraindik ere autentikotzat hartua. Zenbait kristauk Senekaren obrari eta pertsonari zion estimu bitxiak eraman zituen karta horiek inbentatzera.

5 Galdutako obratxoaren artean izenez aipa ditzakegu gogoeta moralaz ziharduten zenbait testu, hala nola, *Exhortationes*, *De officiis*, *De immatura morte*, *Quomodo amicitia contienda sit*, *De superstitione*, *Moralis philosophiae libri*, *De matrimonio*, eta naturaren ikerketaz beste hauek, *De motu terrarum*, *De situ Indiae*, *De situ et sacris Aegyptiorum*, *De forma mundi*; lan pertsonalak, *De vita patris* eta adiskideei idatzitako gutun sortak.

6 *Dialogi* izenburua guztiz esanguratsua da kasu honetan, testu hauek, elkarrikketa ohizkoa zen tradizio filosofikoan kokatzen dituelako. Senekaren solaskidea formalki gutunaren hartzailea da, zeinari zuzentzen zaion diatriba barik eskutitz gisan, baina funtsean bere gutunaren edozein irakurle ere solaskide da. Idazlea eta irakurlearen arteko harreman zuzen horrek zilegi egiten du nolabaiteko elkarrikketa, bitariko bat bakarrik mintzatu arren.

7 Seneka eta haren obra tradizio estoikoan kokatzeko, ikus Max Pohlenzen ikerketa klasikoa, *Die Stoa. Geschichte einer geistigen Bewegung*, Gotinga, 1959. (Italierara itzulua, *La Stoa*. Florentzia, 1967, 2 tomo. Senekaz bereziki, II, 56-104.) Interesgarria da, halaber, A. Levi, *Historia de la filosofía romana*, Buenos Aires, 1969, 144-187 orr.

8 Drama horien esamahiari buruzko Sørensenen ikerketan (o. c., 240-290 orr.), Senekaren ikuskera tragikoa, analisi horrekin eta adibide mitikoetan erretorika biziz azaldutako grinarik basatienean antzezpenarekin, eta bere filosofiarekin erlazionatzen da. Bestalde, Sørensenen ustez, pieza hauetarik batzuk antzeztuak omen ziratekeen gorteko teatroren batetan, taiu grekozko tragediazale porrokatua izaki Neron.

9 Eskola estoikoaren garapenari eta beraren mui ideologikoari buruz, ikus G. Puente Ojearen liburu zolia: *Ideología e Historia. El fenómeno estóico en la sociedad antigua*, Madrid, 1974. Oro har, oso argia da, halaber, F. H. Sandbachena, *The Stoics*, Londres, 1975. Dokumentuz oso ongi hornitua dago J. C. García Borrónen *Séneca y los estoicos*, Barcelona, 1956.

10 V. Goldschmidt, *Le système stoicien et l'idée du temps*, Paris, 1953.

11 Sarritan egiten ditu Senekak Epikuroren aipu interesgarriak. Denboraz eta oroimenaz Epikurorengan, ikus G. García Gual, *Epicuro*, 1981.

12 Cf. J. M. Rist, *Stoic Philosophy*, Cambridge, 1969, estoizismoaren oinarritzko kontzeptuei buruzko eztabaida sakon eta zehatzerako. Estoa Berriaren garaian Erromako joerei buruz, cf. A. Levi, o. c.

13 Ikus, jadanik aipatu ditugun Pohlenz eta Puente Ojearen liburuak. Bai eta A. A. Longen *La filosofía helenística*, esp. itzulp., Madrid, 1975; eta C. García Gual eta M^a Jesús Imazen *La filosofía helenística, Éticas y sistemas*, Madrid, 1987, Senekaren estoizismoari eskaintzen dizkion orrialdeetan.

14 A. Traina, ed. *Seneca. Letture critiche*, Milan, 1976. Aipatu ditudan lerroak hitzaurrean daude, 13 orr.

15 Constant Martha, *Les moralistes sous l'Empire Romain*, Paris, 1865 (Nire aipamenak 4. argit., 99 orr. 1886).

16 K. A. Blüher, *Séneca en España*, esp. itzulp., Madrid, 1983. Cf., halaber, A. A. Long, o. c., 225-239 orr. hark European izandako eraginaz.

Bibliografia

Edizio nagusiak eta zenbait itzulpen

Azagra, J., *Séneca. Tratados filosóficos, tragedias, epístolas morales*, Madrid, 1977.

Barker, E.P., *Seneca's letters to Lucilius*, Oxford, 1932.

Boella, U., *Lettere a Lucilio*, Turín, 1975 (= 1969). Testu berrikusia eta italierazko itzulpena.

Bofill, J., *Séneca. Cartas Morales a Lucilio*, México, 1980 (= 1951-53).

Cardo, C., *L.A. Sèneca. Lletres a Lucili*, Barcelona, 1928-1931. Lau bolumenetan.

Gummere, R.M., *Seneca. Ad Lucilium Epistulae Morales with an english translation*, Cambridge, 1917.

Hense, O., *L. Annaei Senecae Epistolarum Moralium quae supersunt*, Leipzig, 1914 (= 1898).

Prechac, F-Noblot, H., *Sénèque. Lettres à Lucilius*, París, 1969 (= 1945). Bost bolumenetan.

Reynolds, L.D., *L. Annaei Senecae ad Lucilium Epistulae Morales*, Oxford, 1969 (= 1965). Bi tomotan.

Riber, L. *Séneca. Obras Completas*, Madrid, 1949 (= 1943).

Scarpato, G., *L.A. Seneca, Lettere a Lucilio. Libro Primo*, Brescia, 1975. Testu berrikusia, itzulpena eta iruzkina.

Senekari buruzko zenbait ikerketa

Albertini, E., *La composition dans les ouvrages philosophiques de Sénèque*, París, 1923.

Andre, J.M., "Sénèque et l'épicurisme. Ultime position", *Actes du VIII Congrès G. Budé*, París, 1968, 449-480 orr.

Binder, O., *Die Abfassungszeit von Senecas Briefen*, Tesia. Tübingen, 1905.

Blüher, K.a., *Séneca en España* (Investigaciones sobre la recepción de Séneca en España desde el siglo XIII hasta el siglo XVII), Madrid, 1984.

Coleman, R., "The artful moralist: A study of Seneca's epistolary style", *Class. Quart.* 24 (1974), 276-289.

Deissman, A., *Licht von Osten*, Tübingen, 1923, 193-213 orr.

Elorduy, E., *El Estoicismo*, Madrid, 1972.

Griffin, M.T., *Seneca: A Philosopher in Politics*, Oxford, 1976.

Grimal, P., "Les lettres à Lucilius. Chronologie. Nature", Apéndice I de *Sénèque ou la conscience de l'Empire*, París, 1978, 441-456 orr.

López Kindler, A., "Las Epístolas a Lucilio como obra literaria", *Est. Clás.* 20 (1976), 93-101 orr.

Motto, A.L., *Seneca Sourcebook: Guide to the Thought of...* (alfabetoaren arabera gaika antolatua), Amsterdam 1970. Ikus halaber bere berriemate bibliografikoak in *Classical World* 54 (1960) eta 64 (1971).

Oroz, J., "Dimensión literaria de Séneca", *Actas del Congreso Internacional*, 1, Córdoba, 1965.

Pohlenz M., *Die Stoa. Geschichte einer geistigen Bewegung*, Göttingen, 1964 (= 1948). Bi bol. Bigarrena da bereziki garrantzizkoa.

Prieto, F., *El pensamiento político de Séneca*, Madrid, 1977.

Reynolds, L.D., *The Medieval Tradition of Seneca's Letters*, Oxford, 1965. Oinarritzko obra.

Scarpat, G., "L'Epistolografia", *Introduzione allo studio della cultura classica I*, Milán, 1972, 473-512 orr.

Sørensen, W., *Seneca. The Humanist at the Court of Nero*, Edinburgh, 1984.

Traina, A., Ed., *Seneca. Letture critiche*, Milán, 1976.

Uscatescu, G., *Séneca, nuestro contemporáneo*, Madrid, 1965.

Oharra

"Pentsamenduaren Klasikoak" bilduma honetako itzulpena egiteko erabili den testua Reynolds. L.D. (OCT) *L. Annaei Senecae Dialogorum libri xii*, (1977) ediziotik hartu da eta funtsean Hermes testu bera da, (Leipzig, 1905), beharrezko zenbait aldaketa eginik.

Paulinori

Bizitzaren Laburtasunaz

Hilkorren artean gehiengoa, o Paulino¹, Naturaren okerraz da kexu, hain aldi laburrerako sortarazi gaituelako eta eman zaigun aldigune hau hain arin, hain laster igarotzen baita non, gutxi batzuk salbu, gainontzekoak bizitzeko prestatze garaian, bizitzak berak baztertzen dituen. Eta ustez orokorra den gaitz honengatik, ez da soilik jentilaje zarpaila edota herri xume axolagabea intzirika ibili dena; gizon argitsuen kexuak ere sortarazi ditu sentipen honek. Hortik dator medikuen printzearen oihu esanguratsua: "Bizitza laburra da, artea luze"². Hortik baitere, Aristotelesek³ Naturari, beronekin gatazkan, egotzitako akusazioa, gizon jakintsuari inondik ere ez doakiona, alegia: "adinean animalien mesedetan hain eskuzabal portatu zela, ezen bost-hamar gizalditan luzatzen baitzaie bizitza, eta gizonari, aldiz, hainbat eta hain gauza handitarako sortua izaki, bizitza mugatu egin zaio neurri arras murrizagotan." Ez dugu asti gutxi, berau soberan galdu bai, egiten dugu. Aski luzea eman zaigu bizitza, eginkizunik handienak burutzeko nahiko eta sobera, hura osorik eta ongi maneiatur gero; baina luxuan eta alferkerian lardaskatzen denean, gauza onerako erabiltzen ez denean, saihetsezineko azken orduaren poderioz, zebilenik ere erreparatu ez genuen bizitza joan zaigula sentitzen dugu. Halaxe da: ez dugu bizitza laburra hartzen, geuk egiten dugu labur; ez gara haren eskeko, hondatzaile baizik. Nola aberastasun, oparo eta arranditsuak, ugazaba eskasaren eskutara joan ezkerro, berehala xahutzen diren, baina, eskas izanda ere, administratzaile on bati eman ezkerro, erabiliaz ugaltzen diren, halatsu gure bizitza, ongi maneiitzen duenarentzat nahiko zabala da.

II. Zergatik gara Naturaren kexu? Bihotz onez portatu zen; luzea da bizitza, erabiltzen jakin ezkerro. Baina, ase ezinezko zikoizkeriak menperatzen du bata; alferreko lanetan arreta lehiatsuak bestea; ardoa dario batari, bestea berriz geldokerian ahitzen da; hurrengoa handinahiak, inoren iritzipean beti, nekarazten du; bestea, berriz, berehalako negozio gutziak irabaziaren ametsetan lur eta itsaso orotan zehar daroa; gudaldien ziriak torturatzen du zenbait, eta inori arriskuak antolatzen dihardute eten gabe, edota euren etaz kezkatu; goikoen onginahi ordainik gabekoak borondatezko morrontzan ahitzen duenik ere bada. Inoren fortunaren inbidiak edota norberearen arrenkurak erretzen du askotxo; gehienak harat-hunat dabilta noraezean, helburu zehatzik gabe, arinkeria lauso, aldakor eta nardagarriagatik egitasmo berritan beti; askori ez zaio atsegin euren bizitzari eman diezaioketen ezein norabide eta patuak zimeldurik harrapatzen ditu eta aharrausika, poetarik handienak⁴, orakulu gisan, esandakoaren egiaz zalantzarik gabe: "Laburra da bizi dugun bizitzaren zatia". Gainontzeko guztia denbora baita, ez bizitza. Bizioek erasotzen eta inguratzen dituzte alde guztietatik eta ez diete jaikitze betarik ematen, ez eta begiak egiaren ikustaldira zuzentzeko; irritsaren lupetzetan dauzkate murgildurik eta kateaturik. Ez diete sekulan beren onera itzultzen uzten; eta, menturaz, inoiz barealdiren bat gertatzen bazaie, itsasbarrenean ohi denez, non ekaitzaren ostean uhinarro geratzen den, kolokan ibiltzen dira, euren grinek sekulan atsedetik emango ez dietelarik. Gaitzak jende aurrean nabarmen uzten dituzten haietaz ari naizela uste duzu? Begira, euren zorionaren miresmena eragiten duten haiei: euren ondasunetan itotzen dira. Zenbatentzat diren zama astun aberastasunak! Zenbati elokuentziak, egunero argi agertu beharrak, odola isurarazten dion! Zenbat zurbiltzen den beren etengabeko lizunkeriatan! Zenbati bezeroen tropel trinko nahasiak ez dion atsedetik unerik uzten! Hasi behekoenetik eta gailenduenetara arte, gogora itzazu denak; honako honek babesa eskatzen dizu, beste honek eman egiten du babesa, hura arriskuan dago, bestea alde irten zaio, hark epaia eman, inork ez du bere burua defendatzen, norbera inorengatik suntsitzen da. Buruz jakinak diren izenetaz galde egizu, eta ezagunak seinale hauei esker direla konturatuko zara; honek zerbitzua eskaintzen dio hari; hark besteari; inor ere ez da norberaren jabe. Azkenik, zentzurik gabea da

zenbaitzuen haserrea: euren nagusien destainaz dira kexu, haiengana hurbildu nahi izan eta ez zutelako haien onarpenik lortu! Nor ausartuko da inoren harrokeriaz arrenkuratzen, berarentzat unetxo bat ere ez daukanean? Hala ere, pertsonaia hark, zu nornahi izanda ere, inoiz kopetilun begiratu zizun, belarriak zure hitzetara makurtu zituen, alboan onartu zintuen; zuk, aldiz, zeure buruari begiratzea, zeure barneari entzutea ez duzu ontzat hartu. Ez daukagu, beraz, zertan inori leporatu eginkizun horiek, zeren eta egia baita hori egin zenuenean, ez zela inorekin egon nahi zenuelako, zerorrekin egon ezinagatik baizik.

III. Ezein garaitan nabarmendu den buru argitsu oro honetan bat etorri arren, ez dute inoiz behar bezala mirestuko giza arimaren itsutasun hau. Beren ondasunak inork hartzea ez dute jasaten eta mugarren finkapenaz ezbairik txikiena sortzen denetik, harrika edota armetan hasiko dira; euren bizitza besteek inbadi dezaten toleratzen dute, eta batzuetan beraiek bertara eramaten dituzte inbasore izango direnak. Bere dirua banatu nahi duenik ez duzu aurkituko; nork bere bizitza askoren artean nola banatzen dugun! Ondarea zaintzen xuhurrak dira, eta aldi berean denbora galtzerakoan, zikoizkeria ohorezkotzat duen ondasun bakar honekin guztiz eskuzabal. Beraz, gogoko dut adintsuen taldeko norbaiti agirika egitea: "Giza bizitzaren azkenetara iritsi zarela dakusagu; ehundik gora dituzu urteak bizkarrean; egitzazu zure existentziaren kontuak. Konputa ezazu, denbora horren zenbateko zatia ebatsi dizun hartzekodunak, zenbat laguntsak, zenbat erregek⁵, zenbat bezeroak; zenbat denbora kendu dizuten emaztearekiko hika-mikek, zenbat esklabuen heziketak, zenbat kortesiazko betebeharez hirian zehar egindako ibilaldiek. Guzti hauei erantsi, zuk zeure eskuz eragindako gaixoaldiak, gehi, probetxurik gabe alferrik galdutako denbora eta ikusiko duzu nola zuk kontatu baino urte gutxiago duzun. Gogora ezazu, zenbat aldiz asmoetan aurrera egin zenuen, zenbat egun iragan diren zuk aurrez erabakitako bideetatik, noiz probetxu atera zenion zeure barneari, noiz zaindu zuen zure aurpegiak bere duintasun narea, noiz zure arima trebeak, zenbat ekintza burutu duzun bizitzaren epealdi luze horretan, zenbatek zaputuz egin dizuten, zeu galaraz ohartu gabe, zenbat denbora ebatsi dizun oinaze hutsalak, poztasun tentelak, antsia gutiziatsuak, zainketa atseginkorrak, eta zeinen gutxi utzi zaizun zeuretik; orduan ulertuko duzu zure heriotza garaiz aurrekoa dela." Eta zein da guzti honen zergatia? Betiko bizi beharko bazinete bezala bizi zaretela, ez zaizuela sekulan bururatzen zuen hauskortasunaren ideia, ez duzuela neurtzen zeinen luze iragan den; galdutzat ematen duzue, ordezkoko bete eta joria bazeneukate bezala; eta, menturaz, norbaiti edo zerbaiti eskaintzen diozuen egun huraxe izan daiteke zuentzat azkena. Orogen beldur zarete hilkor gisa; ororen desira, hilezkor baitzinete. Askori entzungo diozu: "Berrogeita hamar urterekin erretiratuko naiz, hirurogei egitean, karguak utziko ditut." Eta bizi horren luzearen zein garantia duzu? Nork baimenduko dizu, zure asmoak gerta daitezen? Ez al duzu lotsarik, bizitzaren hondakinak zeuretzat gordetzeaz eta ezertarako balio ez duen tenorea besterik ez eskaintzeaz zentzutasuna lantzeko? Oi, zeinen garaiz kanpoko den bizitzen hastea, bizitzeari uzteko garaian! Zeinen ergelki ahanzten garen gure hilkortasunaz, erabaki sanoak berrogeita hamar, hirurogei urte ditugunerako luzatzean, bizitzaren hasiera inor gutxi iristen den ordurako uzten dugunean!

IV. Gizonik prestuenak eta gailenduenak ikusiko dituzu ozenki aldarrikatuz gogoko dutela atsedena, gainontzeko ondasun guztien gainetik hura ipintzen dutela. Bitartean, gailur hartatik jeitsi nahian dabilta, segurtasunez egin ahal izatekotan; zeren eta, kanpotiko erasorik gabe edo barne zirraren batek kraskarazten ez badu, fortunak bere atsekabearen zamapean etsi egiten baitu⁶.

Augusto bikainak, zeinari jainkoek beste edozein hilkorri baino mesede ugariago egin baitzioten, etengabe eskatu zuen beretzat atsedena eta errepublikako arduren dispentsa.

Elkarrizketa guztiak ideia finko honetara itzultzen ziren beti: atsedena itxarotera. Esperantza honetan, ilusiozkoa izan arren erakargarria beti, kontsolatzen zen, inoiz berarentzat bizi izateko aukera izanen zuelakoan. Berak Senatura bidalitako gutun batetan, zeinetan agintzen baitzuen bere astialdian ez zuela duintasunik galduko ez eta bere aurreko ospeari kalterik egingo, honako hitz hauek aurkitu nituen: "Baina hauek, prometitzeko baino ederragoak dira egiteko. Halere, astiune eta oporraldi hain desiratu honen irrikak hitzen goxoa aurrez apur bat dastatzera narama, errealitatearen poza urrun baitago oraindik." Hain zeritzon zoriongarri atsedinari, pentsamenduz bereganatzen zuela, egitez ezin bait zezakeen. Oro bere menpe ikusten zuen gizon hark, giza eta nazioen zoria banatzen zuen hark, bere handitasunaren zamatik arinduko zen egunaz pentsatzen zuen ilusioz. Esperientziaz zekien berak, zenbat neke, zenbat izerdi kostatakoak ziren lurralde orotan zehar distiratzten zuten ondasun haiek, zenbat ezkutuko kezka gordetzen zuten euren baitan. Herrikideen aurka lehenik, adiskideen aurka gero, ahaideen aurka azkenik⁷ armak hartzera behartuta, lurrean eta itsasoan ixuria zuen odola.

Mazedoniara, Siziliara, Egiptora, Siriarra, Asiara eta munduko itsasbazter ia guztietara gerrak eramana, odol erromatarrez ase zeuden bere armadak kanpoko gerratarra bideratu zituen. Alpeak baretu eta bakea eta inperioa asaldatzera infiltratu⁸ diren etsaiak menperatzen dituen bitartean, Rin, Eufrates eta Danubioz haraindira euren mugak hedatzen diharduen bitartean, Erroman bertan bere kontra zorrozten ari ziren Murena, Zepion, Lepido, Egnazio eta beste hainbaten sastagailuak. Zelata hauetatik libratu zen bezain pronto, alaba⁹ eta nobleziako gazte zenbaitek, adulterioz edota juramentuz elkarri lotuta, bere adin ahitua izuturik zeukaten; hauen artean Paulo, eta Antoniorekin¹⁰ nahasita bizi zen eta ikara berpizten zion emakumea. Moztuak zituen zauri hauek, soinala eta guzti; berriak hazten ziren; odolez gainezka legokeen gorputza bailitzan hautsi egiten zen beti, handik edo hemendik. Horregatik zuen atsedena hain gogoko; haren esperantzan eta hartaz pentsatzen, arintzen ziren bere lanak. Gizon ororen desirak ase zitzakeen gizonaren desira zen hau.

V. M. Zizeron, Katilinarren eta Klodiotarren artean, Ponpeiotarren eta Krasotarren artean bere burua batetik bestera ikusita, ageriko etsaiak batzuk, zalantzazko adiskideak besteak, errepublika parean koloka dabilela eta berau leize ertzean salbatzen duenean, azken finean berarekin batera amiltzen delarik, ez lasai, ez geldi zorionean, ezta ere eragozpenetan jasanakor, ¿zenbat aldiz higuindu behar izan zuen berea zuen kontsulatu hura, berak, ez arrazoirik gabe, bai neurritz kanpo goraipatutakoa! A zer nolako garrasi negartsuak jaurtitzen dituen Atikori idatzitako karta batean¹¹, artean Ponpeio aita suntsitua zegoelarik, semeak Espainian iskilu zapuztuen sugarrak bizkortzen ziharduela! "Zer dagidan hemen -dio- galdetzen didazu? Denborapasa bizi naiz erdizka libre nire Tuskulon". Ondoren eransten ditu beste zenbait, iragan adina deitoratuz, orainaren arrenkuraz eta geroaren etsipenaz. Erdizka libre agertzen da Zizeron. Baina ez da, alafede, sekulan jakintsu bat deitura hain etsikorrera makurtuko; ez da inoiz erdizka libre izango; beti izango da haren askatasuna trinkoa eta erabatekoa, gainontzekoen gainetik izango da libre, bere buruaren jabe. Fortunaren gainetik dagoenaren gainean zer dagoke?

VI. Livio Druso, sasoiko eta bortitzak, bere lege berriekin Grakotarren matxinada sustatu zuenak, Italia osotik etorritako jendetzaz inguraturik, behin hasi ezker ez burutu eta ez gelditu zitekeen ekintzaren emaitza aurrez jakin ezinean, diotenez, bere bizitza betidanik nahasia madarikatuz esan omen zuen, bera zela mutikotan ere sekulan jai egunik izan ez zuen bakarra. Tutorepean zegoelarik, oraindik pretestaz jantzia¹², epailei errudunak gomendatzera ausartu zen eta foroan bere bitartekotasunaz baliatu zen, halako efikaziaz gainera, ezen frogaturik baitago zenbait epaiketa berak nabarmenki eraginak izan zirela.

Noraino ez ote zen iritxiko handinahi hain goiztarra? Haren garaiaurreko ausardiak gaitz pribatu eta publiko ugari erakar zitzakeela aurrikus zitekeen. Berandu zen orain mutikotan foroan oldarkor eta arriskutsu izan zenarentzat, haurtzarotik oporralkidirik gozatu ez izanaz kexatzeko. Berak bere burua hil ote zuen eztabaidatzen da; izterdondoko zauri sakon batek supituki jota hil baitzen; berak eragindako heriotzea izan ote zen zalantzan jartzen duenik bada; baina ez du inork zalantzan jartzen goiztiarra izan zenik¹³.

Soberan dago hemen beste hainbat eta hainbat gogoraztea, inoren aurrean guztiz zoriontsu ziruditenak eta norkbere buruaren kontra egiazko testigantza utzi zutenak, beren bizitzako egintzak oro madarikatuz; baina kexu hauengatik ez zuten inor aldarazi, ez eta egileak beraiek ere. Zeren eta hitzak irten ondoren, bihotza bere ohitura zaharretara itzultzen baita. Zuen bizitza, alafede, mila urtetik gorakoa izango balitz ere aldigune txit labur batetara bilduko da; zuen bizioek mende guztiak irentsiko baitituzte. Baina beste aldigune hau, Natura arineketan pasa arren, adimenak luzatzen duena, arrapaladan ixuriko zaizue, halabeharrez; ez baituzue zuek atxekitzen, ez lotzen eta orotarik arinena dena ezin duzue geldiarazi eta joaten uzten diozue, alferrikakoa eta berreskuragarria balitz bezala.

VII. Lehenen artean aipatzen ditut, beste ezertara barik ardotara eta plazerretara emanak; ez dago inor hauek bezain dorpeki okupaturik. Gainontzeko biziotsuak, harrokeriaren hantusteak liluritzen baditu ere, duintasun itxura apur batez erratzen dute; aipa iezazkidazu, nahi baduzu, zikoitzak; aipa suminak, gorrotoan eta gerra makurretan dabilzanak, hauek guztiok gaizkia dagite gizatasun handiagoz; baina tripazainkerian edo lizunkeria jausi zirenen laidoa lotsagarria da. Horiek beren denbora nola erabiltzen duten azter ezazu¹⁴: ikus zenbat denbora ematen duten kalkulatzeko, zenbat zelatan, zenbat kezkatan, zenbat, inoren eta euren buruen begirunetan; zenbat denbora kentzen dieten besteen auziek eta berenek; zenbat, eurentzat obligaziozko bilakatu diren tripa-festek; eta ikusiko duzu nola arnas egiteko ere astirik uzten ez dieten, nahiz kalterako nahiz onerako izan.

Azkenik denak datoz bat hau aitortzean, gizon lanpetuak ezin dezakeela ongi bete ezein bizibide, ez elokuentzia, ez arte liberalak, ez baitu izpiritu nekatuak ezertan sakontzen, oro saihestu baizik, horretara beharturik balego bezala. Lanpeturik dagoen gizonak bizitzeari eskaintzen dio betarik gutxien, zailena izaki ere bizitzearen jakituria. Beste artetan maisu direnak aurkitu ohi dira nonahi; haurrak ere izan dira batzuetan hain prestuak, gai zirela irakasteko. Bizitzeari buruz bizitza osoan zehar ikasten da eta, gehiago harrituko zaituena agian, bizitza osoan zehar ikastekoa da, nola hil. Maila goreneko gizon askok, traba guztiak alboratuz eta aberastasunei, karguei, plazerrei uko eginez, hori landu zuten soilik, adin urtetsuenera arte: bizitzaren zientziaz jabetzea; halaz eta guztiz, gehienek bizitza amaitu zuten oraindik ere ikasle zirela aitortuz; are eta gutxiago jakingo dute beste horiek! Sinestadazu, gizon handiari dagokio, giza errakuntza guzien gainetik burua altxatzen duenari alegia, ez uztea hutsunean alferrik galtzen bere tenorearen zatirik txikiena ere; eta horregatik bizi da hain luzaro, bere buruaz arduratu delako luzera osoan. Ez zen, beraz, ezer landugabe eta larratz geratu, edo inoren eskuetan, ez baitzuen deus aurkitu bere denboraren truke emateko, zaindari zuhur izaki. Horregatik izan zuen aski; halere murriz geratu zitzairen halabeharrez beste batzuei, euren bizitzatik jendeak eramane zuelako zati handi bat.

Eta ez pentsa, beraiek noizbehinka jabetzen ez direla euren galeraz. Halere, zorionaren zamapean dauden gehienak entzungo dituzu bezero tropel erdian, auzi-mauzi eta miseria ohoretsuen artean aldarrika: "Bizitzea ez zait zilegi". Eta nolatan izango zaizu bada zilegi? Euren defentsarako deitzen zaituzten guzti horiek, zeuretik ebasten dizute. Akusatu hark, zenbat egun kendu zizkizun? Zenbat, hautagai hark? Zenbat, oinordekoak ehorzten nekatuta zegoen atso zahar hark? Zenbat, heredentzia bila zebilzkionen dirugosea irrikatu nahian, gaixoarena egiten zuen beste hark? Zenbat, adiskide ahaltsu

hark, bere lagunen artean ez baina jarraigokoen zerrendan zaituenak? Zenbatu itzazu, berriro diotsut, eta aztertu zeure bizitzako egunak; zeinen gutxi eta eskasak diren ikusiko duzu, geratu zaizkizunak. Kargu baten ohorea bereganatu ondoren, lasten baten utzi nahiko du urliak eta behin eta berriro esan ohi du: "Noiz amaituko ote da aurtengoa?" Beste hark jokoak antolatzen ditu¹⁵, suertatu zaion txanda biziki estimatzen duelarik, eta dio: "Noiz itzuriko ote natzaie?" Legegizon hura jendetzak bultzaka dakar forora eta marruka ari zaie entzun ezin diotenei ere: "Oporrak noiz helduko dira?" Amilka bizi dira denak, eta geroaren desirak zirikatzen ditu, orainaz nazkaturik. Baina tenore osoa norbere onerako gastatzen duena, egunak banan-banan, bere azkena bailiran antolatzen dituenaz ez da geroaren beldur, ez irrika. Zein plazer berri ekar diezaioke datorren orduak? Oro da ezaguna, oro asetu arte dastatua. Gainontzekoa patu aldakorrek eratuko du berekasa; bizitza segurtatua dago. Zerbait erantsi dakioke: kendu, deus ez: erantsi ere, asebeteta dagoenari mokadu bat gehiago bezala, gustuko ez duelako gogoz kontra hartzen duena. Ez duzu, beraz, pentsatu behar, urlia ile zuriagatik ala zimurrengatik luze bizi izan zela; ez zen luze bizi izan, luze iraun baizik. Luze nabigatu ote da akaso, ekaitz gaiztoak portuaren irteeran harrapatu eta nora gabe harat-hunat erabili duena eta haize haserretuen gurariak zirimola berberaren jirabiran ibili duena? Ez, ez da luze nabigatu, biziki astindu bai, egin du itsasoak.

VIII. Harrituta ikusi ohi ditut batzuk denbora eske, eta eskatzen zaien haiek zeinen erraz ematen duten. Batzuek zein besteez aintzat hartzen dute denbora premiaren zergatia; inork ere ez du aintzat hartzen denbora bera; huskeria bailitzan eskatzen da, huskeria bailitzan ematen. Munduko gauzarik preziatuenarekin jolas egiten da; eta engainatzen gaituena zera da, denbora ukiezina dela, ez duela ikusmena hunkitzen, eta horregatik da gauza guztiz depreziatua, are, hutsaren pareko balioduna. Urteko sariak atseginez hartzen dituzte gizonak eta hauen truke euren lana, zerbitzuak, ardura alokatzen dute. Inork ez du denbora estimatzen; barra-barra xahutzen dute, dohainekoa bailitzan. Baina hauexek berauek errepara itzazu gaixorik, heriotzea inguru-minguru dabilkienean, medikuen belaunetara besarkatzen dira; herio zigorraren beldur direnean, ondasun guztiak bizitza luzatzearen truke emateko prest agertzen dira. Horretarainokoa da hauen sentipenen kontraesana. Eta ahalgarri balitz, iragan urteen zenbatekoa dakigun bezalaxe, geratzen zaizkien kopurua haiei adieraztea, gerokoak hain murriztuak eta agortze zorian ikustean, nolatan izutuko liratekeen, eta zeinen esku zuhurrez kontuak eramango lituzketen! Gauza erraza da, nola ez!, urria izan arren segurua dena banatzen jakitea; arreta handiagoz jagon behar da, noiz agortuko zaizun ez dakizuna.

Ez ezazu, halere, pentsa gizon horiek denboraren balioaz jakitun ez direnik; ohitura baitute euren maite kuttunei esatea, prest daudela beraiegatik euren urteen zati bat emateko. Eman ere ematen dituzte baina axolagabeki; eman barik, euren urteak murriztu egiten dituzte, eta ez inoren onerako. Baina eurek ere ez dakite urritu egin zaizkiela; horregatik zaie jasangarri murriztapen hau, ohargabeko galera hau. Urteak ez ditu inork itzuliko; ez dizkizu inork atzera emango. Adinak hartutako bideari ekingo dio eta ez du itzalbiderik hartuko, ez ibiltzeari utziko; ez du zaratarik egingo, ez dizu bere abiaduraren abisurik emango. Isilik egingo du aurrera; ez dago errege agindurik, ez herri mesederik, haren helmuga urrutiratuko duenik. Lehen egunean lasterketara oldartu zen lehia beragaz egingo du korrika; ez du biderik galduko, ez da atzeratuko. Eta zer gertatuko da? Zu lanpetuta zaudelarik bizia presaka doala; eta halako batean heriotza agertuko zaizula, zeinaren eraginpetik, nahi eta nahi ez, pasa beharko duzun.

IX. Ba al dago ezer inozoagorik, zenbaitzuen joera hau baino, alegia, euren zuhurtasunaz harropuzten diren gizonena baino? Lanpetuegiak daude hobeto bizi ahal izateko; bizitzaren bizkar antolatzen dute bizitza! Asmoak epe luzera hartzen dituzte, luzamendua delarik bizitzaren galerarik latzena; gauzak gerorako uzteak gaurko eguna

ezabatzen du eta geroaren promesetan oraina etsiarazten du. Bizitzaren eragozpenik handiena da biharamunari begira gaurkoa galtzen duen esperantza. Zoriaren eskutan dagoenaz baliatzen zara eta zeure esku daukazuna aske uzten duzu. Nora begira zaude? Noiz arte bizitzea espero duzu? Etorkizun dagoen oro badaezpadako eremuan oinarritzen da; aurrera begira bizi zaitez!. Entzun poetarik handiena aldarrika, jainko ahoz argitua bailitzan, bertso bikain hura abesten duenean:

bizitzako egunik ederrena

hilkor errukarriei lehenik ihes dagiena¹⁶.

"Zergatik atzera egin? -dio berak-. Zergatik zaude geldi? Harrapatzen ez baduzu, ihes egingo dizu." Eta harrapatzen baduzu ere ihes egingo du; beraz, denbora erabilgarriaren iheskortasunarekin arintasun lehian jokatu behar da; eta beti iraungo ez duen urolde lasterretik bezala, presaka edan behar da. Begira nolatan hitz dotorez, amaigabeko zalantzak gaitzesteko, ez dioen poetak adinik onena, egunik onena baizik. Zergatik zuk, hain ziur, denboraren lasterketa horren arinaren erdian lozorroan, agintzen dizkiozu zeure buruari hain ziur hilabeteak eta urteak luze, zeure bizi grinaren neurrira? Egun batez mintzo zaizu poeta, egun iheskor batez. Ba al dago, beraz, zalantzan jartzerik egunik onena ihesi doakiela hilkor dohakabeei, hots, lanpetuei? Haien oraindik ere haur-gogoak zahartzaroak abailtzen ditu, indarge eta ondu gabe iritsi baitziren adin horretara, aurrez ezer prestatu gabe; bat-batean eta itsumustuan jausi ziren, ez baitzuten sentitzen zahartzaroa nola egunetik egunera hurbiltzen zitzairen. Elkarrizketak edo irakurketak edo ardura bizi batek nola bidaiariak engainatzen dituen eta hurbiltzeaz baino lehenago ailegatzeaz ohartzen diren, horrelaxe baitere bizitzaren bidaia geldiezin eta oso bizkor hau, lotan zein itzarririk urrats berdinez ibiltzen duguna, lanpetuek ez dute antzematen ibilaldiaren amaiera arte.

X. Orain arte azaldutakoa sailka eta argudioka banatu nahi izango banu, arrazoibide ugari bururatuko litzaizkidake lanpetuen bizitza guztiz laburra dela frogatzeko. Esan ohi zuen Fabianok¹⁷, eta hura bai zela filosofoa, ez katedra ezartzen dutenarikoa, zahar eta jatorretarikoa baizik: "grinen kontra borrokan egin behar dela kemen ausartaz, ez maltzurkeria sotilez, eta arerioen armada ihesarazi, ez kolpaldi apalekin, eraso bortitzekin baizik; ez direla aski haiekin burutazioak, oinperatu egin behar baitira, ez atximurkatu." Hala eta guztiz, haien errakuntza gaitzesteko irakatsi egin behar zaie, ez soilki beraien erruki izan. Hiru arotan banatzen da bizitza: izan dena, dena eta izango dena. Hiruotatik laburra da bizi duguna, etorkizun dagoena zalantzaszkoa, bizi izan duguna egiazkoa. Azken honen aurka zoriak eskubide galdu du, ezin itzuli baita inoren nahira. Hau dute galdua lanpetuta dabilzanek; ez baitute atzera begiratzeko betarik, eta baleukate ere, samin zaie damu izango dutenaren oroitzapena. Halabeharrez bihurtzen dute gogoa alferrik galdutako denborara eta ez dira hartaz oroitzen ausartzen, zeren eta euren bizioak nabarmen uzten baititu oroitzapenak, bai eta plazerraren lausenguak artean disimulatzen zituen haiengan ere. Ez da inor inoiz gustura bihurtuko iragan denborari begiratzera, ez bada sekulan engaina ez daitekeen norbere zentsurapean dabilena; handinahikerian gauza asko gura izan duena, harrokeriaz mesprezati izan dena, irabazi gabe garaitu duena, traizioa erruz egin duena, zikoizkeriaz ebatsi duena, zarrastelkeriaz xahutu duena bere oroitzapenen beldur izan beharko da halabeharrez. Hauxe da, hain zuzen, gure denboraren zati sakratua eta utzezina, giza gertagarri orotatik salbu dena, zoriaren agintepetik ebatsia, pobreziak, izuak, gaitzak erasoko ez duena; ezingo dizu inork hau lardaskatu, ez erauzi; betirako duzu haren edukitzea eta kezka orotatik garbia. Banan-banan eta unez une dira egunak oraingo; baina iraganeko egun guztiak, zuk agindu ala, itzuliko zaizkizu eta malguki aurkeztuko dira zure azterketara, eta bertan geratuko, zuk nahi haina denboraz; baina honetarako astirik ez dute huskeriatan murgildurik dabilzanek. Arima seguru eta narearen esku dago bizitzaren aldi guztietan zehar

igarotzea; lanpetuen gogoa, uztarripetik askatu ezinik, ezin da malgutu, ezin atzera begiratu. Haren bizitza, beraz, itzaliz doa zulondora; eta nola nahi haina ur isurita ere probetxukorik deus ez den, azpian hura bildu eta gordeko duen ontzia ez badago, halaxe ez du batere axola zenbat denbora ematen zaizun, non gorderik ez badago: arima landuaren zirrikituetatik jarioko zaio. Hain da laburra orain aldia, batzuk haren existentzia ere ukatzera iristen direla; beti baita bidean, beti jarioan eta amilka; iritsi aurretik izateari utzi dio eta ez du geldiuenerik onartzen, unibertsoa eta izarrak beren etengabeko eragin geldiezinean jarrera batean sekulan gelditzen ez diren bezala. Lanpetuek, beraz, unean unekoa baino ez daukate, hain galkorra berau, ezin dutela atxeki, eta gauza askotan arduraturik, ihesi egiten die honexek ere.

XI. Azkenik, jakin nahi duzu zergatik ez diren luzaro bizi? Begira nolatan desio duten luze bizi. Agure zaharkituak urte gutxi batzuren gehigarri eske dabilta; diren baino gazteago agertzen ahalegintzen dira; limurkeria honen gezur xamurrez euren buruak txuritzen dituzte, eta hain gustura liluratzen dira, nola haduei ere aldi berean iruzur egingo bailieten. Baina ajeren batek euren hilkortasunaz ohartarazten badie, beldurrak hiltzen dira, ez bizitzatik irten bailiran, bizitzatik indarrez erauziak izan balira bezala baizik. Bizi ez izanagatik, tentelak izan direla aldarrikatzen dute, eta trantze hartatik irtengo balira, lasai biziko direla; berehala, ordea, ulertuko dute zeinen dohainik arduratu ziren gozatu ez zutenaz eta zeinen alferrik izan ziren euren lanak oro. Eta negozioen iskanbila orotik urrun jardun direnen bizitza nolatan ez da bada luzea izango? Bizi zipitzik ere ez zuten inoren eskutan utzi; hor-hemenka alperrik galdu, deus ere ez; fortunari ezer ere eskaini ez; euren nagikeriaz apurrik ere galdu ez; euren eskuzabalaz alerik ere murriztu ez; alferrekorik ezer ere ez; bizitza osoa, nolabait esateko, irabazpide dute. Horregatik, laburra izan arren, aski baino gehiago da, eta horregatik, azken eguna hurbil dadinean, heriotzerantz urrats irmoz joateko jakintsuak ez du zalantzarik.

XII. Galde egingo didazu, agian, ea nortzuk diren nik lanpetuak deritzedanak? Ez pentsa horrela deitzen diedala, atzetik txakurrak¹⁸ ez badituzte, auzitegitik irten nahi ez dutenei soilik; jarraitzaileen tropelak ohorez edota besteenek irainez josita ikusten dituzunak; gizabidearen betebeharrak etxetik irtenarazten dituztenak, auzoko atarian denak zapuzteko; pretorearen lantzak¹⁹, egunen batean zornetuko zaien lorpen zitalaren esperantzan erakartzen dituenak. Zenbaitzuen aisia bera ere lana da; etxean zein ohean, bakardadearen erdian, denengandik urrun egon arren, euren buruak gogaitzen dituzte; hauenari ez diogu bizitza nagia deituko, zeregin zabarra baizik. Ala, alferra deituko zenioke zuk, zenbaitzuen maniak bitxi egin zituzten ontzi korintiarrek maitekiro eta txeratsu apaintzen eta leuntzen dituenari, eta egunik gehienetan herdoilak jan zituen xaflak txukuntzen diharduenari? Gimnasioko²⁰ mutilak olioiz igurztzen diren gelan (zeren, oi zoritxarra!, Erromatar ez diren bizioez ari baikara) gazte borrokalariei begira geratzen denari? Behor-taldeak adinaren arabera sailkatzen eta banakatzen diharduenari? Azken orduko atletak bazkatzen dituenari? Zer? Alferrak deituko al diezu, bart hazitako ile soila moztu bitartean, bilo bakoitzari aholku emanaz, adats zimeldua behin eta berriz osatuz edota ilaje bakana bekoki gainean berdintzen bizarginarenean ordu luzeak ematen dituztenei? Nola haserretzen diren, bizargina apur bat baldarra denean, edonori ilemozten ari bailitzaion! Nolatan koleratzen diren orrazkeratik ilerren bat jausten bazaie, zerbait lekuz kanpo dagoenean, ile bakoitza ez badago dagokion kiribilduan? Hauetariko nork ez du nahiago matxinada bat herrian, euren ile apainketan nahaspila baino? Nor ez dabil kezkatuago bere buruaren dotoreziaz, bere osasunaz baino? Nork ez du nahiago txukun izan, zintzo baino? Alferrak deitzen diezu zuk orrazia eta ispiluaren artean lanpetuta dabiltzanei? Eta zer derizkiezu doinuak sortzen, entzuten, ikasten etengabe dihardutenei; melodia bigunegiaren inflexioez, Naturak hain ongi eta sinpleki erabiltzen duen giza ahotsa bihurritzen duten doinuak; atzamarren kriskitin hotsez isilean beti bertsoren bat neurtzen

dihardutenei; ahots apalez etengabe, zeregin serioetan nahiz tristeetan kanta-marmarian entzuten zaienei? Hauek ez daukate aisiarik, zeregin hutsala baizik. Hauen tripa-festak ez nituzke nik, alafede, ipiniko neure atsedendien artean, ikusten baitut zeinen arduratsu atontzen duten zilarrerria, zeinen arretatsu estutzen dituzten euren morroi mardulen gerrikoak, zeinen urduri dauden, sukaldariak basurdea nola zerbitzatuko edota zerbitzari bipilduak zeinen azkar ibiliko, euren keinuari erantzun; hegaztiak zati ez handiegitan, moldez ebaki daitezen; morroi dohakabeek arretaz garbi ditzaten mozkorren karkaxak. Dotorezia hauek irabazten diete eskuzabal eta handitasun ospea, eta bizioak gizon hauen bizitzaren trantze guztietara zenbateraino hedatzen diren, ez baitute jaten, ez edaten, handikeriarik gabe. Ezta ere, ez ditut alfertzat hartuko, aulkian edo literan batetik bestera ibiltzen dituzten horiek eta horrela garraiatuak izan daitezen orduan punttu-punttuan heltzen direnak, ez etortzea zilegi ez balitz bezala; ez eta, noiz garbitu, noiz igeri egin, noiz afaldu, beste norbaitek ohartarazten dien horiek; eta euren arima delikatuaren ahuleziara hain bizi dira abandonaturik non berenez apetituriak daukaten jakitera ere ez direla iristen. Inoiz entzuten dut, eztikeriak indargeturik dauden hauetariko batzuetaz -eztikeria deituko badiogu bizitza eta giza-ohiturak aintzat ez hartzeari- bainutik besotan atera eta aulkian jartzerakoan galdera hau egin izana: "Eserita al nago?" Eserita dagoela ez dakien horrek, uste duzu zuk badakiela bizirik dagoenenetz, ikusten duenentz, nagi dagoenenetz? Ez litzaidake erraz izango azaltzea gupida gehiago dudana, haiek benetan ez jakiteaz ala ez jakinarena egiteaz. Gauza asko ahazten zaizkie, egia da, baina beste askotan ahaztuarena egiten dute. Bizio batzuk atsegin zaizkie, bizitza zorionsuaren froga bailiran; gizon bilau eta mesprezugarriarena dirudi zer dagizun jakitea. Joan eta ikus, ea mimo antzezleek²¹ gehiegi exageratzen duten luxukeria irigarri jartzean. Nire ustetan, itxuratu gabe geratzen zaie zenbait; eta hain dabil aurreraturik eta oparo bizio sinestezinen asmakuntza horretan soilik argitsu den gure gizaldia, non gure komikoei ere agirika egin diezaiekegun utzikeriagatik. Biguinkerian hain suntsiturik bizitzea norbait, eserita dagoenentz jakiteko beste bati sinetsi behar! Hau ez da alferra; beste deitura bat ezarri behar zaio; gaixoa da, are hila da; alferra, bere nagiaren jakitun den gizona da. Baina bestek bere gorputzaren jarrera adierazi premian dagoen erdi-gorpu hori, nola daiteke edozein denboraren jabe izan?

XIII. Zeregin luzea litzateke banan-banan jarraitzea, taula, xakean nahiz pilota jokoan, edota azala eguzki izpitan beltzarantze arduraz bizitza eman dutenei. Ez dira nagiak, plazerrak lan ugari ematen dien haiek. Zeren eta inortxok ere ez baitu uste, ez dutela deus egiten, alferreko ikerketa literarioetan dihardutenek, eta horrelako asko dira Erromatarren artean ere. Grekoen mania izan zen, Ulisek zenbat arraunlari izan zituen jakin nahia, *Iliada* ala *Odisea* zein izan zen lehenago idatzia, idazle berarenak ote diren eta antzeko beste hainbat, zeinak zuretzat gordeta ezertan ez baitiote zeure barne konzientziari mesederik egingo, eta kanporatzen badituzu ez zara jakintsuago agertuko, bai gogaikarriago²². Erromatarrek ere kutsatu ditu alferreko jakituriak jazteko zaletasun antzuak²³. Egunotan entzun diot jakitun bati esaka, erromatar jeneral bakoitzak zer burutu zuen besteek baino lehenago: Duilio izan zen itsas guduan lehen garaile; Kurio Dentato, garaipena ospatzerakoan elefanteak eramane zituen lehena. Eta horrelakoek, benetako ohorera eramaten ez bazaituzte ere, gizabide ereduak dira; jakite horrek ez dizu batere probetxurik, baina ezagupen hauen huskeria arinez jostarazten gaitu. Zilegi bekie²⁴ jakinmin hauei ikertzea, ea nor izan zen erromatarrek unti baten sartzea eramane zituen lehena. Klaudio izan zen hau, zeinari *Caudex* horren kariak deitu baitzitzaion, *codex* hitzak antzinako latinez zurezko ohol askoren galga esan nahi baitu; hortik datorkie *codex*²⁵ hitza herriko taulei eta oraindik ere aspalditiko ohituraz, Tiber ibaian zehar hornidurak garraiatzen dituzten untziei "*codicariae*" deitzen zaie. Eta, zinez, ez dago lekuz kanpo jakitea Valerio Korvino izan zela Mesinaz jabetu zen lehena

eta Valeriotarren sendian Mesana deitu zen lehena, atzemandako hiri baten izena bereganatuz, gero herriak eraginda letra alaketaz Mesala bihurtu zena. Zilegi izango al zaio hauetakoren bati, ardura hartzea, ea L. Sila izan ote zen zirkuan lehenbizikoz lehoiak aske aurkeztu zituena, ordurarte lotuta ateratzen baitzituzten, eta haiek akabatzeko Boko erregeak arkulariak bidali zituela? Hori ere zilegi bekio; baina Ponpeio izan zela zirkoan jendaurrean hamazortzi elefanteren borroka eskaini zuen lehena eta haien aurka, guduan bezala lerroturik, gizaseme errugabeen tropela jaurti zuela jakiteak ba al du probetxurik? Erromako lehen hiritarrak, antzinateko hiritar nagusien artean²⁶ bere ontasun gorenekoaren oroigarritarako ikuskizun aproposa bezala zeukan gizasemeak heriotzera eramateko modu berri hau. Oldartzen direla? Ez da aski. Zaurituak direla? Gutxi da hori ere; egundoko piztitzarren zamapean zapalduta hil bitez! Hobe litzateke balentria hauek ahaztea, ez bedi gero gerta, hauek oroitzuz, ahaltsuren batek inbidia sentitzea eta ekintza ankerrok berriztatu nahi izatea²⁷. Oi, gehiegizko zorion-minak nolatan lausotzen dituen gure izpirituak! Naturaz gainekotzat zeukan bere burua, giza multzo doakabea beste zerupean jaiotako piztien aurka jaurtitzean, indar hain ezberdineko animalien artean borrokak antolatzean, Erromatar herriaren begibistan hainbat odol isuraraztean, laster are gehiago isurtzera behartuko zuen herria. Baina berak geroago, zitalkeria Alexandriarrak salduta, bere burua eskaini zuen, azken morroiaren sastakaiak bihotz-erdira zezan; une honetan ulertu zuen, azkenik, zeinen hutsala zen bere izenaren ospea.

Baina, alde batera utzitako puntura itzuli, eta gai berean zenbaitzuren ardura ziztrina frogatzen: lehengo berak kontatzen zuen, nolatan Metelo, Kartagotar zapalduen garaile Sizilian, bere garaipen gudiaren aurrean ehun eta hogeitaz elefante gatibu eraman zituen Erromatar bakarra izan zen; Sila izan zela *pomerium*-a²⁸ hedatu zuen azken Erromatarra, sekulan ez ordea probintziako lurraldeez jabetuz, Italiakoez baizik, antzinatek ohizkoa zenez. Horren berri jakiteak mesede gehiago egingo dizu, Aventino mendia *pomerium*-etik kanpo dagoela jakiteak baino, hark zioenez, arrazoi bi hauetarik batengatik, edo herria bertara erretiratu zelako, edota Remok leku hartan ez zuelako txoriengandik augurio onik hartu, edota kontaezineko beste hainbat, gezurrez josita ez badaude, gezurraren pareko direnak? Zeren eta, uste onez esan dituztela eta frogen aurrean idatzia direla onartuz ere, noren errakuntzak zurituko dituzte? Noren grinak zuzenduko? Nor egingo dute indartsuago, nor zintzoago, nor liberalago? Gure adiskide Fabianok zioen, zalantzak zituela berak batzuetan, hobe ez ote zen ezein ikerlari uko egitea, haietan nahastea baino.

XIV. Orotarik gizon astitsu bakarrak dira jakiturian dihardutenak, hauek dira bizi diren bakarrak; ez baitira soilik euren bizitzaz arduratzen. Eurenari aldi guztiak gehitzen dizkiote; euren aurretik iragan urteak oro berenganatuak dituzte. Guztiz eskergaiztoko ez bagara, onartu behar dugu pentsamendu sakratuen sortzaile argitsuak gure mesedetan jaiok zirela, bizitza antolatu zigutela. Inoren lanari esker, iritsi gara ilunpetik argitara ateratako gauzarik ederrenetara; ez zaigu gizaldi bat ere debekatzen, orotara gaude onartuak eta, gogo onez giza tentelkeriaren esturetatik irten nahi badugu, denbora luzea daukagu gure aisialdirako. Zilegi zaigu Sokratesekin eztabaidatzea, Karneadesekin zalantzatzea²⁹, Epikurorekin atsedean izatea, Estoikoekin giza izakera garaitzea, Zinikoekin berau gainditzea. Naturak aldi ororekin harremanetan jartzen uzten bagaitu, zergatik ez gara denbora murriz eta galgarri honetatik irteten eta gogo osoz murgiltzen betikoak, mugagabeak diren alditan, izpiritu bikainenekin bat egiten gaituzten haietan?

Giza eginbeharrez harat-hunat dabiltzan horiek, beren buruak eta besteak aztoratzen dituzten horiek, biziki zora daitezenean, atari guztiak egunero ibili ditzatenean, ate zabalik bisitatu gabe utzi ezinean, etxe ezberdinetan euren agur interesatuak banatu ondoren, zenbat pertsona ikusteko beta izan ote dute hiri hain jendetsu eta lizunkeria

ezberdinetan kutsatuan? Zenbatengandik logurak, luxuriak edota zakarkeriak aldendu ote ditu! Zenbat ote, luzez itxaronarazi ondoren, itxurazko presaz alde egin dietenak! Zenbatek, bezeroz jositako ataritik itzuri eta pasadizo ezkututik ihes egingo diete, ankerrago ez balitz bezala iruzur egitea inor baztertzea baino! Zenbatek, bezperako krapulagatik erdilo eta goibel, inoren ametsaren zain euren hautsi dutenei, hitzerdika mila aldiz xuxurlatutako izenari³⁰ aharrausi destainatsuz erantzun ote dion!

Egiazko eginkizunetan dihardutela esan dezagun, egunero saiatzen direnak Zenon, Pitagoras, Demokrito eta irakaskuntza jatorren gainontzeko aitzindariak, Aristoteles eta Teofrasto

adiskiderik minenen artean nahi dituztenak. Hauetako inori ez zaio astirik faltako, inork ere ez du beragana datorrena zoriontsuago eta bere buruaren maitaleago ezik bialduko, inork ere ez dio inori alde egiten utziko esku hutsik; gauez nahiz egunez, edozein hilkor hartzeko prest daude.

XV. Hauetarik inork ere ez zaitu hiltzera bultzatuko; nola hil irakatsiko dizute denek; inork ere ez dizkizu urteak murriztuko, bereak erantsiko dizkizu; hauetariko inoren solasaldia ez zaizu arriskutsu izango, inoren adiskidetza heriogarri, inoren onespena garesti. Nahi duzuna lortuko duzu haiengandik; ez da haien errua izango, nahi adina zuk hartu ez baduzu. Ai zer zoriona, zeinen zahartzaro ederra irabazi duen, haien bezerira bildu denak! Izango du norekin deliberatu gai ñimiñoez eta handiez, nori egunero bere buruaz aholku eskatu, nori egia irainik gabe entzun, norengandik zurikeriarik gabe laudorio hartu, izanen du noren ereduko landu bere burua.

Esan ohi dugu, ez zela gure esku egon sortu gintuzten gurasoen aukera, zoriaren eraginez gizakien artean banatuak izaki; gure esku dago baina, gere bizitzari nahi dugun erako jaiotze ematea. Adimenik argitsueneen familiak daude; aukera ezazu zeuk, zeinetan onartua izan nahi duzun; eta onartua izango zara, ez izenean bakarrik, bai eta etxeko ondasunetan ere, ezkutuan eta maltzurki gorde beharko ez diren ondasunetan; aitzitik, zenbat eta gehiago banatu, orduan eta oparoago haziko baitira. Betikotasunera bidea zabalduko dizute eta inork jaitzaraziko ez dizun gailurrera eramango zaituzte. Hilkortasuna luzatzeko bide bakarra da, are eta hilezkortasun bihurtzeko ere. Ohoreak, monumentuak, edozer handinahiak dekretu bidez agindutakotik edota lanetan eraikia dena berehala hondatzen da; ez dago zahartzaro luzeak birrintzen ez duenik, aldatzen ez duenik. Baina jakituriak sagaratutakoa ezin du hondatu; ezein adinek ez du desegingo, ez murriztuko; hurrengoak eta haren ondorengoek areagotu egingo dute haien ohorea, auzoan bizi baita bekaizkeria eta urrutikoak arima garbiagoz miresten baititugu. Jakitunaren bizitza, beraz, arras luzatzen da, ez baitu gainontzekoen esparruak mugatzen. Bera dago soilik gizalegeen mugarrietatik salbu; mendeak oro ditu bere menpe, jainko bailitza. Aldiren bat joana da? Berak oroitzapenaz bereganatzen du. Oraina da? Berak erabiltzen du. Etorkizun da? Aurrez hartzen du. Aldi guztiak batera eskuratzeak egiten dio bizitza luze.

XVI. Guztiz laburra da eta guztiz artega, iragana ahazten dutenen bizitza, orainaz arduratzen ez direnena, geroari beldur diotenena; azkenera iristean, berandu jabetuko dira doakabeok, hain luzaro jardun izanaz deus ere ez egiten. Ez pentsa, haiek noizbehinka heriotzeaz aritzeagatik, luze bizi zirela froga daitekeenik. Zoramenak astintzen ditu grina nahasietan, eta ikara dituzten horiexetarantz bultzatzen; heriotza bera ere desira dute sarri, haren beldur direlako. Ez, halaber, pentsa haien bizi luzearen froga izan daitekeenik, sarritan eguna luze egiten zaiela, otorduaren zain orduak astiro doazela kexu direlako; eta inoiz zereginik gabe geratzen direnean, aisian abandonaturik dirakite, astia nola erabili ez dakitela, ez eta handik nolatan igarotzen utzi. Horregatik zereginen baten bila dabilta eta bitarteko tenorea astuna zaie; gauza bera gertatzen baitzaie, alafede, gladiatoreen borrokaldi eguna iragartzen denean, edota beste edozein ikuskizun edo jolas deialdiren zain daudenean; tarteko egunen gainetik pasa nahi izaten dute. Itxaron duten edozeren atzerapena luze egiten zaie. Baina irrikatzen duten une hura laburra da eta iheskorra, eta are laburrago egiten da euren erruz; batetik bestera baitabiltza, gurari bat berean

finkatu ezinik. Ez dira haien egunak luzeak, gogaikarriak baizik; alderantziz ordea, zeinen labur egiten zaizkien emagalduen besoetan edota ardotan emandako gauak! Hortik dator poeten eromena, giza errakuntzak sustatuz euren fabuletan, zeinetan agertzen baita, Jupiterrek amodiozko plazerretan txoratuta, gaua bikoiztu zuela. Ez al da bada gure bizioak piztea, haien sortzailatzat jainkoak jartzea eta jainkotasunaren lizentzia zuritua aurkeztea gure ahuleziaren eredu gisan? Nolatan ez zaizkie guztiz labur irudituko hain garesti erosten dituzten gauak? Eguna, gauaren esperantzan galtzen dute; gaua, berriz, egunaren beldur.

XVII. Haien plazerrak ere bihurriak dira, ikara ezberdinen poderioz artegatsuak eta atseginik gorenean gogapen antsiatsu honek erasotzen die: "Noiz arte iraungo du honek?" Sentipen honen eraginez, erregeek deitoratu zuten beren ahalmena eta ez zuten euren fortunaren oparotasunaz gozatu, noizbait helduko zitzaien azkenaren ikaraz. Amaierarik gabeko zelaietan zehar bere armada hedatzen zenean, zeinaren zenbatekoa ezin baitzitekeen kopuruz zehaztu, estaltzen zuen esparruz baizik³¹, Persiarren errege txit harroak malkoak isuri zituen, handik ehun urtera gazteria mardul hartatik inortxo ere ez zelako bizirik izango. Baina negar egiten zuenak berak ezarriko zituen gizon haiek aurrez aurre patuarekin, batzuk itsasoan galduz, lehorrean besteak, guduan hainbat, ihesean gainontzekoak, mende batez iraun ezinagatik kezkatzen zuten haietxek une labur baten suntsipenera eramanez. Zergatik ote haien pozak ere ikaraz beteak? Ez direlako oinarri sendotan finkatzen, sortarazi dituen hutsalkeriak berak dar-dar jartzen ditu. Nolakoak ote dira haiek zorigaztokoak aitortzen dituzten aldiak, beste gizakien gainetik harro gailentzen dituztenak hain desagokiak izaki? Ondasunik oparoenak ere arduraz hartzekoak dira, eta fortuna zenbat eta aberatsago, orduan eta konfidantza eskasago eman behar zaio; zoriona mantentzeko zoriona behar dugu eta lortu diren eskarien alde otoitz egin behar da. Halabeharrak ekartzen duena aldagarri da, eta zenbat eta gorago, orduan eta gainbehera gertuago. Galzorian dagoenak ez du inor poztzen; laburra ez ezik, zorigaztokoak izan behar, nekez irabazia are neke handiagoz gorde behar dutenen bizitza. Izardiz lortzen dute nahi dutena, arretaz daukate lortu dutena; sekulan itzuliko ez den tenorea ez da ezertarako kontutan hartzen. Eginkizun berriek ordezkutzen dituzte zaharrak, esperantza batek hurrengoa pizten du, handinahiak handinahia. Ez gabiltza zorigaitzen amaiera bila, zergatia aldatzen da. Ohoreek torturatu gaituzte? Denbora gehiago kentzen digute besteenek. Hautagai gisan jarduteari utzi diogu? Inoren aldeko hautes kanpainari ekin diogu³². Salakuntzaren zama astindu dugu? Epailearenarekin egiten dugu topo. Epaile izateari utzi dio norbaitek? Epaiburu bihurtu da. Inoren ondasunen administraritza irabazpide duela zahartu dela urlia? Bereek daukate orain erabat hartuta. Botak³³ lizentziatu duela Mario? Kontsul lanetan dihardu. Kintio diktaduratik libratzeko irrikitan dago? Goldetik kenduko dute berriz ere. Kartagotarren aurka joango da Eszipion, horrenbesterako gai ez delarik oraindik; Hanibalen garaile, Antiokoren garaile, bere kontsulegoaren ohore, anaiarenaren berme eta bahi, honek traba egin ez balio³⁴, Jupiterren alboan legoke³⁵; hiritarren matxinadak halere, haien zaindariari jazarriko zaizkio, eta gaztetan jainkoen pareko ohoreak mesprezatu zituen amaigabeko desterruaren³⁶ handigurak kitzikatuko du zahartzaroan. Urduritasunerako motiboak ez dira sekulan faltako, zoriontsuak batzutan, zorigaitzokoak bestetan; bizitza lanez-lan arrastaka doakigu. Aisia ez daukagu inoiz eskutan, beti izango da desiragai.

XVIII. Ihes egiozu, beraz, jendailari, ene Paulino laztana, eta zure adinari dagokion baino habaillduago zauden hori, bil zaitez portu babesgarriagora. Gogora ezazu, zenbat eraso jasan duzun, zenbat ekaitz pribaturi aurre egin diozun, zenbat ekaitz publiko zeureganatu duzun; nahiko bertute erakutsi duzu dagoeneko frogabide zail eta kezkatutan; aisian zer egin dezakeen bertute horrek, entseia zaitez. Bizitzaren zatirik handiena, onena ere zalantzarik gabe, errepublikari eskaini diozu; zeuretzat ere har

ezazu zeure denboratik aldartetxo bat. Ez zaitut atsedean alfer eta geldora gonbidatzen, ez eta zure izakera bizia ametsetan eta jendearen gogoko plazerretan murgiltzera ere. Hori ez da atsedean; orain arte gogoz burutu dituzunak baino zeregin handiagoak aurkituko dituzu, eta indarberrituta, segurtasunean saiatuko zara hauetan. Mundu osoaren kontuak kudeatzen dituzu, inorenak balira bezain interesik gabe, zeureak balira bezain arduratsu, herriarenak balira bezain zintzo. Gorrotoa nekez saihesten den lanbidean maitasuna irabazi duzu; hala eta guztiz, sinestadazu, hobe da nork bere bizitzaren kontuak eramatea, herri hornidurarenak baino. Gauzarik handienetarako gai den gogo-indar hori, eginkizun ohoretsu, bai, baina bizitza dohatsurako eskas balio duen horretatik atera, eta pentsa ezazu ez zinela zu haurtzarotik ikasketa liberaletan jardun, noizbait gero milaka anega gariz arduratzeko; handiagotara, garaiagotara deitua zinen. Eginkizun horietarako, langile zehatz eta saiatuen eskasiarik ez da izango; zamak garraiatzeko, egokiagoak dira mando geldoak, zaldi nobleak baino; nork moteldu du inoiz hauen ibili liraina zama larripean? Hausnar ezazu, baitere, zenbaterainoko arreta zaizun erantzukizun hain handiri aurre egitea; giza urdailarekin tratuan ari zara. Gose den herriak ez du arrazoirik toleratzen, zuzentasunak ez du sosegatzen, ez da erregura makurtzen. Duela gutxi, K. Zesar hil zen egun haietan, zeina, infernua sentipenik balego, biziki penatu behar baitzen Erromako herriak zutik zirauela³⁷ jakiteagatik zazpi-zortziren bat egunetarako janariarekin, bera untziz zubiak eraikitzen³⁸ eta inperioko ahalmenekin jolasean ari zen bitartean, azken gaitzak ere eraso baitzien setiatuei, hots, janari eskasiak; hondamena ia-ia, gosetea eta honen ondorio direnak gainditu zituen sasi-errege³⁹ arrotz, ero, ergel haren antzera jokatu nahi izanaren ordaina. Zer nolako adorea zeukaten herriko bihitegien arduradunek, harriei, burdinari, suari,

Kaligulari aurre egiteko? Disimulurik handienaz estaltzen zuten erraiak jaten ziharduen min larria, eta zinetan arrazoiz. Zenbait gaitz, gaixoaren ezjakinean sendatzekoak baitira; askorentzat izan da heriogarri euren gaixotasunaren berri jakitea.

XIX. Zeregin lasaiago, seguruago, garaiago hauetara bil zaitez! Antzekoak direla uste duzu zuk, garraiolari iruzurti eta axolagabeen eskutatik alea bihitegira osorik hel dadin, hezetasunak lorrindu edota egosi ez dezan, pisuari eta neurriari egoki dakion ardura hartzea eta gai sakratu, goren hauetara hurbiltzea, jakin nahian zernolakoa den jainkoaren izaera, zein haren atsegina, zein haren baldintza, zein haren tasuna, zein haren forma; zein izango den zure animaren patua; Naturak non elkartzen gaituen gorputzetatik liberatu ondoren; zerk mantentzen duen mundu honetako gairik aztunenak erdigunean, arinak goian eskegiz, sua ororen gainetik jasoaz, izarren jirabira eraginez; eta egundoko mirariz jositako gainontzekoak? Nahi duzu, lurra utzi eta gogoz horietara itzuli? Orain, odol berotan, sasoian gaudelarik, hobeagorantz jo behar dugu. Bizi modu horretan arte noble ugari kausituko duzu, bertuteen zaletasuna eta praktika, nahikerien ahazmena, bizitzearen eta heriotzearen jakituria, gauzen atsedena sakona.

Lanpetu ororen egoera zinetan da negargarria, baina beren zereginetan ihardun ezin dutenena guztiz negargarria; inoren loguraz lo egiten dute, inoren pausura dabiltza, eta orotarik librean diren maitasuna eta gorrotoa ere kanpotik agintzen zaizkie. Hauek jakin nahi badute zeinen laburra den euren bizitza, begira bezate haren zenbateko zatiaren jabe diren.

XX. Beraz, sarri pretestaz jantzita, foroan izen ospetsuz ikusten dituzunean, ez zaitez haien bekaitz izan; bizitzaren kaltetan lortzen dira izen hauek. Urteari euren deitura ezartzearen⁴⁰, bizitzako urte guztiak alferrik galduko dizkizute. Batzuk, handinahiaren gailurrera iritsi aurretik, lehen borrokalditan bizitzak alboratu ditu; beste batzuk, mila ezduintasunen poderioz duintasun gorenera iristean konturatu dira, koitaduok, hilitartza lantzen jardun direla; batzuei, esperantza berriei loratutako sasoi gaztea bailitzan bizi izandako zahartzaroak alferreko ahalegin neketsu artean porrot egin die azkenean. Lotsagarri geratu zen, epaiketari auzilari arrotzen alde entzulego ezjakinaren txaloen bila ziharduela, izpirituak nabarmen utzi zuen gizon urtetsu hura; baldar, berriz, beste hura, bizitzeaz nekatuago lan egiteaz baino, bere zereginen artean zendu dena; dohakabea, kontu eskean hil eta luzaro horren esperoan egon den oinordekoaren barreak eragin dituen. Ezin dut aipatu gabe utzi bururatu zaidan adibide hau. Turanio zaharrak, lagile porrokatua izanik, larogeita hamar urte bete ondoren, K. Zesarrengandik prokuradore lanetik erretiratzeko agindua hartu zuenean, ohean etzan zezatela agindu zuen eta, hildakoari bezala, negar egin ziezaiola familiak inguruan. Etxe osoak deitoratu zuen nagusi zaharraren erretiroa eta erostak ez ziren isildu lana berriro eskuratu zuen arte. Hain atsegina ote da lanpeturik hiltzea? Halaxe dela uste dute gehienek; lanerako grinak luzeago irauten die ahalmenak baino; soinen ergelkeriaren aurka borrokatzen dira; beraiek alboratzen dituelako deritzote larri zahartzaroari, ez beste ezergatik. Legeak berrogeita hamar urterekin soldadutzatik libratzen zaitu, hirurogei dituen senadoreari ez zaio deitzen; nekezago lortzen du gizonak atsedena norberagandik, lege aldetik baino. Bitartean, eramanez eta eramanez izanik, batak besteari atsedena apurtuz, zorigaiztoko eginez elkar, bizitzeak ez du fruiturik, ez atseginik, ez animaren inongo probetxurik. Inork ere ez du heriotza ikusmiran, esperantzak gerorantza luzatu egiten ditugu; batzuek bizitzaz haraindikoak ere konpontzen dituzte, hilobi haundien eraikuntzak, herri monumentuen opariak, hiletasuen inguruko ikuskizunak eta hileta arranditsuak. Baina, zin-zinez, hauen hiletak, labur bizi izan bailiran, zuzi eta kandelen argitara ospatzekoak dira⁴¹.

Galioni

Bizitza Zoriontsuaz

I. Denek nahi dute, Galion anaia, zorionean bizi, baina bizitza zerk egiten duen zoriontsu zehazterakoan, lausotu egiten zaizkie begiak; ez da, beraz, erraza bizitza zoriontsua eskuratzea, zeren eta, hartara bidea galduz gero, zenbat eta lehiatsukiago harantz jo, hainbat eta handik urrutiago aurkituko baita norbera; eta kontrakoa bada hartu den bidea, abiadurak berak egingo du bidetartea gero eta zabalago.

Hori dela eta, lehenik zehaztu behar da zein den gure desira; gero aztertu, nondik iritsi gaitezkeen azkarren helmuga horretara; bidean garelarik, ea berau zuzena den, zenbat aurreratzen dugun egunean eta zeinen gertuago gauden barne desirak bultzatzen gaituen helmugatik. Eta noragabean batera eta bestera gabiltzala, gidariari jarraitu gabe, harat-hunat deitzen gaituzten iskanbila eta garrasi ezberdinei kasu eginez, ahitu egingo zaigu ingurukeriatan gure bizitza, laburra baita bera gau eta egun etengabe animaren onerako lanean dihardugunontzat ere. Erabaki dezagun, bada, norantza joan eta nondik, baina ez, gabiltzan bideak aurrez arakatu dituen gidari baten aholkurik gabe, ibilaldi hau ez da-ta gainontzeko bidaien gisakoa. Haietan bidea seinaleztatua badago eta bertokoei galdetuz errakuntzak saihesten dituzu; hemen, berriz, gehien ibilia eta ezagunena duzu gehien engainatuko zaituena. Argi gera bedi ezer baino lehen, ez diogula abereen gisan aurrekoen bideari jarraitu behar, hauek ez baitoaz joan behar den lekura, jendea doanera baizik. Ez gaitu ezerk gaitz handiagotan sartuko, nola jendearen esamesei egokitu nahiak, onena dela uste baitugu gehienek onartzen dutena, jardunbiderik ibiliena; eta, sarri gertatzen dena, ez gara arrazoiaren arabera bizi, imitatu behararen moldera baizik. Hortik dator elkarrengana amiltzen den jendearen horrenbesteko pilatzea. Giza istripu larrian gertatzen dena, -jendea bultzaka, inor ez baita erortzen besteren erorketa eragin gabe, eta lehenbizikoak dira hurrengoek heriotz bide-, haxe berau ikus dezakezu bizitzan ere gertatzen dela nonahi. Ez da inor berarentzat soilik galtzen, besteen galbide eta galtzaile gara; aurrekoei egokitzea kalte da, eta erosoago zaigunez inori sinestea norkbere erabakiak hartzea baino, ez daukagu inoiz bizitzaren irizpiderik, sinetsi egiten dugu beti eta eskuz esku gudanaino heldu den erruak inguratzen gaitu eta suntsitzen. Besteen exenpluek garamatzate galbidera; jendemultzoagandik aldenduz osatuko gara. Baina orain arrazoiaren kontra altxatzen da herria, bere gaitzaren defentsan. Hauteskundeetan gertatzen den gauza bera gertatzen da hemen ere; han pretore hautatuengatik harritzen dira beraien hautesleak, haien babes aldakorrek mudatu bezain pronto. Onetsi dugun huraxe bera gaitzesten dugu; horra, gehiengoz ebatzitako auzi ororen amaiera.

II. Bizitza zoriontsuaz ari garelarik, ez didazu erantzun behar bozketa giroan ohi den moldez: "Alderdi honek gehiengo duela dirudi". Horrexegatik baita, hain zuzen, okerreana. Gehiengoak onena aukera dezan bezain ongi ez doaz giza gaiak; jendetza da okerrearen frogak. Azter dezagun, beraz, zer den egiteko onena, ez ohizkoena; zerk egiten gaituen betiko zorionaren jabe, eta ez egiaren adierazlerik dorpeena den jendailak zer onesten duen. Jendaila deitzen diet koroatuei nahiz klamidez jantzitakoei⁴²; ez baitut gorputzak estaltzen dituen jantzien kolorea aintzakotzat hartzen. Gizakiari buruzko iritzia ez dut begiz egiten; badut argi hoberik eta zehatzagorik, egiazkoa faltsukeriatik bereizteko. Animaren ona animak berak aurki dezala. Inoiz arnasa hartzeko eta bere baitan biltzeko astirik hartuko balu, bere buruaz biziki oinazetuta egia aitortuko du eta esango du: "Orain arte egin dudana guztia nahiago nuke egin gabe balego; esan dudana gogoratzean mutuen inbidia sentitzen dut; desira izan dudana guztia etsaien madarikaziotzat daukat; ikara sortu didana, ene jainkoak, zeinen arinagoa izan den desiratua baino! Askorekin areriotu nintzen eta gorrototik onginahira itzuli ere, onginahirik baledi gaiztoen artean; eta ez naiz oraindik neure buruaren adiskide. Eginahalak egin ditut jendearengandik aldendu eta dohairen baten bidez ospea lortzearren. Eta zer besterik lortu dut, neure burua geziei eskaintzea eta etsaigoari non

hozka egin erakustea baino? Ikusten dituzu mintzo ederra goraiatzuten dizutenak, aberastasunen atzetik doazkizunak, adeitasuna lausengatzen dizutenak, ahalmena goratzen dizutenak? Horiek denak, edo etsaiak dituzu edo, gauza bera dena, izan ditzakezu. Zenbat miresle dituzun, hainbat izango dira zure bekaitz. Zergatik ez dut hobesten senti dezakedan ongia, erakus dezakedanaren gainetik? Jendea aho zabalik uzten duten gauza ikusgarri horiek, elkarri txunditurik erakusten dizkiogunak, kanpotik distiratsu dira, nardagarriak barnetik".

III. Bila dezagun berez ona dena, ez itxurazkoa; sendoa, finkoa, muinean ederragoa dena azalean baino; hau ikertzen saia gaitezen. Ez dago urruti; eskua nora luzatu jakizu soilik eta aurkituko duzu. Orain, ilunpetan bailitzan, itsuka gabiltza hurbil, desira ditugun haiekin tupust eginez.

Baina inguruka eramane ez zaitzadan, inoren iritziak albora utziko ditut luzeegi bailitzateke haiek izendatzea eta ezeztatzea. Entzun gurea. Gurea aipatzean, ez naiz ni maisu Estoikoetariko bati lotzen; nik ere neure irizpidea mamitzeko eskubide badut. Hari jarraituko natzaio, beste hari auzia bereizteko esango diot⁴³, eta agian, guztien ondoren deitua izan nadinean, nire aurrekoek erabakitako ezer ez dut gaitzetsiko, eta esango dut: "Hau ere erantsiko dizuet." Bitartean, nire adostasuna agertzen diot gauzen naturari, horretan bat datozen Estoikoekin; hortik ez desbideratzea eta natura horren arabera eta eredura nork bere burua lantzea, horra zertan datzan jakituria.

Zoriontsu da, beraz, naturarekin bat datorren bizitza, eta hau erdiesteko, lehenik gogoak sendo behar du eta bere osasun betearen jabe etengabe; ondoren adoretu eta suhar, eroapen galant eta handiko, behar denerako prest, bere gorputzaz eta honi dagokion orotaz antsiarik gabe arduratua, bizitzaren hainbat gauzaz arretatsu kutunkeriari gabe, fortunaren emaitzez gozatzeko, ez haien zerbitzatzeko, prest. Ulertzen duzu, gehiagorik esan gabe ere, kitzikatzen eta ikaratzen gaituztenak egotzi ondoren neurrigabeko lasaitasuna eta askatasuna datorrigula; atseginak eta ikarak iraitziz gero, hauskor, murriz eta beren desohoreengatik hondagarri diren horien orde, egundoko atsedanak betetzen gaitu etengabe eta tinko, bai eta bakeak, izpirituaren harmoniak eta handitasun onberak; ahuleziak sortarazten baitu basakeria oro.

IV. Beste era batera ere defini daiteke gure ongia, hots, iritzi bera hitz ezberdinez adierazi. Nola armada bat bera zelaian zabal hedatzen den, gero mehargunean ertsiki biltzeko, edo bihurtuneetan erdigunea kaketzen duen, edota frontea zuzen luzatzen; nolana dagoelarik ere, indar berdina dauka eta helburu berdina defenditzeko gogo: halaxe ontasun gorenaren definizioa zabaldu daiteke eta garatu edota murriztu eta laburbildu. Gauza bera litzateke honoko hau esango banu: "Ontasun gorena da ustegabekoa mesprezatzen duen izpiritu, bertutean atsegin duena" edota beste hau: "Izpirituaren garaitezinezko indarra, gauzen jakitun dena, ekintzan nare, gizatasunez eta adiskideenganako adeitasunez hornitua." Zilegi bekit baita ere zoriontsu deitzea gizon hari, zeinarentzat ez dagoen onik ez txarrik, gogo ona eta txarra baizik; zintzotasunaren langile, birtutearekin pozik, fortunaren gora-beherek harropuzten edo hondatzen ez dutenari; nork berari eskain diezaiokeen ona baino hobeagorik ezagutzen ez duenari, plazerraren gaitzespena duenari plazerrik jatorrentzat. Zilegi bekit baitere, luzatu nahi izango bazenu, gai berau adierazpide ezberdinez aurkeztea esanahiaren osotasunari ukitu gabe; zerk eragotziko digu hau esatera, alegia, zoriontsu dela izpiritu askea, bipila, bulartsua eta irmoa, beldurretik eta gutiziatik aske dagoena, zintzotasuna ondasun bakartzat, lotsagarrikeria gaitz bakartzat duena, gainontzekoen multzo alferrekoak bere bizitza zoriontsuari ezer kendu edo erantsiko ez diona, ongi gorena gehitu edo urritu gabe bere joan-etorriarekin?

Nahi ala nahi ez, hain sendo oinarritutako gizonari etengabeko pozak eta goitik datorkion gozamen sakonak lagundu beharko dio, bere gauzetan aurkitzen baitu

bozkario eta ez du ohizkoak baino areagokoen irrikarik. Eta zergatik ez ditu hauek parekatuko bere gorpuztxoaren mugimendu txiker, txepel, aldakorren aurrez-aurre? Plazerraren menpe dagoen egunean, oinazearen menpe ere izango da; begira bestalde, zeinen morrontza gaitz eta galgarripean zerbitzatuko duen, txandaka ugazabarik kontrolaezinenak diren plazerren nahiz oinazeen agindutara bizi denak. Askatasunerantz jo behar dugu. Eta fortunari destainak, ez beste ezerk, egingo zaitu libre. Orduan gauzatuko da ondasun estimagaitz hura, hots, leku seguruan kokatutako gogoaren atsedena eta gorentasuna, bai eta mota guztietako errakuntzak alboratuz egiaren ezagutzak dakarren poz haundi eta egonkorra, izpirituaren onginahia eta bozkarioa, zeinak hauetan atsegin hartuko baitu, ez onak direlako, bere ondasunetik sortuak direlako baizik.

V. Gogo zabalez ekindako ihardunari jarraikiz, zoriontsu dei diezaiokegu, arrazoiaren poderioz ezeren irrika, ezeren beldur ez denari; zeren eta, haitzek ez dutelako ikararik, ez tristeziarik, are gutxiago piztiek, ez du inork esango haiek zoriontsu direnik, ez baitute zorionaren kontzientziarik. Koka itzazu maila berean hainbat gizaki, zeinak berezko ergelkeriak eta norbere buruaren ezjakinak arimarik gabekoen eta piztien multzora bildu baititu. Ez dago tarterik hauen eta haien artean, ez baitute gauzek adimenik, piztiek, berriz, beuren kalterako eta okerrerako arrazoi maltzurra; ezin zaio zoriontsu deitu egiaren esparrutik jaurtikia izan den inori. Bizitza zoriontsua irizpide zuzen, seguruan dago irmoki oinarrituta eta aldaezina da. Garbia baita gogoia orduan, eta gaitz guztietatik askea, zaurietatik ez ezik, atzamarketatik ere ihes egiten dakiena, finkatu den lekuan beti geratuko dena eta bere egoitza fortuna asalatuaren erasoaldietatik defendituko duena. Eta plazerrari dagokionez, nonahitik isurtzen zaigun arren eta zirrikitu orotatik jarioka dabilkigun arren, izpiritua bere zurikeriez beratzen badigu ere, lausengaldiak bata bestearengandik ernaraziz, gu osorik eta atalka xarmarazteko, hilkorretatik nork, giza aztarnarik geratzen bazaio, nahi izan lezake gauze eta egunez kitzika diezaiotela eta izpirituaren axolarik gabe gorputzaz soilik arduratu?

VI. "Baina izpirituak ere -galdegingo zaizu- bere gozamenak ote ditu?" Zilegi bekio edukitzea eta lizunkeriaren eta gozamenen auzitara jezartzea; ase dadila zentzumenak erakarri ohi dituzten guztietaz; iraganari begira diezaiola eta, atsegin izandakoak gogoan harturik, pozez jauz dadila pasatakoen gomutaz eta datozenak gozatzeko presta dadila eta asmoak antolatu; gorputza orainaldi oparoan datzan bitartean, igor ditzala aurrez pentsamentuak gerorantza: dohakabeago iritziko diot honi, gaitza ondasuntzat hartzea erokeria baita. Ezin daiteke inor osasunik gabe zoriontsu izan, ez eta osasuntsu, asebeteko ondasunak etorkizunean ikusten baditu. Beraz, iritzi zuzenekoa da zoriontsu; orainaldiarekin, nolanahikoa izanda ere, gustura dagoena da zoriontsu, bere gauzen adiskide dena; zoriontsua da bere gauzen antolaketa osoa adimenpean uzten duena.

VII. Ondasun gorena sabelean dagoela esan zutenek, eurek ere ikusten dute zeinen leku traketsen kokatu zuten hura. Hargatik ezinezkotzat jotzen dute plazerra onbidetik bereiztea eta gehitzen dute, ezin dela inor zintzoki bizi, gustura ez badago; ez eta gustura bizi, zintzoki ez bada. Gauza hain ezberdinak uztarpe berean nola batu daitezkeen ez dut ikusten. Zein da, arren, onbidea eta gozamena bereiztezinak izatearen arrazoa? Agian, ondasun ororen iturburua bertutea delako, eta haren sustraletatik ote datoz, bada, maite eta desira dituzuenak? Eta hauek bereiztezinak balira, ez al genuen somatuko zenbait gauza gustagarri ohorerik gabea dela, zenbait, aldiz, txit ohoretsu baina latz, minez soilik burutzeak. Erantsi honi, plazerra bizitzarik makurrenean ere badagoela, onbideak, ordea, ez duela bizimodu txarrik onartzen; eta batzuk zorigaiztokoak dira ez plazerrik gabe, are eta plazer beragatik; ez litzateke hau gertatuko, onbidea eta plazerra nahasian balebiltza, hau gabe bertutea sarri baitago, berorren beharrik sekulan ez duen bezala. Zergatik elkar-batzen dituzue ezberdinak

direnak, are aurkakoak? Gauza goratua da bertutea, ohoretsua, erregeen heinekoa, garaitezina, betikoa; plazerra, berriz, arbuia garri, menpeko, makal, ustel; tabernatan eta putetxetan aurkitzen du aterpe. Bertutea tenpluan, foroan, senatuan aurkituko duzu, murrailen aurrezurre zutik, hautsez estalita, eguzkitan kiskalita aurpegia, eskuak latz; zelatan aurkituko duzu sarri plazerra, ilunbe bila, bainugela publikoetan, saunetan, poliziarik ez dabilen kantoietan⁴⁴, bigunbera, motelduta, ardoz eta ukenduz beratuta, zurbil edo koloreztatuta eta drogatan baltsamatuta. Ondasun gorena hilezkorra da, ezin utzi dio izateari, ez da sekulan asetzen ez du inoiz damurik; gogo zuzena ez da inoiz desbideratzen, ez dio gorroto bere buruari, ez du bizitzan ezer aldatzen, hobe zina baita. Plazerra, oster, unerik atseginenean itzali egiten da; leku askorik ez duenez, berehala asetzen zaitu, gogaikarri bilakatzen da eta lehen oldarrean zimeldu egiten da. Ez da inoiz gauza segurua berez aldakor dena. Halaber, ezin du funtsik eduki abiadura bizian joan-etorrian dabilenak, erabiliaren erabiliz bere burua agortuko duenak; azken bururantz baitoa, abiapuntutik amaierara begira.

VIII. Eta zer esan honi buruz, alegia, zintzoek bezainbeste atsegin dutela gaiztoek, eta ez dutela gutxiago gozatzen zantarrek euren lizunkerietan, zintzoek beren egintza onetan baino? Horra zergatik zaharrek irakatsi ziguten bizimodurik onenari jarraitzen, ez atseginenari, gurari on eta zuzenaren bidelagun, ez gidari, izan zedin plazerra. Natura baitugu gidari; hari so dago arrazoa, hari aholku eske. Gauza bera da, beraz, zoriontsu nahiz naturaren arabera bizitzea. Zer den hau, orain azalduko dut: gorputzaren ahalmenak eta naturaren gaitasunak arretaz eta ausartki zaindu, epe laburrerako eman zaizkigun ondasun iheskor bailiran; haien zerbitzura ez makurtu, ez eta gauza arrotzak gutaz jabe daitezen utzi; gorputzari atsegin zaizkionak eta kanpotikoak erabili, kanpamentutan laguntzak eta gualoste arinak maneiitzen diren gisan, hots, agintean barik zerbitzura egon daitezela, horrela bakarrik izango baitira gogoarentzat probetxugarri. Kanpokoek ez bezate gizona hondatu edota gainditu, bere buruaz soilik ardura dadila, izpiritu oldarrez edozertarako prest, bizitzaren artesau izan bedi; haren ustea ez dadila izan jakituria gabea, ez eta jakitua iraunkortasunik gabea; behin erabakitakoan luze iraun dezala eta aldaezinak izan bitez haren dekretuak. Esan gabe ere ulertzen da, orekatua eta taiutua izango dela gizon hori, eta bere egitetan gogohandiko eta adeitsu. Azter bitza adimenak, zentzuek eraginda, kanpoko gauzak, eta haietan oinarrituta -ez baitu beste euskarririk ekintzarako edota egiaren bila oldartzeko- itzul bedi bere baitara. Oro besarkatzen duen mundua ere eta unibertsoaren zuzendari den jainkoa bera kanpokoetara iristen da baina nonahitik erretiratuz bere baitara biltzen da⁴⁵. Horixe egin beza gure gogoak; bere zentzumenen ildotik haien bitartez kanpoko gauzetara barreiatu ondoren, beraien eta bere buruaren jabe izan bedi. Era horretan indar eta ahalmen bat sortuko da norberarekin harmonian, eta iritzietan, oharpideetan, sinesteetan ez bereizketarik, ez zalantzarik duen egiazko ezagumen hura jaioko da; eta ezagumen horren prestakuntza burutu dadinean ataletan bat etortzearekin eta, nolabait esateko, osoko elkarkidetzearekin, orduan bai, ontasun gorena bereganatua du. Ez zaio bihurtzerik, ez labainarririk geratzen, estropozu edo irrist egingo duen lekurik ez. Bere agindupean egingo du dena, ez zaio ustegabekorik gertatuko eta zernahi eginda ere, on bihurtuko zaio aise eta berehala, egilearen aitzakiarik gabe; nagia eta zalantza gatazkaren eta ezegonkortasunaren adierazle baitira. Horregatik ausartki aldarrika dezakezu izpirituaren harmonia dela ontasun gorena; adostasuna eta batasuna dagoen lekuan bertuteek ere han beharko dute egon. Banandurik bizioak daude.

IX. "Baina zuk ere -dio- ez duzu bertutea beste ezeretatik lantzen, handik plazerren bat espero duzulako baizik." Lehenik, bertuteak atsegina erakarriko badu ere, ez da arrazoi horregatik desiratu; ez baitu hori soilik, hori ere baizik, ematen; eta ez da horretan saiatzen, baina haren lanaren helburu beste zerbaite izan arren, hori ere erdietsiko du.

Nola garitarako landu den lurrean lore banaka batzuk sortzen diren, eta begien gozagarri diren belarño hauengatik ez zen horrenbesteko lana hartu -besterik baitzen ereilearen helburu; gaineratu egin zaio hau-, hala plazerra ere ez da bertutearen saria ez eta kausa ere, gehigarri baizik; eta ez dugu bertutea onartzen atsegin zaigulako, baina onartuz gero atsegin ere zaigu. Ondasun gorena aukeran datza eta gogorik onenaren jarreran, zeina ibilaldia burutu duenean eta bere esparrura mugatu denean, ondasun gorena gauzatuta dago eta ez du beste ezeren desirarik; osotik kanpo ez baitago ezer, amaieraz haraindian deus ez dagoen bezalaxe. Oker zabiltza, beraz, galde egiten didazunean zerengatik nabilen bertutearen bila; gorenaren gain dagoen zerbaiten atzetik baitzabiltza. Bertuteari zer eskatzen diodan galdetzen didazu? Bertutea bera. Ez baitauka ezer hoberik; bere burua beste saririk ez du. Ez al da, agian, aski? Nik diotsudanean: "Ondasun gorena da izpiritu menperagaitzaren adorea, haren zuhurtzia, haren bikaintasuna, haren osasuna, haren askatasuna, haren bihozkidetza eta lerdentasuna", hauek beragan bildu dituenak baino bikainagorik eska al zenezake ezer? Zergatik aipatzen didazu plazerra? Gizakiaren, ez sabelaren, ongiaren bila nabil; hark baino edukiera zabalagokoa dute abereek eta piztiek sabela!

X. "Itxuraldatzen duzu -diostazu- nik esandakoa; ukatu egiten baitut inor bapo bizi daitekeenik, aldi berean zintzoki bizi ez bada; eta ezinezkoa zaie hau animalia mutuei, bai eta beren ongia janarien arabera neurtzen dutenei ere. Argi, beraz, eta garbi aitortzen dut, nik pozgarri deritzodan bizikera hau ezinezkoa dela bertutean itsatsita ez badago" Eta nork ez daki, gizakirik ergelenak zuen plazerrez okituta daudela, ustelkeria plazerrez gainezka dagoela, izpirituak berak ere plazer mota biziotsu ugari iradokitzen digula? Lehenik eta behin harropuzkeria gogorarazten digu, norberaren gehiegizko estimua eta besteen gainekeo hanpadura, norbere gauzen zaletasunitsu eta oharkabea, lizunkeriak, umekeria eta txikikeriengatik bozkarioa; ondoren mihi garratza, irainetan atsedean duen handikeria, alferkeria eta bere baitan loak hartzen duen izpirituaren utzikeria nagia. Hauek guztiak ezabatzen ditu bertuteak, belarria ernarazten du⁴⁶, plazerrak estimatzen ditu onartu aurretik; eta dastatu dituenak, ontzat eman arren ere, ez ditu gehiegi goretsiko eta ez du pozik haien erabileragatik, neurritasunagatik baizik. Neurritasuna, alabaina, plazerraren murriztaile izaki, ongi gorenaren iraingarri da. Zuk plazerra besarkatzen duzu, nik lotu; zuk atsegin hartzen duzu plazerrean, nik hura erabili egiten dut; zuk ongirik gorenekotzat duzu, nik ongitzat ere ez dut hartzen; oro dagizu zuk plazerrarengatik, nik deus ez.

XI. Plazerragatik deus ere egiten ez dudala diodanean, zuk plazerra baimentzen diozun jakintsu bakar hartaz ari natzaizu. Ez deritzot jakintsu ezeren menpe, are gutxiago plazerraren menpe, dagoenari. Plazerrak hartuta, nola eutsi diezaioke lanari, nola aurre egin arriskuari, pobreziari eta giza bizitza inguratzen duten hainbat gaitzi? Nola aurpegi emango dio herioaren ikuspegiari, nola oinazeei, nola munduaren zalapartari eta etsai sutsuen horrenbesteko kopuruari, lehiakide hain samurrak menpean hartu duen horrek? "Plazerrak kontseilatutakoa egingo du". Tira; baina zenbat aholku emango dizkion ez al duzu ikusten? "Ezingo dio aholku limurkorrik eman -diostazu- bertuteari itsatsita baitago". Zer nolako ongi goren izan daiteke baina, ongi soil izateko ere zaindu beharrean dagoena? Nolatan bertuteak gida dezake plazerra beroni jarraitzen badio, jarraitzea menpekoarena delarik, gidatzea, aldiz, agintearena? Agintea atzealdean ipintzen duzu? Zeregin bikaina leporatzen diozu bertuteari: plazerrak aurrez dastatzea!⁴⁷ Baina ikusteko dago, mesprezuz hain gaizki tratatu duzuen bertutea ea oraindik ere bertutea ote den, ezin baitu izena gorde, lekua utzi badu. Bitartean, horretaz dihardugularik, erakutsi behar dizut asko direla plazerretan blai bizi direnak, zeinetan zoriak bere emari guztiak irauli baititu, eta hauek gaiztoak direla derrigor aitortu beharko duzu. Begira Nomentanori eta Apiziori, beraiek diotenez, itsasoko eta lurreko,

emaitzak prestatzen eta mahai gainean lurralde guztietako animaliak aztertzen; begiraiezu arrosaz egindako ohean etzanda euren sukalkiei gainbegira, belarriak ahots doinuz gozatuz, begiak ikuskariz, ahogaina zaporez; masaia biguinez gorputz osoa laztantzen eta bizkortzen diete, eta usaimena alfer egon ez dadin, usain anitzez lurrintzen dute luxuari ohore eskaintzen zaion gela bera. Hauek plazerretan bizi direla esango duzu; baina ez doakie hain ongi, ez baitute ongi azaltzen.

XII. "Gaizki joango zaie -diostazu- izpirituaren asaldari diren traba asko tartekatzen zaizkielako eta elkarren aurkako iritziek gogoa zalantzan jarriko dietelako". Halaxe dela onartzen dut; baina hala eta guzti, tentel eta aldabera hauek, barren-damuaren zamapean ere, plazer biziak dastatuko dituzte; eta aitortu beharko da egoera horretan nahigabe orotik, gogo onetik bezain urrun daudela eta, askori gertatu ohi zaiona, gaitz umoretsuak jota, barre algaratan zoratzen direla. Aldiz, jakintsuen gozamenak lasaiak dira, apalak, ia grinarik gabeak, zuhurak, ozta-ozta nabariak, zeren eta ez baitatoz deituak izanagatik eta euren kaxa baletoz ere ez zaie ohorerik egiten, ez eta hartzaileen pozik eragiten; jakitsuak bizitzan nahasi egiten dituelako, jokoa eta arazo serioak elkarren artean tartekatzen diren bezalaxe.

Elkargaitz direnak batzeari utz diezaiotela, beraz, bai eta bertutea plazerrarekin lotzeari, jarrera oker honek gizonik gaiztoenen jokabideak zuriztatzen baititu. Plazerretan urtuta bizi den horrek, ahopatsen beti eta mozkor, plazerrez bizi dela dakielako bertutetsu ere badela uste du; plazerra eta bertutea banaezinak direla entzun baitu, beraz bere bizioak jakituriaz jutzen ditu eta izkutatzeko dituenak aldarrikatzen ditu. Ez ditu Epikurok luxuriara erakarri; bizioetara emanak, lizunkeria filosofiaren magalean estali, eta plazeraren laudorioa entzungo duten lekuetan biltzen dira. Ez dute kontuan hartzen -nik, alafede, horrela sentitzen baitut- zeinen latz eta gogor den Epikuroren gozamen hura⁴⁸; izen soilera doaz hegan, euren atseginkerientzat justifikazio eta estalki bila. Horrela galtzen dute txarkerian zeukaten ondasun bakarra, gaizki eginaren lotsa. Lehen lotsagarri zirenak gozamenak dituzte orain eta euren bizioez dira harro; era horretan ezin diote gaztaroari eutsi, utzikeria dorpearri zintzotasunaren deituraz jantzi zaionetik. Horra zergatik den hondagarri plazerraren laudorioa: irakaspen zintzoak barnekoak direlako, ustela, aitzitik, azalekoa.

XIII. Nire iritzia hau da -eta eskolakideen aurkakoa izanik ere azalduko dut-, alegia, Epikuroren aginduek zuzenak eta zintzoak direla, eta gertuagotik ikusita, hitsak; haren plazerra labur eta murrizt geratzen baita, eta guk bertuteari atxikitzen diogun arau bera ezartzen dio hark plazerrari: honek naturaren menpe behar duela, agintzen du. Luxuriarentzat gutxi da ordea, naturarentzat aski dena. Zer gertatzen da, beraz? Nagikeria alferrari, sabelkoikeria eta lizunkeriazko plazerrei zoriona deritzen edonork egile ona aurkitzen dio egintza makurrari eta deitura samurrak erakarrita, berak eragindako plazerrari darraio, ez berak entzundakoari; eta bizioak aginduei egokitzen zaizkiela pentsatzen hasten denetik, haietara makurtzen da, ez beldurrez edo isilpean, aurpegi gorritan baizik. Ez dut nik esango, gutariko gehienek ohi duten bezalatsu, Epikuroren sekta lotsagabekerien ikastetxea denik baina hau bai, esango dut: entzute txarrekoa da, izen ona galdu du, eta merezigaberik. Nork jakin dezake hau, barruan onartua izan denak ez bada? Haren aurrealdeak berak esamesei bide ematen die eta esperantza gaiztoa sustatzen du. Honek zera ematen du, gizonezko mardula emakume soinekoz jantzita dabilena; zure kastitatea zaintzen duzu, gizatasuna salbu duzu, ez du zure gorputzak inoren irain lotsagarririk jasaten; baina eskuan panderoa daukazu!⁴⁹ Hauta ezazu hortik izenburu ohoretsua eta izpiritua zuzpertuko dizun goiburua; dagoenak, bizioak besterik ez du erakarri.

Bertutera hurbildu den edonork izaera noblea egiaztatu du; plazerraren atzetik dabilena urduri agertzen da, hautsita, gizatasuna galduta, dorpezia bidean; beste inork bereizten ez badio behintzat plazerren artean jakin nahiean dabil, hauetarik zeintzuk sartzen diren berezko desiraren esparruan, zeintzuk amiltzen diren buruz behera mugarik gabe, zenbat eta asebateagoak, orduan eta asezinagoak. Ea bada! Utzi bertuteari bidea urratzen eta arriskugabe izanen da urrats oro. Gehiegizko plazerrak kalte egin ohi du; bertutean ez dago gehiegiaren beldurrik, bere baitan daukalako neurria. Ez da ona bere handitasunaz sufritu behar duena. Adimendun naturaz hornitutakoei zein gida hoberik eskain dakieke, adimena bera baino? Eta gustuko baduzu elkargo hau⁵⁰, hauen laguntzan bizitza zorientsurantz joatea baduzu gustuko, bihoa aurretik bertutea, lagun biezaio plazerrak gorputzaren ingurumarian geriza gisan. Andere gorena den bertutea plazerraren neskametzat eskaintzea, deus handirik gauzatu ezin dezakeen izpituaren egintza da.

XIV. Bihoa lehenik bertutea, berama honek bandera. Plazerra geureganatuko dugu halere, baina haren jabe eta kontrolatzaile izango gara; zerbait lortuko du gugandik modu onean, indarrez deus ere ez. Plazerrari lehentasuna eman diotenek, ordea, ez bata ez bestea eskuratuko dute; bertutea galduko dute eta plazerraz jabetu beharrean, plazerra jabetuko da beraietaz, gabeziak torturatzen ez baditu, neurrigabekeriak itoko ditu; dohakabeak plazerrak abandonatzen dituenean, are eta dohakabeagoak hark menperatzen dituenean; Sirteko itsasoak⁵¹ harrapatutako marinel haiek bezalatsu, hondoa joko ez badute, korronte zitalak darabiltza harat-hunat. Gehiegizko neurrigabekeriagatik eta gauzen zaletasunitsuagatik gertatzen da hau; zeren eta ona delakoan txarra eskatzen duenari, hura lortzea arriskutsu bihurtzen baitzaio. Nola piztiak nekez eta arriskuz ehizatzen ditugun eta atzemandakoak gorde ere arretaz gorde behar diren -haiek sarri ehiztariak birrintzen baitituzte-, hala gertatzen zaie plazer handiei ere; gaitz handi bilakatzen dira eta ehiztariak ehizatuak gertatzen dira. Zenbat eta ugariago eta handiago diren plazerrak, orduan eta kaxkarrago eta askoren morroiago izango da jendeak zorientsu deritzan hura. Zilegi bekik gaiaren irudi honi oraindik ere eustea. Piztien gordeleku bila dabilenak

lakioz basapiztiak ehizatzea

biziki estimatzen duen gisan, bai eta

zakur-taldez baso zabalak inguratzea

haien arrastoen atzetik ibiltzeagatik, askoz baliotsuagoak direnak alboratzen dituen gisan eta betebeharreko askori uko egiten, plazerrari darraionak oro baztertzen du, eta askatasuna abandonatzen du lehenik, eta amore ematen dio sabelari, eta plazerrak beretzat erosi beharrean, bere burua saltzen die plazerrei.

XV. "Zerk eragozten du" -dio norbaitek- "bertutea eta plazerra biak batera nahastea eta horrela ontasun gorena gauzatzea, zintzoa eta gogokoa bat bera izan daitezen?" Hona erantzuna: zintzoak ezin duelako zintzo ez den atalik eduki eta ondasun gorenak ez duelako bere osotasuna burutuko, bere baitako atalik onenaren ezberdinik sumatuko balu. Bertuteak sortarazten duen poz hura ere, ona izan arren, ez da ontasun absolutuaren zati, bozkarioa eta lasaitasuna ez diren bezala, jatorririk nobleenetik sortuak izan arren; onak dira hauek, baina ontasun gorenaren ondorio, ez haren osotasun. Bertutea eta plazerra, maila berdinean izan ez arren, elkartzen dituenak, bataren hauskortasunagatik bestearengan dagoen indar oro ahultzen du, eta gauzarik preziatuentzat hartuz gero garaitezina den askatasuna uztarpean ezartzen du. Zeren eta fortunaren beharra sentitzen hasten baita, eta hauxe da izan ere morrointzarik makurrena; bizitza arduratiak, susmoberak, asaldariak darraio, zori txarraren ikaraz, denborek dakartzaten boladez kezkatuak. Bertuteari oinarri finko, iraunkorrik eman barik, leku mugikorrean koka dadin agintzen diozu; zer dago, izan ere, mugikorrarik ustegabekoei itxarotea baino, edota gorputzaren eta gorputzari dagozkionen goibehera baino? Nolatan obedi diezaioke jainkoari gizon honek eta, edozer gerta ere, gogo onez hura onartu eta patuaren kexurik gabe bere zoritxarraren aurrean aldeko jarrera hartu, plazerren eta oinazeen eztenkadatxoek asaldatzen badute? Ez da baina sorterriaren zaintzaile on edo mendekari, ez eta adiskideen defendatzaile, plazerretara makurtzen bada. Altxa bedi, beraz, ontasun gorena inongo indarrik erauziko ez duen lekura, oinazeak, esperantzak, beldurak edota ontasun gorenaren eskubidea murriz dezakeen ezerk sarrerarik ez duen lekura; bertutea soilik igo daiteke haraino. Honen urratsetik ekin behar zaio gorabide horri; adoretzu zutituko da bera eta zernahi gerta, eroapenez ez ezik, gogoz pairatuko du eta jakingo du, aldiko neke oro naturaren lege dela eta soldadu zintzo gisan, zauriak jasango ditu, orbainak zenbatuko, eta geziz josita hiltzear, maite izango du enperadorea⁵², zeinarengatik bizitza emango duen; gogoan itsatsita edukiko du agindu zahar hura: jarrai jainkoari!⁵³ Kexu denari, negarka eta intzirika ari denari indarrez aginduak betetzera derrigortzen zaio eta gogoz kontra bortxatu ere. A zer ergelkeria, ez jarraitzeagatik, tatarrez eramana izatea! Burugabekeria eta ezjakina, halaber, norbere kondizioagatik sumintzea, zerbait falta zaizulako edota ezbeharren bat gertatu zaizulako, edota, zintzoei bezala gaiztoei ere gertatzen zaizkienagatik mirestea ala haserretzea, hots, gaitzengatik, heriotzengatik, ahuleziengatik edota giza bizitza erasotzen duten hainbat ezustekorengatik. Munduaren egituragatik nozitu beharrekoa onar dezagun izpiritu zabalez. Zin sakratu honetara gaude lotuta, alegia, hilkor direnak jasatera eta ekidin ezin ditugun haiengatik ez kezkatzera. Erresuma batetan jaiok gara; jainkoari men egitea askatasuna da.

XVI. Egiatzko zoriona, beraz, bertutean datza. Zein aholku emango dizu bertute honek? Ez ezazu ontzat ala gaizkitzat har bertutearen ala maltzurkeriaren ondorio ez denik; manten zaitez tinko, bai gaitzaren aurrean, bai ongiaren oinarrian, ahalgarri zaizun neurrian jainkoaren antzeko izan zaitezen. Zer agintzen dizu bertuteak eginkizun honen truke? Gauza handiak, jainkoaren parekoak. Ezertara ez zaituzte bortxatuko, ez duzu ezeren faltarik sentituko, libre izango zara, segur, ajegabe; ez zara ezertan alferrik saiaturiko, ez zara ezertan eragotzia izango; orok emango dio amore zure iritziari, ez zaizu okerrik deus gertatuko, zure iritziaren eta nahimenaren kontrakorik deus ez. "Zer bada? Aski al da bertutea zoriontsu bizitzeko?" Onutsa eta jainkotar izaki, ¿nolatan ez da aski, are soberan izango? Zeren faltan senti daiteke ororen desiraz kanpo dagoena?

Kanpokorik zer behar du bereak oro bere baitan bildu dituenak? Baina bertuterantz bideratzen denari, oso aurreratuta balebil ere, fortunaren barkamen izpi bat zor zaio, oraindik giza arazoetan borrokan, korapilo hura eta lotura hilkor oro askatu ez duen bitartean. Zein da, beraz, aldea? Batzuk ertsiki lotuta daudela, beste batzuk kateatuta, are estekatuta. Gorago igo den honek eta maila altuagoetara iritsi denak zabarkeriaz daroa arrastaka katea; ez da oraindik libre baina libretzat har daiteke.

XVII. Filosofiaren aurka zaunka dabiltzan hauetariko norbaitek ohizkoa dutena esango balu: "Zergatik mintzatzen zara zu, bizi zarena baino ausartago? Zergatik mintzatzen zara apalago nagusiaren aurrean eta dirua beharrezko tresnatzat jotzen duzu eta galerak hondatzen zaitu eta ezkontidearen edo lagunaren heriotzaren berri entzunda malkoak isurtzen dituzu eta ospeari begiratzen diozu eta mintzo zitalek hunkitzen zaituzte? Zergatik daukazu soroa erabilpen naturalak eskatzen duena baino landuagoa? Zergatik ez duzu bazkaltzen zuri dagokizunaren neurrian? Zergatik da hain distiratsu zure tresneria?⁵⁴ Zergatik edaten da zure etxean zu baino zaharragoa den ardoa? Zertarako daukazue oilategia? Zergatik landatzen dira zuenean gerizpe besterik emango ez duten arbolak?⁵⁵ Zergatik daramatza zure emazteak belarrietan dilindan etxe aberatseko etekinak? Zergatik jazen dituzte zure morroi gazteek⁵⁶ soineko garestiak? Zergatik da zure etxean artea mahaia jaztea eta ez da axolagabeki edozelan mahaieratzen zilarrezko baxera, baina trebeki zerbitzatzen da eta jakiak ebakitzen iaioa den norbait daukazu sukaldean?" Erantsiozu, nahi baduzu: "Zergatik dituzu ondasunak itsasoaz haraindi? Zergatik dira hauek zuk uste baino gehiago? Hain zara ganoragabe eta baldar, ez dituzula morroiak ezagutzen, edota hain handizale, oroimenak gorde ditzakeenak baino gehiago dituzula." Iraintzen lagunduko dizut gero, eta zuk uste baino gogorrago laidoztatuko dut neure burua; oraingoz hau duzu nire erantzuna: "Ez naiz jakintsu eta, zure gogogaiztoa indartzeko, ez naiz inoiz ere izango. Eska iezadazu, beraz, ez onenen pareko izatea, bai gaiztoak baino hobea. Aski dut hau: egunero nire bizioetatik zerbait murriztea eta nire okerrak gaitzestea. Ez naiz osasunera iritsi, ez eta iritsiko ere; osagarri baino lasaigarri gehiago atontzen ditut nire hezueriarentzat, eta pozik nago bakankiago erasotzen eta min gutxiago ematen didanean; zuen oinekin konparatuz gero, lasterkari ahula naiz." Ez naiz nire izenean ari -bizio ororen leize sakonean aurkitzen bainaiz-, zerbait burutu duen gizon haren alde baizik.

XVIII. "Era batera mintzo zara -diostazu- eta bestera bizi."⁵⁷ Objekzio hau berau egotzi zioten, gaiztotzar halakoak eta onenen arerio porrokatuenak, bai Platoni, bai Epikurori, bai Zenoni; hauek guztiok esan ohi baitzuten, ez nola bizi ziren, bai nola bizi beharko luketen. Bertuteaz mintzo naiz, ez nitaz, eta bizioak gaitzesten ditudanean, neureak gaitzesten ditut lehenik. Ahal dudanean, behar bezala biziko naiz. Eta pozoin ugariz kutsatutako gaiztakeria honek ez nau ildorik zuzenenetatik desbideratuko; eta besteak zipriztintzeko eta zeuon buruak hiltzeko erabiltzen duzen pozoin horrek ez dit galeraziko bizitza etengabe gorestea, ez nik bizi dudana, bizi beharrezkotzat daukadana baizik; are gutxiago galeraziko dit bertutea gurtzea eta hari oso urrutitik tatarrez jarraitzea. Rutilio eta Katon errespetatu ez zituzten gaizkiesaleek beste zerbait ukiezinagotzat onartzea itxarongo al dut? Arduratuko al da inor aberatsegi agertzen, Demetrio Zinikoari nahiko pobre ez deritzotenen aurrean? Ez zela nahiko behartsu esango dizute, gizasemerik oldarkoiena izan zena, naturaren desira ororen aurka borrokan ziharduena, gainontzeko Zinikoak baino pobreago bizi zena, hauek debekatuta zutenean edukitzea, honek eskatzeari ere uko egin baitzion! Baina ikus dezakezunez, honek ez zuen landu bertutearen jakituria, pobreziarena baizik.

XIX. Diodoro, filosofo epikurotarraz, duela gutxi bere buruaz beste egin zuenaz diote, ez zuela Epikuroren agindupean lepo egin. Ekintza honetan batzuek haren erokeria ikusi nahi dute, beste batzuk, berriz, arduragabetasuna; bitartean berak, zoriontsu eta kontzientzia on betean, testigutza eskaini zion bere buruari bizitzetik aldeginenez, eta

portuan ainguratuta iragan egunetako atsedeenaren laudorioa egin zuen, eta zuen eginkizun ere izango bailitz, zuek gogoz kontra entzundako hura esan zuen:

Bizi izan naiz eta fortunak xedatutako ibilbidea burutu dut.

Inoren bizitzaz, inoren heriotzaz eztabaidan ari zarete eta ohore goren batek ospetsu egin dituen gizonen izena entzutean, zaunka hasten zarete, gizon arrotzak usnatu dituzten zakurtoak bezala; inor ere zintzo ez agertzea komeni zaizue, inoren bertutea zuen gaiztakeria ororen gaitzespen izango bailitzan. Inbidiaz beteta, haien itxura bikainak zuen lohikeriekin parekatzen dituzue eta ez zarete ohartzen zeinen nabarmen ausartzen zareten horretara. Zeren eta bertuteari jarraitzen diotenak zekenak, lizunak eta handizaleak badira, zer izango ote zarete zuek, bertutearen izena bera gorroto duzuenok? Inork ere ez duela bere predikua praktikatzan diozue, ez dela inor bizi bere esanen eredura. Ez al dira mirestekoa hain mintzo ausart, itzel, giza-ekaitz ororen gainekoak eskaintzen dizkigutenak? Euren buruak gurutzeetatik askatu nahian, zuetariko bakoitzak bere iltzeak josi dituen gurutzeetatik, eta hala ere zigorrera behartuta, zintzilik geratzen dira norbere habean; euren buruak zigortzen dihardutenak, grinetan bezainbat gurutzetan barreiaturik dabilta. Baina madarikatzaileak dira eta xeratsu agertzen dira inor iraintzerakoan ere. Nahiago nuke ez sinetsi holakorik eta sinetsiko nuke, batzuek gurutzetik txu egingo ez baliete begiraleei!

XX. "Filosofoek ez dute esaten dutena praktikatzan." Nahiko egiten dute, halere, esatearekin, euren gogo zintzoan sortzearekin; hitzen parekoak balituzte egintzak, nor haiek baino zoriontsuago? Ez daukazu, beraz, zertan gutxietsi haien hitz onak eta pentsakizun noblez beteriko haien bihotzak. Ikasketa osasuntsuetan aritzea laudagarri da, ondoriorik ez badu ere. Harrigarri al da bidezidor malkartsuetan dabilena gailurrera ez iristea? Baina gizona bazara, begiraiezu ekintza haunditan ahalegintzen direnei, porrot egin badute ere. Sekulako balentria da, norbere ahalmenei barik, bere naturaren indarrei begira eginkizun garaietan saiatzea eta izpiritu trebez hornituek burutu ditzaketenak baino harrigarriagoak asmatzea. Bere artean honoko hau erabaki duena: "Heriotza eta beronen antzerkia aurpegi berdinez begiztatuko ditut. Lanetara, zenbatnahi izanda ere, makurtuko naiz, izpirituaz gorputza euskarrituz. Eduki ala ez eduki, era berean gaitzetsiko ditut aberastasunak, ez urruti daudelako goibelago ni, ezta ere aldean dir-dir edukitzeagatik harroputzago. Ez diot kasurik egingo datorren fortunari, ez eta doanari ere. Lurrak oro nireak bailiran ikusiko ditut, nireak, berriz, denonak bailiran. Besteen zerbitzurako jaioa naizela jakitun bainintzen biziko naiz eta, hori delata, eskerrak emango dizkiot izadiari; izan ere, nola joka zezakeen hobeto neure interesen alde? Ni neu denontzat eskaini nau, denak niri neuri eman zaizkit. Eduki dezakedana, ez dut lukurreriaz gordeko, ez parrastaka barreiatuko. Ez dut ezer, nire ustetan, neureago izango, ongi eman dudana baino. Etekinak ez ditut kopurutan, ez pisutan, ez hartzailearen estimuaz kanpo beste ezein baliotan neurtuko; gizon duinak hartuko duena ez zait inoiz asko irudituko. Ez dut ezer egingo inoren iritzi bila, oro egingo dut neure kontzientziari begira. Ni bakarrik lekuko naizela egin dezakedan guztia, jende aurrean bainintzen burutuko dut. Jan-edanean nire helburua naturaren desirak betetzea izan da, ez sabela bete eta hustea. Lagunekin adeitsu izango naiz, etsaiekin otzan eta eskuzabal. Barkamen eske etorri ez denaren erruki izango naiz eta eskakizun zintzo orori aurre hartuko diot. Aberritzat mundua dudala jakingo dut, eta jainkoak zaintzaile; hauek nire gain ditudala eta nire inguru, egintzen eta hitzen zentsuratzaille. Eta naturak izpiritua itzultzeko eska diezadanean, edota adimenak libra dezanean⁵⁸, kontzientzia ona eta ahalegin zintzoak maite izanaren testigantza eman ez joango naiz; inoren askatasuna, are gutxiago nirea, murriztu ez izanaren testigantza". Hauek egin asmotan dabilena, hauek nahi dituen, hauek burutzen saiatzen dena, jainkoenganako bidea egiten ari da, benetan horrelako hori helmugara iritsiko ez bada ere,

saiakuntza bikainetan geratu da lurjota.

Baina zuek, bertutea eta bertutearen praktikatzailea gorroto duzenok, ez duzue deus berririk egiten. Begi lausoak ere eguzkiaren izu dira eta egun argia dute gorroto gau piztiek, zeinak egunsentiarekin nahasi egiten diren eta handik-hemendik euren zulo bila hasten, eta argiaren beldur zirrikituren batean ezkututzen dira. Egizue ulu eta erabil itzazazue mihi zikin horiek zintzoak iraintzen, aharrausika egin, hozkatu; marka utzi baino askoz ere lehenago, hortzak hautsiko dituzue.

XXI. "Filosofizale hura, nolatan bizi da hain oparo? Zergatik dio mesprezatzekoak direla aberastasunak, eta berak eduki? Bizitza mesprezatu behar dela eta bera bizi? Osasuna mesprezagarri dela eta arreta guztiz zaintzen du berea, eta ezinhobea nahi? Eta desterrua hitz hutsa dela uste du eta esan ohi du: "Zer txarrik dakar lurraldez aldatzeak?", baina berak, ahal izanik, nahiago du bere herrian zahartu? Eta bizitza luze ala laburraren artean alderik ez dagoela uste duen bitartean, eragozpenik ez badu, adina iraunarazten du eta zahartzaro luzean baketsu loratzen da?" Mesprezatzekoak direla hauek dio, ez eduki nahi ez dituelako, edukiaren kezka bizi nahi ez duelako baizik; ez ditu beragandik uxatuko, baina doazenean joaten utziko die bere onetik irten gabe. Non gordeko ditu seguruago fortunak bere aberastasunak, itzuliko dizkionaren kexurik gabe berreskuratuko dituen lekuan baino?

M. Katonek Kurio eta Korunkanio eta zilarrezko xafla mehe batzuk krimen zigorgarri ziren mende hura goraipatzen zituenean, bera lau milioi sestertzioren jabe zen; Krasok baino gutxiago zeukan, dudarik gabe, Katon Zentsuratzaileak baino gehiago ordea. Konparatuz gero, berak birraitonari ateratzen zion aldea haundiagoa zen, Krasok berari ateratzen ziona baino, eta hala ere, ondasun joriagoak etorri balitzaizkio ez lieke muzinik egingo. Ez baitu jakintsuak bere burua fortunaren ezein emaitzaren merezigabetzat hartzen. Ez ditu aberastasunak maite, baina nahiago ditu; bihotzean barik, etxean hartzen ditu; dauzkanak ez ditu arbuiazen, haietaz jabetzen da eta bere bertuteari eremua heda diezaioten nahi du.

XXII. Nork jartzen du zalantzan, gizon jakintsuak bere izpiritua zabaltzeko erraztasun gehiago izango duela aberastasunean⁵⁹, pobrezian baino, pobrezia bertute mota bati soilik egiten baitio bide, hots, ez makurtzeari eta ez lurjotzeari, oparotasunean, aldiz, leku zabala baitute neurribideak eta liberaltasunak eta arretak eta prestutasunak eta handitasunak? Ez du jakintsuak bere burua gutxietsiko garaiera laburrekoa izateagatik, gizon altua izan nahiko lukeen arren. Eta gorpuzkera ahulekoa edota begibakarra izanda ere, aurrera egingo du⁶⁰, soin bikainekoa izatea nahiago izan arren, jakin badakielako gorputza baino sendoago den zerbait badagoela bere baitan. Osasun eskasa pairatuko du, ona nahi izango. Badira tasun batzuk, nahiz eta osotasunaren ikuspegitik txikiak izan eta ontasun nagusiaren hondamenik gabe galgarri, bertuteari darion poztasun iraunkorrari zerbait eransten diotenak. Aberastasunek hunkitzen dute hura eta alegeratzen, itsasgizona aldeko haize eraginkorrek bezala, edota giro oneko egunak, edota eguraldi hotz lanbrotsuan babeslekuak. Jakintsuetarik -guretat ari naiz, bertutea ondasun bakartzat dutenetaz- zeinek ukatzen du, guk ezaxolakeria deritzegun hauek ere euren balioa dutela eta batzuk besteak baino duinagoak direla? Haietariko batzuei ohore apur bat aitortzen diegu, beste batzuei gehiago. Okerrik egin ez dezazun diotsut, aberastasunak duinagoen artean daudela. "Zergatik orduan -diostazu- iseka egiten didazu, zure eta nire begien aurrean leku bera badute?" Zeinen leku ezberdina duten jakin nahi duzu? Niretzat, aberastasunak eskuetatik isuriko balitzaizkit, ez lukete beraiez aparte deus eramango; zu, berriz, harri eta zur geratuko zara eta zeure errotik aterea izanaren itxura emango duzu inoiz haiek aldegingo balizute; nire baitan aberastasunek badute lekurik, zure baitan lekurik gorena; azken finean, aberastasunak nireak dira, zu haiena.

XXIII. Utziozu, beraz, dirua debekatzeari filosofoei; ez du inork ere jakituria pobrezia kondonatu. Ondasun oparoen jabe izango da filosofoa, ez inori ebatsiak,

ez inoren odolaz kutsatuak, inoren kalterik gabe eskuratuak, tratu makurrik gabe, irteera bezain sarrera zintzokoak, intzirika inor ere jarriko ez dutenak, zitara salbu. Nahi beste pila itzazu; jatorrak dira, ugariak izanik ere, bakoitzak bereak direla esan ditzakeenak handik beste inor hartzekodun izan gabe. Filosofoak ez du fortunaren emankortasuna beragandik uxatuko eta modu onean eskuratutako ondareagatik ez da harro izango, ez lotsa ere. Izango du, halere, zertaz harro sentitu, etxea zabaldu eta bertan hiri osoa ondasunak ikustera onartuz gero, esan ahal izango balu: "Inork bererik aurki baleza, eraman beza." Oi gizon haundia, oi aberats bikaina, hitz horien ondoren lehen beste baleuka! Esan nahi baitut: lasai eta seguru, herriari arakatze hau eskaini badio, inork bere eskutan hartzekorik aurkitu ez badu, ausartki eta agerian izango da aberats. Jakintsuak ez dizu oker irabazitako dirurik bere atarian onartuko; era berean, ez die muzin egingo, ez aterik itxiko, fortunaren opari edo bertutearen emaitza diren ondasun joriei. Zein arrazoi dago haiei leku on bat ukatzeko? Ongietorriak bitez, har bezate ostatu. Ez ditu harro erakutsiko, ez eta gordeko -lehen izpiritu ergelarena baita, bigarrena ziztrin eta kikilduarena, altxorra poltsikoan eramango lukeenarena- ez eta, lehen esan bezala, ez ditu etxetik iraitziko. Zer esanen du? Agian, "Ez duzue ezertarako balio", edo, "Ondasunak nola erabili ez dakit"? Nola oinez ere bidaiatu ahal izan arren, zalgurdira igo nahiago duen, hala behartsu izan zitekeen, baina aberats izan nahi. Edukiko ditu, beraz, aberastasunak baina arin eta iheskortzat, eta ez die utziko astun izaten, ez beretzat, ez inorentzat. Emango du -zergatik tentetzen dituzue belarriak? zergatik aurreratzen sakelak?- zintzoei emango die edota zintzotu ditzakeenei; emango du, prestuenak nortzuk diren arretarik handienaz aukeratuz, gogora bailekarren eman beharreko kontuak direla bai hartu duenarena, bai banatu duenarena ere; emango du arrazoi zuzen eta frogagarriagatik, gaizki emandakoa diruxahuketa lotsagarria baita; sakel zabala berea, ez zulatua; aise irtengo dira handik gauzak, deus ere ez da jausiko.

XXIV. Oker dabil ematea erraza dela pentsatzen duena; eginkizun guztiz zaila da zuhurtasunez banatzea, ez azarean eta itsumustuan barreiatzen bada. Honi mesede dagiot, hari ordaindu; honi lagundu, hura gupida dut; beste hari mesede egiten diot, pobreziak hondatu edota menperaturik edukitzea merezi ez duelako; batzuei ez diet emango premian izanda ere, eman ondoren premian iraungo dutelako; eskaini egingo diet laguntza zenbaitzuei, beste batzuk hartzera bultzatuko ditut. Arazo honetan ezin naiz axolagabe izan; ematen ari naizenean baino fondo erabilera hoberik ez dut sekulan egingo.

"Eta zer? -diostazu- Hartzeko ematen duzu?" Areago, deus ez galtzeko; erreklamaturia izango ez den lekua dagokio emaitzari, itzulia izan daitekeenaren lekua. Sakon lurperatutako altxorra bailitza gorde behar da irabazkina, premiazko ez bada ez baituzu ateratzen. Zer? Aberatsaren etxeak berak zenbat aukera ditu onuratsuak banatzeko! Nork mugatzen du liberaltasuna togadunetara soilik?61 Naturak agintzen dit gizasemei ongi egitea. Esklabuak ala askeak izan, jatorriz libreak ala libratuak, legez ala adiskidetasunez libratuak izan62, zer axola dio? Gizasemea non, egintza onerako gunea han. Etxe barruan ere dirua bana daiteke eta liberaltasunaz jokatu, ez baitaio liberaltasuna deitzen libreei zor zaielako, izpiritu librean sortzen delako baizik. Zuhurraren eskutan ez da liberaltasuna alferrik galduko jende gauzaez eta lotsabakoen artean, eta nekatuta ere, ez dizu inoiz huts egingo: merezi duenik aurkitu bezain pronto eskuzabal lagunduko dio63.

Hortaz, ez dago aitzakiarik oker aditzeko jakinzaleek zintzoki, irmoki, ausartki esandakoak. Eta adi ezazue hau lehenik: ez da gauza bera jakinzale ala jakitun izatea. Jakinzaleak esango dizu: "Oso ondo mintzatzen naiz baina oraindik ere gaitz asko eta askotan lorrindurik nabil. Ezin nauzu neure arauetara egoki nadin galdatu. Hain zuzen

ere eginahaletan nabilkizunean, neure burua hezitzen, helburu gorenerantz begira; inoiz lortuko banu haraino iristea, eskaidazu orduan nire egintzak mintzoei egoki dakizkien." Baina giza ontasunaren gorenera heldu dena bestela mintzoko zaizu eta esango dizu: "Lehenik ez duzu eskubiderik zu baino hobeak direnak auziperatzeko; niri dagokidanez, gaiztoak gogaitaraztea lortu dut dagoeneko eta hau zuzentasunaren froga da. Baina ohar zaitezen ez dudala munduan inortxo ere gaitzesten, entzuidazu egin dudan promesa eta zenbaterainoko estimua diedan gauzei. Aberastasunak ontasun direla ezeztatzen dut; hala balira, onak egingo lituzkete gizonak. Hori dela eta, gaiztoen eskutan aurkitzen direnei onak deitzea zilegi ez denez, ukatu egiten diet on izena haiei. Alabaina aitortzen dut eduki beharrekoak eta ongarriak direla eta bizitzari mesede handiak ekartzen diotela.

XXV. "Edukitzekoak direla esaterakoan denok bat gatozelarik, entzun orain zein arrazoiengatik ez ditudan nik ontasuntzat eta zertan den nire haiekiko jarrera zuenaren ezberdina. Koka nazazu etxerik aberatsenean, urrea eta zilarra barra-barra dabilen etxean; ez dut nik neure burua miretsiko, nireak izan arren nigandik kanpo dauden horiengatik. Eraman nazazu Sublicium zubira⁶⁴ eta utz nazazu eskaleen artean; ez dut neure burua mesprezatuko eskua limosna eske luzatzen dutenekin eseri naizelako. Zer axola dio, hiltzeko posibilitatea falta ez zaionak ogi pus karen falta izatea? Zein da ondorioa? Nahiago dudala etxe oparoa zubia baino. Koka nazazu altzairu dotoreen erdian eta luxuzko apaingarrien artean; ez dut uste ezertan zorientsuago izango naizenik mantu guriz jantzita nagoelako, nire gonbidatuen oinetan purpura hedatu delako. Alda ezazu nire ohea; ez naiz inondik ere errukarriago izango, nire buru nekatuak lasto eskutada baten gainean atsedean hartuko badu edota oihal zaharraren adabakietatik zaborra darion Zirkuko koltxoi zahar batetan⁶⁵ etzango banaiz. Zein da, beraz, ondorioa? Nire izpirituaren egoera nahiago dut azaldu togaz eta oinetakoz jantzita, bizkarra biluzik eta oinak zaurituta baino. Egoki bitez nire egunak neure desiretara, zorion opari berriak aurrekoei erants biezazkie; ez dut horregatik neure buruarekin atsegin izango. Alda ezazu denboraren onginahi hau alderantzizkora; jo dezatela nire izpiritua handik eta hemendik galerak, minak, eraso ezberdinek, ez bedi niretzat kexurik gabeko ordurik; ez naiz horregatik kontsideratuko errukarrietan errukarriena, ez dut horregatik madarikatuko egunik bat ere, erabakirik baitaukat ez dagoela niretzat egun beltzik. Zein da, beraz, ondorioa? Nahiago dut gozamenak girotu, oinazeak sormindu baino."

Hau esango dizu Sokrates haundiak: "Egin nazazu munduko nazio guztien irabazle, Bakoren gurdi limurkoiak eramanez nazala garaipenaren ohoretan eguzkiaren sorlekutik Tebaseraino, eska biezazkidate legeak nazio arrotzetako erregeek; jainkotzat edonon agurtua izan nadinean, orduantxe inoiz baino gehiago izango dut gogoan gizona naizela. Goratze ezin-bikainago honi erantsiozu bapatean ni amilduko nauen ustegabeko aldakuntza; orga arrotzean⁶⁶ ipin nazatela, garaile harro, basatiaren itzulera apaintzeko; ez naiz eraitsiago sentituko inoren organ eramanez, nirean irmo nindoanekoan baino." Zein da ondorioa? Garaile izan nahiago dut atxilotua baino. Fortunaren esparru osoari muzin egingo diot baina, aukerarik balego, haren zatirik onena hartuko dut. Nigana datorkeen oro ontasun bilakatuko da, baina nahiago ditut errazagoak eta atseginagoak eta maneia garriagoak. Ez ordea pentsa, nekerik gabeko bertuterik eskura dezakezunik, baina bertute batzuek akuiluaren premia dute, beste batzuek ahosokarena. Nola gorputzari maldan behera eutsi behar zaion eta malkar latzean bultza, halaxe bertute batzuk aldapan beherantz doaz besteek gailurra jo behar duten bitartean. Inork zalantzarik ba al du, pazientzia, sendotasuna, iraunkortasuna eta baldintza gogorreari aurpegi eman eta fortuna menperatu behar duen edozein bertute aldapan gora ahalegintzea eta biziki borrokatzea dela? Eta zer? Ez al dago era berean argi, libertasuna, neurritasuna, onberatasuna malda behera direla? Hauetan eutsi egiten

diogu gogoari urrunegi joan ez dadin, aurrekoetan, aldiz, indar guztiz estutzen eta zirikatzen dugu. Pobrezia, beraz, borrokan trebeak diren bertute lehiatsuak landu behar ditugu; oparotasunean, berriz, zuhurragoak eta zehatzagoak, behatz puntatan oreka galdu gabe dabiltzanak. Bereizketa eginda, nahiago ditut lasaiago erabiltzen direnak, izerdia eta odola isurarazten dizutenak baino. "Ez da beraz -dio jakintsuak- ez naizela bizi mintzo naizenaren arabera, zuek beste nolabait entzuten duzuela baizik; hitzen soinu hutsa iristen da zuen belarrietara; ez duzue haien esanahia aztertzen."

XXVI. "Zein da, hortaz, ni naizen ergela eta zu jakintsu zaren horren artean dagoen aldea, biok ere aberastasunen jabe izan nahi badugu?" Sekulako aldea; aberastasunak gizon jakintsuaren zerbitzurako dira, ergelaren jaun eta jabe; jakintsuak ez die aberastasunei ezertarako baimenik ematen; zuei haiek edozer egiten uzten dizute; norbaitek haien jabegoa betirako ziurtatu bailizuen, zuek haietara ohitu eta itsatsi egiten zatzaizkiete; jakintsuak inoiz baino gehiago hausnartuko du pobrezia, oparotasunean bizi denean. Jeneral batek ez du inoiz hain bake konfidantza haundirik izango, non eta deklaratu den gerrarako prestatuko ez den, hura hasi aurretik ere. Etxe dotoreak txunditzen zaituzte, erre edo suntsitu ezinak bailiran; besteren ohitura faltaz, oparotasun nabarmenak liluritzen zaituzte, arrisku oro gainditzeko gai eta fortunaren indar iraultzailea bera baino ere ahaltsuago bailitz.

Nagiki jolasten zarete aberastasunekin haien arriskuari jaramonik egin gabe, barbaroak bezala, zeinak sarri setiatuta daudenean, gudumakinen ezjakinean axolagabe geratzen baitira setiatzaileen jardunari begira⁶⁷, eta ez dute susmatzen zertarako izan daitezkeen han urruti eraikitzen ari direnak. Berdin gertatzen zaizue zuei ere; zuen ondasunetan zimeltzen zarete, jabetu gabe alde guztietatik zenbat istripuk mehatxatzen zaituzten, hondakin preziatuak eraman zorian. Jakintsuari aberastasunak ebatsiko lizkiokeenak harena den oro utziko lioke; orainaz pozik bizi baita, etorkizunaren kezka gabe.

Sokratesek dio, eta berarekin giza gaien aurrez aurre eskubide eta ahalmen berdina duen edonork: "Ezertaz ez nago honetaz bezainbeste sinetsirik, alegia, neure bizitzaren ibilaldia zuen irizpideetara ez makurtzeaz. Jaurti itzazue ohizko isekak nire aurka; ez ditut iraintzat hartuko, haur errukarriak bezala zizaka ari zaretela pentsatuko dut." Hauxe berau esango du jakituria kausitu duenak, zeinaren gogoak, bizio orotik aske, eskubide ematen dion besteei liskar egiteko, ez gorrotoz, sendatzeko baizik. Eta gaineratuko du: "Hunkitu egiten nau nitaz duzuen iritziak, ez nigatik, bai zuengatik; zeren eta predikariaren bertutea gorroto izatea eta oldartzea, esperantza on orori uko egitea baita. Irain arrastorik ez didazue egiten, ez eta jainkoei ere haien aldareak suntsitzen dituztenek. Baina asmo txarra eta aholku gaiztoa nabari agertzen dira minik egin ezin duten gauzetan ere. Zuen lilurapenak nozitzen ditut, nola Jupiter onenak eta gorenak ezgauza ziren poetak; hauetariko batek hegal itsaskorrak ezarri baitzizkion, besteak adarrak, beste batek adulteriogile eta gautxori bihurtu zuen⁶⁸, besteak jainkoekin krudel, besteak gizonekin zital, besteak gaztetxo nobleen eta ahaideen bahitzaile⁶⁹, besteak aita-erailtzaile eta aita beraren erresumaren usurpatzaile. Guzti horrekin ez zen ezer lortu, gizonek hobien egiteko lotsa galtzea izan ezik, jainkoak erruduntzat baitzituzten. Baina zuen hitz horiek kalterik egingo ez badidate ere, zuen onerako aholku ematen dizuet. Begira egiozue bertuteari, sinetsiezue luzaroan bertuteari jarraitu ondoren, hura haundia dela eta egunetik egunera handiagoa aldarrikatzen dutenei; gurtu ezazue bertutea, jainkoak gurtzen ditugun bezala, eta haren praktikatzaileak jainkoen bidaliak bezala, eta letra sakratuak aipa daitezen aldioro, zaudete, otoi, isilik. Askok hala uste badu ere, esamolde hau ("favete linguis")⁷⁰ ez baitator faboretik; isiltasuna agintzen du, ospakizun sakratua erritoaren arabera burutua izan dadin inongo ahots gaiztoren trabarik gabe. Are eta premiazkoagoa da zuei agindu hau ematea, orakuluak esaldiren bat aldarrika dezan bakoitzean, adi eta hitzik gabe entzun dezazuen. Kriskitin-joleren⁷¹ batek agindupean gezurra dioenean, zainak ebakitzen abilak direnetariko

batek eskua luzatuz besoak eta bizkarra odoleztatzen dituenen, emakumeren bat uluka belakak kalean arrastaka dabilenean, lihoz jantzitako agureak, erramu adarra eskuan eta kriseilua egun argitan⁷², jainkoren baten kolera aldarrikatzen duenean, bertara bildu eta entzuten diozue eta elkarren txundidura mutua zuzpertzuz, hura jainkotar dela aitortzen duzue.

XXVII. Hona Sokrates, bere sarrerarekin garbitu eta edozein senatu baino ohoragarriago bilakatu zuen kartzelatik aldarrika: "Zein grina da hau, jainko eta gizakien aurkako zein joera, bertutea laidozten duena eta gauza santuak mintzo zitatez profanatzeko dituen? Ahal baduzue, goretzazue zintzoak; ezin baduzue, egizue ezizuziarena; eta lizentzia hits honetaz baliatzea gogoko baduzue, elkarrengana oldar zaitezte. Zeren eta, zeruaren aurka altxatzen zaitenean, ez dut esango sakrilegioa burutzen duzuenik, bai, ordea, alferreko lana egiten duzuela. Ni nerau ere Aristofanesen iseka izana naiz noizbait; poeta satirikoek⁷³ tropelean euren umore pozointsuak bota zituzkidan. Nire bertutea distiratsua irten zen haien erasoaldietatik, ongarri baitzaio bertuteari jendaurrean azaltzea eta frogatua izatea; hura zeinen handia den ez du inork ulertuko hobe, erasoaldian haren indarrak nabaritu dituenak baino. Sukarriaren gogortasu-

na nork ezagutuko du hura lantzen duenak baino hobeto. Neure burua itsas erdian dagoen haitz bakartia bezala aurkeztu dut, olatuek etengabe alde guztietatik jotzen dutena, baina ez dute ahatik bere lekutik zipitzik mugituko, ez eta mendetako erasoaldi lehiatiak marraskatuko. Egidazue eraso, oldar zaitezte nire kontra; jasankortasunez menderatuko zaituztet. Tinkoa eta gaindiezinaren aurka saiatzen den orok bere kalterako erabiltzen du indarra. Bila itzazue, beraz, objektu malgu eta bigunak, bertan zuen geziak itsasteko."

Inoren gaitzak arakatzeko eta edonoren epaia emateko lizentziarik ba al duzue? "Zergatik dauka filosofo honek hain etxe eroso? Zergatik afaltzen du hain oparo beste hark? Inoren pikortak begiratzen dituzue, zauriz josita zaudetelarik. Sarna nazkagarriak jota dagoen norbaitek gorputzik ederrenen orbaintxo eta garatxoei irri egingo liekeena bezala. Aurpegira egozten diozue Platoni dirua eskatzea, Aristotelesi hura onartzea, Demokritori haren axolarik eza, Epikurori hura xahutzea⁷⁴; neuri ere bota diezazkizazue aurpegira Alzibiades eta Fedro; inoiz baino zoriontsuago izanen zarete gure bizioak imitatzeke gauza izan zaitezketenean! Zergatik ez dituzue hobe aztertzen alde guztietatik hondatzen zaituzteten gaitzak, kanpotik erasoka batzuk, barrunbeak erretzen bestak? Zuen egoera oso gutxi ezagutzen duzuen arren, zuek baino zintzoagoak direnak ahoz iraintzeko haina aisialdia izan dezazuen paradara ez dira oraindik giza gaiak iritsi.

XXVIII. Ez duzue hori ulertzen zuek, eta ez duzue zuen fortunari dagokion itxura ematen, etxean doluan diren bitartean, horren berri jakin gabe zirkuan edo teatroan jolasean dabiltzanak bezala. Baina nik goitik begira ikusten dut zer nolako ekaitzek mehatxatzen zaituzteten, laster zuen gain erauntsitan lehertuko dutenak, edota hurbil, gero eta gertuago dituzuenak, zuek eta zuenak harrapatzeke prest. Zer diot baina nik? Oraintxe bertan, zuek sentitu ez arren, ez al ditu zirimolak inguratzen eta zurruntzen zuen gogoak, ihesi doazela, beti gauza berak eskatzen, orain gailurrera jasoak, orain sakonera jaurtikiak?...⁷⁵

Serenori

Astiaz

I. ... 76 akordio zabalez gomendatzen dizkigute bizioak. Aparteko ezer osasuntsutan saiatuko ez bagina ere, erretiroa berez izango dugu probetxugarri; hobeak izango gara banaka. Ez al zaigu bada zilegi, gizonik zintzoenekin bildu⁷⁷, eta haien artean eredu bat hautatzea, honi bizitza egokitzekotan? Eta hau, astialdian ez bada, ez dugu sekulan lortuko. Astian bakarrik eskura daiteke inoiz gogoko izan genuen hura, herriaren laguntzaz, gure erabaki oraindik ahula zapuztuko duenik inor tarteka ez dadinean; orduan urrats berdinez eta tenore berean aurrera egin dezake bizitzak, guk asmo hain ezberdinetan birrintzen dugun bizitza honek. Hainbat gaitzen artean, izan ere, okerreña da bizioak beraiek ere aldatu egiten ditugula. Ez zaigu, beraz, gertatzen gaitz ezagun batean irautea. Bataren ondoan hurrengoak limurtzen gaitu, gure erabakiak okerrak ez ezik aldakorrak ere izatera iritxi arte. Gora eta beheara gabilta, orain honi, gero hari atxikitzen gatzazkio, aurkitua abandonatzen dugu, abandonatua birraurkitzen saiatzen gara, etengabeko joan-etorrian gabilta plazerretik damura, damutik plazerrera; inoren irizpideen menpe gaude erabat eta onena deritzogu zaletu eta laudatzaile asko dituenari, ez berez laudagarri edo estimagarri denari, eta bidea zuzena ala okerra den ez dugu bidea beragatik erabakitzen, oinatzten kopuruagatik baizik, eta hauetarik itzulbidean datorrenik bat bera ere ez dago⁷⁸.

Esango didazu: "Zertan ari zara, Seneka? Ihesi zoaz zeure eginkizunetik? Egia da zuen Estoikoek diotela: Bizitzaren azken finera arte ekingo diogu, eten gabe saiatuko gara guztien onaren alde, norbanakoari laguntza eskaintzen, etsaiei ere sorospen ematen, eskuak zahartu arren. Gu gara, urteetan inoiz oporrik hartzen ez dugunak eta poeta hain entzutetsuak dioenez:

Ile urdinak kaskoaz estaltzen ditugu.

Herio aurretik deus alferrik ez daukaten horiek gara gu, eta heriotza bera ere, zilegi balekio, ez da alferrekoa. Nolatan predikatzen dizkiguzu Epikuroren dotrinak Zenonen printzipioak direla-eta? Alderdiaz nazkatu bazara, zergatik ez diozu berehala ihesari ematen, saldukerian jausi barik?" Oraingoz hau erantzungo dizut: "Zer nahi duzu nigandik gehiagorik neure maisuen antzeko izatea baino? Zer? Ez naiz ni joango haiek igor nazaten lekura, bidera nazatenera baizik."⁷⁹

II. Orain erakutsiko dizut nola ez naizen Estoikoen aginduetatik aldentzen, eurak ere beren bidetik urrundu ez ziren bezalaxe; hala eta guzti, barkagarri nintzateke haien aginduei barik, exenpluei jarraitzeagatik. Bitan banatuko dut esatera noan hau: bat, haurtzarotik ahalgarri zaigula egiaren kontenplaziora oso-osorik norbera eskaintzea eta bizi-arau bat aurkitu eta hura isilean lantzea; bi, adineko gizonak, lanetik jubilatuta ondoren, eskubide osoa duela bere zerbitzuaren zereginak aldatzeko⁸⁰, birjina vestaleen antzera eginez, zeinak urteetan zenbait ofiziotan jardun ondoren eginkizun sakratuak ikasten dituzten, eta ikasi ondoren irakatsi egiten dute.

III. Hau Estoikoen gogokoa dela adieraziko dizuet, ez neure buruari ezarritako arauak behartzen nauelako Zenonek edo Krisipok esandakoaren aurka deus ez antolatzerara, baina gaiak berak onesten duelako ni haien iritzietara biltzea; zeren eta beti bat beraren iritzinari jarraitzen dionaren lekua ez baita senatua, fakzioa baizik. Ai dena behar bezala balego, eta egia nabarmenki aitortua, eta gure dekretuetan deus aldatuko ez bagenu! Egi bila gabilta orain, hura irakasten dutenekin batera.

Auzi honetan bereizten dira batipat Epikurotarren eta Estoikoen sektak, baina biek garamatzate astialdira bide ezberdinetik. Epikurok dio: "Jakintsuak ez du herribatzen parte hartuko zerbaitek horretara behartuko ez balu." Zenonek dio: "Herribatzen arituko da jakintsua, ezerk eragotziko ez balio." Batak astia eskatzen du printzipioz, besteak ondorio bezala. Ondorioarena, berriz, luze doa. Herria hain usteldua dagoenean ezen

laguntza ezinezkoa den, gaitzek hartua dagoenean, jakintsua ez da alferrik saiatuko, ezer ez lortzekotan ez da ahaleginduko. Aginpide edo ahalmen eskasekoa balitz edota herriak onartuko ez balu edo osasunak galaraziko balio, untzi kraskatua itsasoratuko ez lukeen moduan, soldadutzarako inor gaixorik lerrokatuko ez lukeen moduan, era berean ez dio ekingo bera hartarako gauza ez dela dakien bideari. Ahalgarri zaio sasoi betean dagoenari, ekaitzik jasan aurretik, babesean geratu eta arte nobleetara bere burua erabat eskaini eta etengabeko astia galdatzea, erretiratuenean ere praktika ditzaketen bertuteak lantzeko. Gizonari eskatzen zaio gizonen mesedetan jardutea, askoren mesedetan, ahal izan ezker; ezinean, gutxiren mesedetan; horretara ere iritxi ezin badu, hurbilekoen mesedetan; besterik ezinean norbere mesedetan. Inorentzat lagungarri denak zeregin publikoan dihardu. Nola norbere kaltetan ari denak bere buruari ez ezik, hobetuz laguntza eskaini diezaikeen guztiei egiten dien kalte, horrela bere onespena irabazten duena horrexetan besteentzat ongarri gertatzen da, geroan mesede egingo diena prestatzen baitu.

IV. Izpirituz besarka ditzagun bi herribatza; bata haundia eta zinez publikoa, jainkoak eta gizonak berebaitan hartzen dituen, zeinetan ez dugun aztertzen munduaren bazter hau edo beste, ze gure hiritargoaren mugak eguzkiaren ibilbideak markatzen baititu; bestea, jaiotze beretik ezarri zitzaiguna. Atenastarren edo Kartagotarrena da hau, edota beste edozeinen aberri, guztiona ez baina zenbait gizonena. Batzuk aldi berean herribatza batari zein besteari zerbitzatzen diote, handiagoari eta txikiagoari; batzuk txikiagoari bakarrik, beste batzuk handiagoari bakarrik. Herribatza handiago honi astian ere zerbitzatu diezaiokegu, agian aldi hau hobe ez ote den ere ez dakit: bertutea zertan datzan, bat ala zenbait diren aztertzeko; natura den ala artea gizonak zintzo egiten dituen; bat ote den lurra eta itsasoak bai eta lurretan eta itsasoetan daudenak bere baitan biltzen dituen hau⁸¹, ala horrelako gorputz asko barreiatu dituen jainkoak⁸²; ea oro sortzen duen materia betea eta etenik gabea ote den, ala jarraigabea, eta hutsunea solidoarekin nahasian⁸³; jainkoa zein den; bere lanari nagikeriaz begira dagoen ala zuzentzen saiatzen den; bere obrari kanpotik inguratzen zaion ala hura erabat barneratzen duen; ea mundua hilezkorra den ala galkorren eta denbora mugaturako jaioen artean zenbatzekoa. Hau guztia hausnartzen duenak zein zerbitzu eskaintzen dion jainkoari? Ez dadila haren obra hain handia testigantzarik gabe gera.

V. Esan ohi dugu ongi gorenaren arabera bizitzea dela. Bi hauetarako sortu gintuen naturak: gauzen kontenplaziorako eta ekintzarako. Lehen esandakoa frogatzen dezagun orain. Zertarako baina? Ez al da bada frogatuta geratuko nork bere buruari galde baliezaio zenbaterainoko irrika daukan ezezaguna jakiteko eta nola zuzpertzen den irrika hori edozein fabularen kontakizuna entzuterakoan? Badira zenbait, itsasora irteten direnak eta ibilaldi luzearen nekeak jasan, urruneko zerbait ezkutua ezagutzeko mesede bakarraren truke. Honek biltzen du jendea ikuskizunetan, honek bultzatzen gaitu ezkutuan daudenak ikusmiratzera, sekretukoak arakatzera, antzinakoak aztertzerako, nazio barbaroen ohiturak entzuterako. Agudezia jakinguratsuz hornitu gintuen naturak eta bere gaitasunaren eta edertasunaren jakitun, hainbat ikuskizun miresteko sortu gintuen; bere lanaren emaitza alferrik galduko bailuke, hain gauza haundi, argi, hain artistikoki gidatuak, hain garden eta ederrak, eta ez edertasun mota bakarrekoak, bakardadeari soilik erakutsiko balizkio. Ikusiak ez ezik, mirestuak ere izan daitezkeen nahi zuela naturak jakin dezazun, begira zein lekutan kokatu gintuen. Izadiaren erdi-erdian jarri gintuen eta inguruko ikuspegi osoa eman zigun; eta gizona zutik egiteaz gain, kontenplaziorako gai ere egin zuen, izarren ibilbidea sortzetik sartaldearaino jarrai ahal izan zezan, eta aurpegia inguru osoan gira zedin, burua lepo malguaren gain-gainean jarri zion; gero izarren konstelazioak gidatuz sei egunez, sei gauez, ez zuen ezkutuan ezer bererik utzi, gizonaren ikusmina sortzen

zuten hauen bidez, gainontzekoen grina ere pizt zedin. Eta oraindik ez ditugu denak ikusi, ez eta diren bezain handiak; baina gure ikusmen zorrotzak bere azterbideak urratzen ditu eta egiari oinarriak jartzen dizkio, agerikotik ezkutukora joan dadin ikerketa eta mundua bera baino zerbait zaharragoa idoro dezan: nondik sortu ziren izar horiek; zein izan zen unibertsoaren egoera banakoak zatika bereizi aurretik; zein arrazoik sakabanatu zituen elementu nahasi eta murgilduak; nork ezarri zion bakoitzari bere lekua; astunak berez jaitsi ote ziren, arinak berez hegaldatu⁸⁴, edota gorputzen joera eta pisuaz at, goragoko beste indarren batek araututa⁸⁵; egia ote den, gizakia jainkozko izpirituz osatuta dagoela gehien frogatzen duen hura, alegia, txinpartak moduko izar zatiak lurrera jausi zirela eta ez zegokien lekuan itsatsita geratu zirela. Gure pentsamentuak zeruko babeskiak hausten ditu eta agerian dagoena jakitea ez du aski. "Munduaz haraindi dagoena -dio- arakatzen dut, ea amairik gabeko espazio sakona den ala hau ere bere mugen barnean itxia; kanpokoan itxura nolakoa den, formarik gabeak eta nahasiak ote diren, ezein norabidetan leku bera okupatzen dutenak, edota haiek ere nolabaiteko tajuz banatuak izan diren; mundu honi atxikita dauden, edota hemendik urruti egotzita, hutsunean jirabiraka dabilzan; ea zatiezinez osotuta dagoen⁸⁶ sortu den eta sortuko den oro, ala gauzen materia etengabekoa den eta aldakorra edonon⁸⁷; ea osagaiak elkarren aurkakoak diren ala gatazkarik gabe, bide ezberdinetatik bat datozen." Hauek aztertzeo jaioa izanik gizona, pentsa zeinen denbora gutxi eskaintzen zaion, asti osoa beretzat hartuko balu ere. Fitsik ere aise kentzen utziko ez duen arren, axolagabeki ezer galduko ez duen arren, bere orduak zeken gorde eta giza bizitzaren azkenera arte luzatuko dituen arren, naturak emandakotik zipitzik ere fortunak astinduko ez dion arren, hala eta guztiz, gai hilezkorren ezagutzarako hilkorregia da gizona. Beraz, naturaren arabera biziko naiz, erabat hari eskaintzen banatzaio, haren miresle eta gurtzaile banaiz. Bata zein bestea, biak burutu ditzadan nahi izan du naturak, ekitea eta kontenplaziori astia ematea. Biak lantzen ditut nik, ekintzarik gabeko kontenplazioa ezinezkoa baita⁸⁸.

VI. "Baina jakin behar da -diostazu- ea plazerragatik hurbiltzen zatzaizkion naturari, etekinik gabeko kontenplazio iraunkorra besterik eskatzen ez diozularik; atseгина baita eta bere xarmak dauzka." Horri erantzuna emango dizut: berdin dio, zein asmoz saiatzen zaren bizitza zibilean, beti urduri bazaude, gizagaietatik jainkozkoetara begiak aldatzeko astirik hartu gabe. Bertute zaletasunik gabe eta gogoa batere landu gabe gauzak desiratzea eta ekintza hutsak burutzea onestekoa ez den bezalaxe -nahas-mahas joan behar baitute- astialdian ekintzarik gabe galdutako bertutea ere ondasun akatsduna eta makala da, ikasitakoa inoiz erakutsiko ez duena. Nork ukatuko dizu, bertuteak bere aurrerapenak ekintzan egiaztatu behar dituela eta zer egin behar den pentsatu ez ezik, noizbehinka eskua ezarri eta hausnartutakoak errealitate bilakatu behar direla? Eragozpena jakintsu

beraren baitakoa ez bada, egilea ez baina eginkizunak falta badira, nolatan utziko diozu bakarrik egoten? Zein asmorekin erretiratzan da jakintsua astialdira? Jakin dezan, orduan ere geroari ongarri izango zaizkionak burutu behar dituela. Gu gara, zinez, zera esaten dugunok, hots, bai Zenonek, bai Krisipok armadak gidatu, lan ohoretsuak gailendu, legeak moldatu baino eginkizun handiagoak burutu zituztela. Moldatu zituzten, bai, legeak, ez hiri batentzat gizadi osoarentzat baizik. Zergatik, beraz, ez zaio komeniko gizon zintzoari asti hori, datozen gizaldiak arautu ditzan bertan; predikua egin dezan, ez gutti batzuren aurrean, nazio guztietako gizonen aurrean baizik, direnak eta izanen direnak? Laburbilduz galdetzen dut, ea Kleantes, Krisipo eta Zenon euren aginduen arabera bizi izan ziren. Zalantzarik gabe erantzungo duzu, nola bizi irakatsi zuten bezalaxe bizi izan zirela haiek. Baina haietarik inork ere ez zuen herribatzarik gobernatu. "Herri zuzendaritzan behar den fortunarik, ez apartekotasunik ez zuten izango" -esango didazu-. Ez ziren, baina, horregatik nagi bizi izan; aurkitu zuten nola euren atsedena ongarriago egin gizonentzat, askotxoren joan-etorriak eta izerdiak baino. Ez baitziren lan bikaina eginaren irudia utzi gabe gelditu, arazo publikoetan ihardun ez arren.

VII. Badira beste hiru biziera ere, haietarik onena zein den galde egin ohi duguna. Bata plazerrari emana, bestea kontenplazioari, hirugarrena ekintzari. Gure liskarra alboratuz, beste bidetatik doazenen aurkako gure gorroto bizia alboratuz, ikus dezagun lehenik, ea izen ezberdineko guzti hauek helmuga bat berera iristen ez diren. Zeren eta plazerra baiesten duena kontenplaziorik gabe ez dagoen bezalaxe, kontenplazioari emana ere ez dago plazerrik gabe; ez eta ekintzetan bizi dena, ez dago kontenplaziorik gabe. "Alde handia dago -diostazu- zerbait

helburutzat hartzetik inoren helburuari erantsita egotera." Bego alde handia, baina bata ezin izan daiteke bestea gabe. Ez du honek ekintzarik gabe kontenplatzen, ez horrek kontenplaziorik gabe ekiten, ez eta hirugarrenak⁸⁹, zeinaz iritzi txarra egin genuen, ez du plazer alferrik gomendatzen, bere arrazoiak irmotzat daukana baino; beraz sekta plazerzale honek beronek ere ekinean dihardu. Eta zergatik ez du ekinean ihardungo, Epikurok berak esana bada, bera plazerretik inoiz aldenduko litzatekeela, oinazearen irrika ere izango lukeela, plazerra damuaren menpe balego edota oinaze arinagoz larriagoa ordezkatzetik izango balu? Nora noan hau guztia esatearekin? Kontenplazioa denon gogoko dela azaltzera; batzuentzat xede, guretzat geltoki da, ez helmuga.

VIII. Erantsiozu orain horri, Krisiporen arauan zilegi dela astialdian bizitzea; ez dut esan nahi astia nozitzea zilegi denik, hautatzea baizik. Jakintsua ez dela inongo herribatzen nahasi behar diote gureek; zer axola dio baina, nola datorren jakintsua astialdira, herribatzak huts egin diolako ala berak huts egin diolako herribatzari, ez baita edonon aurkitzen herribatza izan beharko lukeena? Seguru egon, ez dela herribatzarik izango bilatzaile asegaitezatzat. Hau da nire galdera: zein herribatzatara hurbildu behar du jakintsuak? Atenaskoenera, zeinak Sokrates kondenatu zuen eta Aristotelesek, kondenatu aurretik, ihesi egin zienengana? Bekaizkeriak bertute oro zapaltzen dituen lekura? Jakintsuak ez duela herribatza honetara hurbildu behar esango didazu. Kartagotarren herribatzara hurbilduko ote da bada jakintsua, non sedizioa egunerokoa den eta onenentzat ere askatasuna etsai, non justizia eta ongia berdin irainduak diren, arerioen aurkako krudeltasuna basatia den, are eta bertakoen aurkakoa ere? Hemendik ere ihes egingo du. Denak banan-banan aztertu nahi izango banitu ez nuke bat ere aurkituko jakintsua jasateko gai litzatekeenik, edota jakintsuak jasan ahal izango lukeenik. Eta ametsetan dugun herribatza hura aurkitu ezean, astia denoi premiazkoa izaten hasi zaigu, ez baita inon ere existitzen astia baino nahiago izan daitekeenik. Itsasoratzea gauzarik onena dela esango balu norbaitek eta ondoren uko egingo balio itsasoan nabigatzeari bertan istripuak gertatu ohi direlako eta sarritan bapateko ekaitzek pilotua alderantzizko bidetik amildu ohi dutelako, honek untzia askatzea debekatzen didala pentsatuko dut, nabigazioa goraipatuko duen arren⁹⁰.

Oharrak

1 18. eta 19. ataletan argi agertuko denez, obra hau K.o. 49. urte inguruan idatzi zuen Senekak, artean Paulino Erromako biltegi hornikuntzaren arduradun zelarik. Gizon ospetsu hau, agi denez, senitartekoa zuen idazleak.

2 Hipokratesen "Aforismoak" liburuaren lehen hitzak dira hauek.

3 Oroimenak iruzur egin dio hemen Senekari. Ez da Aristoteles Naturari akusazio hori egotzi ziona, haren ikasle zen Teofrasto baizik, Zizeronek bere "*Tusculanae quaestiones*" liburuan argi utzi duenez (3. liburua, 28. atala). Aristotelek alderantzizkoa adierazten digu, alegia, animalia guztietarik, elefantea salbu, gizakia dela luzaroen bizi dena ("Animalien Historia" 4. liburua, 28. atala).

4 *Poetarik handiena*. Ez dakigu nortaz ari den. Esaera Virgiliorena dela diote batzuek, Ennuiori edota Publio Sirori egozten diote besteek.

5 "Errege" goitizena eman ohi zioten koipekeriaz bezeroek euren ugazaba handikiei.

6 Esan nahi baita, handitasuna bere pisuaren pisuz hondatzen dela.

7 *Herrikideak*, Antonio, Modenako guduan, baita Bruto eta Kasio ere; *adiskideak*, Lepido eta Antonio; *ahaideak*, Sesto Ponpeio eta Antonio bera, ezkontzaz senitartera etorria.

8 Alpe mendietan, Galia, Italia eta Hego Germania artean bizi ziren herri askeei buruz ari da.

9 *Alaba*, Julia famatua, Augustok Pandataria irlara desterratu zuena.

10 Julia, Augustoren alaba, bere gehiegikeriengatik ospetsu egin zenak eta Julio Antonio, Marko Antonio triunbiruaren semeak K.a. 2. urtean, Kleopatra eta Antonioren historia (K.a. 31) berpiztu zuten.

11 Ez dakigu Atikori zein gutunetan idatzi zituen hauek Zizeronek. Tuskulotik Atiko berorri zuzendutako beste batean (13. liburua, 31. gutuna) antzeko zerbait agertzen da: "*Semi libri saltem simus*", hots, "Izan gaitezen, bederen, erdi libre".

12 Ezin ziren epaitegietan azaldu gazteak gizonezko soinekoz jantziak izan arte.

13 "*Consolationes ad Marciam*" liburuan kontatzen digu Senekak (16. ataletan), etxera zihoala zastakatu zutela Druso. Zizeronek hiltzailearen izena ere aipatzen du, Vario omen zen. Florok dioenez (3. liburua, 17. atala), bere herria nahastu izanaren penaren poderioz hil zen Druso.

14 "Lanpetu" (*occupati*) hauen lan zerrenda ematen digu hurrengo lerrotan. Testu honen egituran zerbaiten hutsunea nabaritzen da.

15 Pretoreen eskutan zegoen, garai hartan, joko publikoen antolaketa.

16 Virgilioren "Georgik", (3. atala, 66. bertsoa)

17 *Fabiano*. Sarri aipatzen du Senekak filosofo hau, beti laudorioz.

18 Auzitegi inguruan zakur zaintzaile gaiztoak askatzen zituzten arratsalde partean, lege-gizonak garaiz irtetera behartzeko.

19 Lurrean sartutako lantzak enkantea iragartzen zuen, non salgai baitzeuden gudu-harrapakinak eta konfiskatutako ondasunak.

20 *Ceroma* hitzak, berez, kirolariak masaiatzeko erabiltzen zen ukendua adierazten du, hedapenez, masaia-lekuari ere hitz bera doakio.

21 Mimo-antzezleak oso herrikoiak ziren, euren gehiegikeriengatik sarritan zentsuratuak.

22 Beste nonbait ere badio Senekak ezagutza hauek hutsalak eta ahaztekoak direla: "... *et alia quae erant dediscenda, si scires*" (Gutunak, 88).

23 Tiberioren agintepean hedatu bide zen erromatarren artean zaletasun antzu hau. Hainbeste krimen burutu zuen printze krudel honek bere korrupzioaz eta gustu txarrez kutsatu zuen Hiriburua. Suetoniok kontatzen digu, nolako fabula zaletasun txoraa zuen

gizon honek; gisa honetako galderak egiten omen zizkien bere gramatikolari partikularrei: "Nor zen Hekuboren ama?", "Zein zen Akilesen izena Likomederen kortean?", "Zer kantatzen zuten sirenek euren abestietan?"...

24 Hemen eta hurrengo kapituluan Seneka agertzen zaigu berak kritikatu duen jakitunkeriak kutsatuta.

25 Elkarri erantsitako ohol xaflez egindakoak ziren taula hauek.

26 Hala nola, zalantzarik gabe, Mario, Sila, Zesar, Kraso.

27 Pliniok kontatzen digu, errukiaren errukiz altxatu zela herria ekintza hauen aurka Ponpeioren aurrean. Zizeronek ere bere inpresioa utzi zigun hitz hauetan: "*Extremus elephantorum dies fuit, in quo admiratio magna vulgi atque turbae, delectatio nulla exstitit; quin etiam misericordia quaedam consecuta est atque opinio eiusmodi, esse quandam illi beluae cum genere humana societatem.*"

28 *Pomerium*, hiritik aske zegoen hiri esparruari ematen zitzaion izen hau. Eremu hau hedatzeko eskubide erregeak zuen, horrela Erromaren lurraldea zabaltzen zelarik.

29 Karneadesek sortutako Akademia Berriak irakasten zuen ezagutzaren ziurtatu ezina.

30 Alboan eraman ohi zituzten handikiek edota handinahiek, kaleko jende arruntaren izenak belarrira xuxurlatuz gogoraraziko zizkieten laguntzaileak, *nomenclatores* zeritzenak.

31 Herodotok bere 7. liburuan, 60. atalean argitzen digu Senekaren pasarte hau. Xerxes erregearen armada milioi eta zazpirehun gizonak osatzen zutela azaldu ondoren, honela jarraitzen du: "Ara nola egin zuten zenbaketa. Hamar mila gizon bildu zituzten esparru batean, elkarrengadik ahalik eta hertsien; haiek okupatzen zuten eremua markatu eta hormaz hesi ondoren, soldaduz bete zuten behin eta berriro esparrua, bertatik denak pasa ziren arte."

32 Plinio Gaztearen Gutunek argitzen digute pasarte hau. Berak azaltzen digu nola egiten ziren lege-gizonen hautaketak:

"Aurkeztuak banan bana ozenki deituak ziren: denak isilik, hautagaiak hitza hartu eta bere jokabidea nolakoa zen agertzen zuen, horretarako testigu eta berme bere defendatu ohia edota armadan nagusi izandakoa ekarriz, ahal izanik biak. Hautagaiak bere babesleak deitzen zituen (*quosdam ex sufragatoribus*) eta hauek haren alde mintzatzen ziren hitz gutxitan". (3. Liburua, 20. gutuna)

33 *Caliga*, soldadu soilen oinetakoa zen; hortik zetorkien hauei *caligati* izena. Mario soldadu maila soiletik kontsul izatera iritsi zen nonbait. Hemendik datorkio, halaber, Kaligula goitizena Kaio Zesar, Germaniko eta Agripinaren semeari, soldaduekiko kidesasuna erakusteko haien oinetakoz jazten omen zelako.

34 Tito Liviok azaltzen digu, L. Eszipionek, Eszipion Afrikarraren anaiak, ez zukeela Antiokoren aurkako guduan aginterik izanen, anaia laguntzaile izan ez balu.

35 Kapitolioan anaiaren estatua eraikitzea gaitzetsi zuen.

36 Kanpaniako Linternan bere hilobirako hitz hauek idatzi zituen: "*Ingrata patria, ne ossa quidem habes*".

37 Pasarte honek ez du logikarik, testuaren osotasun faltagatik.

38 Itsas gainetik eraiki zuen Kaligulak, Baia eta Puzzol artean hiru mila eta seiehun pausutako zubia, ainguraz elkarri lotutako garraiountzi lerro bik osatua, Via Appiakoen antzeko harlosaz hornitua. Bi egunez ibili zen bera zubian aurrera eta atzera; lehenengoan bikainki apaindutako zaldi ganean, artezko koroa buruan, aizkoraz, gerriko galiaz eta ezpataz armatuta, urrezko kasakaz jantzita; biharamunean, berriz, gurdizain jantzita, bi zaldi lirainek zeramaten gurdian, Dario, partook opari eskainitako gaztea, aurrean zuelarik, atzean, berriz, goardia pretoriarra eta bere lagunak gurdietan. (Suetonio, "Kaligularen bizitza" 19. atala)

39 Xerxesi buruz ari da. Kaligulak bere itsasgainetiko zubi famatua eraikitzeko, Italiako portuetan aurkitzen ziren untzi guztiak ekarri zituen, bai eta auzoko herrietakoak ere, hauen artean, Egiptotik garia eta beste herrialdeetatik Erromara janariak garraiatzen zituzten untziak. Honen ondorioz, Erroma eta inperio osoa gosete izugarriak hartu zuen.

40 Sasoiko bi kontsulen izenak ezartzen zitzaizkien urte erromatarrei.

41 Gauez, zuzien argitara, egin ohi ziren pubertaro aurretik zenduen hiletak.

42 Klamide edo kapaz jende dotorea jantzi ohi zen Erroman. "Koroatuak" esklabuei deitzen zieten, salerosketa garaian buruan ezartzen zitzaaien seinaleagatik.

43 Senekak berak argitzen digu bere "*Epistulae ad Lucilium*" delakoan (XXI, 9) "auzi bereizte" hau zertan datzan: "Niri zati baten komeni zaidan auziren bat aurkezten denean senatuan, gaia sailkatzeko eskatzen dut eta onesten dudan atalari atxikitzen natzaio"

44 Kabaretak, kasinoak eta putetxeak zeuden Erromako poliziaren zaingo berezi pean.

45 Dotrina Estoikoan irakasten zenez, Unibertsoa (*mundus*) eta jainkotasuna bat ziren. Estoiko zaharren arabera, Su sortzailea zen jainkotasuna. Su honek, barne eraginez, mutazio prozesu baten bidez, materiaren forma berriak sortarazten ditu. Hauek, alderantzizko prozesu bidez, jatorrizko Sua gauzatzen dute. Teoria honi buruz ari zaigu Seneka pasarte honetan.

46 Belarrian kokatzen zuten oroimena.

47 Ugazabaren platerretik aurrez dastatzen zuen esklabuari deitzen zioten "*praegustator*".

48 Epikurok idatzi zuen, aski zuela berak zurrutada bat ur eta ogi puskarekin, "...noizbait bankete bat egiteko kapritxoa izango dudanerako, bidal eidazue gazta zatitxo bat".

49 Afeminatuen sinbolotzat hartzen zuten panderoa, Zibelezen apaiz maritxuek erabiltzen zituztelako.

50 Hots, bertutea eta plazerra elkar nahasiz osotutako bizitza.

51 Zirene eta Kartago artean, Afrikako ipar kostaldean itsasgizonentzat oso ezaguna zen hondoko hondar-meten arriskuagatik paraje hau.

52 Gladiadoreen agur-hitzak ospetsu bihurtu dira: "*Morituri te salutant*".

53 "Jarrai jainkoari!" Pitagorasek ezarritako agindua da hau, Boezioren ustetan.

54 Suiliok Senekaren aurka egindako salaketak aipatzen dira hemen banan-banan.

55 Hala nola: erramua, platanondoa, altzifrea... urrutitik aldatutako arbolak, Plinioren esanetan, eta geriza besterik ematen ez digutenak.

56 Esklabu gazteen heziketarako aretoari deitzen zioten "*Paedagogium*".

57 Bere bizimodua zela eta, egiten zitzaizkion kritikei erantzuten saiatuko da Seneka atal honetan.

58 Suizidioa Estoikoentzat, galera ezineko zorigaitzetik irtenbide duin eta heroikoa zen.

59 Seneka bera aberastasun oparoen jabe zen.

60 Ongizate fisikoa eta mentala kontrastatzen ditu hemen; bigarrena izan daiteke lehena barik. Biak dira, dena den, desiragarri.

61 Erromako hiritarren ezaugarri zen toga.

62 Askatasun mota bi bereizten ziren: "*Libertas justa*" eta "*Libertas injusta*" edo "*minus justa*". Lehenengoak betiko askatasun osoa adierazten zuen. Bigarren motako askatasuna lortzen zutenek, aitzitik, berriro ere morrontzaren uztarpean jausi zitezkeen.

63 Seneka bera emankortasun handiko gizona zela, utzi digu idatzita Tazitok.

64 Tiber ibaia zeharkatuz, zurezko zubi honek Hiria Janikulo mendiarekin lotzen zuen. Erromako beste hainbat zubik bezala aterpe eskaintzen zien eskeko eta txiroei.

65 Herri xeheak erabili ohi zituen lasto-hondakinez egindako koltxoiak.

66 Gudu-harrapakinak garraiatzeko erabiltzen zen orgari zeritzon "*Fericulum*". Batzuetan preso ospetsuak ere eramaten zituzten bertan itzulerako garaipen manifestaldietan.

67 Zesarrek kontatzen digu nola batzuetan burla ere egiten zieten atzerriko arerioek, euren hiriko murrailak birrinduko zituen gudu-tresneria antolatzen ziharduten Erromatarrei.

68 Leda, Europa eta Herkulesen ama izan zen Alemanaganako amodioez ari da.

69 Ganimedes, Jupiterren leinukoa, honek bahitu zuen.

70 "*Favete linguis*", ospakizun erligiosoetan jendea isilarazteko esan ohi ziren hitzak dira.

71 Isis jainkosaren apaizek jo ohi zuten zilarrezko edo urrezko musika tresna hau.

72 Herri apal, sinestun, ezjakinaren begirunea berenganatzeko eramaten omen zituzten Egiptoko apaizek kriseilu argiak egunez.

73 "*Comicorum poetarum*", edizio ezberdinetan "*Inimicorum poetarum*" eta "*Mimicorum poetarum*" ere aurki daiteke.

74 Diogenes Laertziok kontatzen digu, Platonek 80 talentu baino gehiago hartu zituela Sirakusako Dionisiorengandik; Aristotelesek Alexanderren laguntza onartu zuela Filiporen kortean; Epikurok mina bat baino gehiago gastatzen zuela eguneroko janedanean. Demokritori buruz, hau idatzi zuen Zizeronek: "...*patrimonium neglexit, agros deseruit incultos, quid quaerens aliud nisi vitam beatam.*" (De Fin. v. 29. 87)

75 Hemendik aurrerako textua galduta dago.

76 Galdutako testu baten jarraia da nonbait hasiera hau. Zenbaitzuen ustez *De Vita Beata* obrari erantsi zizkion egileak orrialde hauek.

77 Libururik onenak eskuratuz.

78 Suntsituak izan direlako.

79 Haien exenpluei jarraituko die, ez haien aginduei.

80 Senekak berak azalduko digu 5. atalaren amaieran: "*he contemplatio quidem sine actione est.*"

81 Estoikoen ikuspegitik.

82 Epikurotarren ustez, munduak kontaezineko kopuruan daude amaierarik gabeko espazioan.

83 Estoikoentzat ez dago hutsik. Epikurotarrek, berriz, euren dotrinaren oinarritzat daukate hutsaren existentzia.

84 Epikurotarrek materialistak ziren. Euren ustetan, munduaren atalik nagusienak (lurra, zerua, airea, eterra)

tamaina eta pisu ezberdineko atomoen menturazko konbinazioz dira sortuak. Substantzia astunak hondora joan dira eta arinak airera

85 Estoikoak panteistatzat har ditzakegu. Mundua Kreatzaile Adimendun norbaitek sortua da beraientzat. Jatorrizko Sua eta Jainkotasuna gauza bat bera da, eta munduko lau osagarrietariko bakoitzak Jainkozko berotasunetik zati bat bereganatzen du.

86 Ikuspuntu epikurotarretik.

87 Munduaren ordena finkatuan dauden lau osagarrien transmutazioari buruzko dotrina estoikoa aipatzen du hemen.

88 Aristotelesek zalantzan jartzen duena.

89 Epikurotarrari buruz ari da orain.

90 Itxuraz, obra ez da hemen amaitzen.

Altzibiades

Sokratesen ikasle izandako Atenasko politikoa. Lasaikeria eta eskandaluengatik ospetsua bere garaian.

Antioko

Siriako errege. Erromatarrek hil zuten K.a. 190. urtean.

Antonio, Marko

Oktavio eta Lepidorekin triunbiratua osatu zuen.

Apizio

Epikurotar tripazai famatua Tiberioren garaian, Senekarentzat oso ezaguna; behin baino gehiagotan agertzen da aipatua bere idatzietan.

Aristoteles (K.a. 384 - 322)

Eskola Peripatetikoaren sortzailea.

Atiko, T. Ponponio (K.a. 109 - 32)

Zizeronen lagun eta idazkidea.

Augusto, Zesar (K.a. 27 - K.o. 14)

Erromako lehen enperadorea.

Aventino, mendia

Erromako zazpi muinoetariko bat.

Bako

Munduan zehar ardoaren kultura eta arteen zibilizazioa hedatzen ibili zen. Indiatik itzuli zenekoa aipatzen digu hemen Senekak.

Boko

Mauritaniako errege. Jugurtaren aitaginarreba.

Demetrio

Kaligularen erregetza sasoian Erroman irakasle jardun zuen filosofo Ziniko honek; behin eta berriro "gurea" (noster) bezala azaltzen da Senekaren idatzietan.

Demokrito

Filosofo greziarra, K.a. 460. urte inguruan jaioa. Teoria atomikoaren aitzindari goiztiarra.

Druso, Livio

Izen berekoaren semea. K.a. 91. urtean, tribunu zela, aurka jarri zitzaion senatua eta bere etxeko atarian izan zen eraila.

Duilio, Kaio

Lehen Gudu Punikoan kontsula zen. Kartagotarren aurkako itsas guduan (K.a. 260) Siziliako ipar kostaldean lortutako garaipenak ospe handia eman zion.

Egnazio, Rufo M.

Augustoren aurka konspiratu zuen.

Epikuro (K.a. 341 - 270)

Samoseko filosofo honek izena eman zion garrantzi handiko eskolari.

Eszipion, Afrikarra

K.a. 202. urtean Hanibal menperatu zuen Zaman.

Fedro

Literatura poetiko latinoan fabula mota lehenengoz erabili zuena.

Fabiano

Senekaren irakasle mirestua.

Galion

Senekaren anaia. Senadore izan zen eta Akaia probintziako gobernadore. K.O. 66. urtean bere buruaz beste egin zuen. Senekaren beste zenbait liburu ere berari eskainiak daude.

Grakotarrak, Tiberio eta Kaio

Nekazari erreformatzaile goiztiarrak.

Kaio Zesar

Goitizenez Kaligula. Erromako enperadore K.o. 37. urtetik 41.era.

Kaligula

Kaio Zesarren goitizena.

Karneades

Zireneko filosofo eszeptikoa. Akademia Berria sortu zuen.

Katalina, Luzio Sergio

Konspiratzaile erromatarra. Zizeronek alboratu zuen K.a. 63. urtean.

Katon, M. Portzio

Zesarren aurka, Ponpeioaren alde borrokatu zuen senatuan Estoiko gazte, sutsu honek. K.A. 46. urtean bere buruaz beste egiteagatik izan zen goraipatua.

Katon, zentsorea (**K.A. 234 - 149**)

Aurrekoaren birraitona, bere austeritateagatik ezaguna.

Kintio, Zintzinato, L.

Heroia antzinako Erromako kondairatan; birritan aldarrikatu zuen diktadura.

Klaudio Apio

Goitizenez *Caudex*. K.a. 264. urtean kontsul hautatua.

Kleantes

Zenonen ordezko Estoikoen Eskolaren zuzendaritzan.

Klodio, Publio

Demagogo erromatarra. K.a. 58. urtean tribunu zela, Zizeron desterrura bidali zuen.

Korunkanio, Tiberio

Xalotasunaren eredu aurkezten zaigun gizon hau kontsul izan zen K.A. 28. urtean.

Kraso, M. Lizinio

Lehen Triunbiratuan Zesar eta Ponpeiorekin parte hartu zuen.

Krisipo

Estoikoen Eskolako hirugarren buru izan zen, Kleantesen ordezko.

Kurio Dentato, Manio

Gudagizon ospetsua, atsegina eta jatorra. K.a. 290.ean kontsul izendatua.

Lepido, M. Emilio

Triunbiruaren semea. Augustoren aurka matxinatu zen.

Mario, Kaio

General eta estatugizon erromatarra, Silaren lehiakide.

Mesala

Valerio Korvinoren goitizena.

Metelo, L. Zezilio

K.a. 251. urtean kontsul zelarik, kartagotarren aurkako gudua irabazi zuen Sizilian.

Murena, Terrentzio Varron

Augustoren aurka konspirazioa antolatu zuen.

Nomentano

Diru xahutzaile eta tripazainaren eredu gisa agertzen da Horazioren Satiretan ere.

Paulino

K.o. 49. urte inguruan Erromako biltegi hornikuntzaren arduraduna, Senekaren familiakoa.

Paulo, L. Emilio

Kontsula K.O. 1. urtean. Augustoren iloba Juliaren senarra.

Platon (**K.A. 428 - 347**)

Atenasko filosofo ospetsua.

Ponpeio, Magno

Zesarren oposizioan senatu-alderdiko liderra. Farsalon K.a. 48. urtean menperatua eta handik gutxira Egipton eraila.

Pitagoras

Filosofo greziarra, K.a. 540.etik 500.era nabarmendu zen.

Remo

Romuloren anaia.

Rutilio, Rufo

Erromako hiritar bertutetsua. K.A. 92an zaldun erromatarrek desterrura kondenatu zuten, Asiako biztanleak Inperioko zergabiltzaileen gehiegikerietatik babestu zituelako.

Sereno

Honekin batera, beste zenbait obra ere eskaini zizkion Senekak adiskide kuttun zuen Neronen goardiako prefektu gazte honi. K.O. 63. urtean Serenoren heriotze goiztiarrak biziki hunkitu zuen gure idazle ospetsua.

Sila, Luzio

Diktadore erromatarra, Marioren lehiakidea. K.a. 78.ean hil zen.

Sokrates (**K.a. 469 - 399**)

Atenasko filosofo ospetsua.

Teofrasto

Filosofo greziarra. Eskola Peripatetikoaren buru izan zen, Aristotelesen hurrengo.

Tuskula

Zizeronen etxearen izena.

Valeriotarrak

Erromako familia zaharra.

Valerio Korvino, Manio

K.a. 263. urtean kontsul zen. Hieronen aurkako guduan "Mesanako heroia" izenaz ohoretu zuten.

Zenon

Eskola Estoikoaren sortzailea Atenasen. K.a. 300. urte inguruan nabarmendu zen.

Zepion, Fanio

Augustoren bizitza ikertu zuen.

Zinikoak

Greziako eskola filosofikoa, zeinetan austeritatea eta norbere buru-ukapena lantzen ziren.